



# **ERRENTERIAKO** **UDALAREN** **ZIRKULAZIOKO** **ORDENANTZA** **OROKORRA**

\* Ordenantza hau 2006ko martxoak 31n onartu zuen Udalbatzak eta 2006ko ekainaren 7ko 107 zenbakidun GAOn argitaratu zen.

\* Azken aldaketa 2010eko apirilaren 30eko Udalbatzak onartu zuen behin-behingo, eta 2010eko uztailaren 22ko 138 zenbakidun GAOn argitaratu zen.

\* Akats zuzenketa 2010eko azaroaren 10ko 215 zenbakidun GAOn argitaratu zen.



**ERRENTERIAKO UDALAREN ZIRKULAZIOKO ORDENANTZA**  
**OROKORRA**

<b>Artikuluak</b>	<b>Orria</b>
<b>XEDAPEN OROKORRAK</b>	
1. Artikulua : Eskumena	2
2. Artikulua : Arautzearen xedea	3
3. Artikulua : Aplikazio-eremua	3
<b>I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK</b>	
4. Artikulua : Legedi orokorraren aplikazio gehigarria	3
5. Artikulua : Zirkulazioa antolatzeko eta kontrolatzeko neurriak	3
<b>II. KAPITULUA: JOKABIDE ARAUAK</b>	
6. Artikulua : Oztopoak bide publikoetan	4
7. Artikulua : Seinaleak	5
8. Artikulua : Geldialdia	6
9. Artikulua : Aparkatzea	8
10. Artikulua : Oinezkoentzako gunek	10
11. Artikulua : Garraio publikoaren geralekuak	12
12. Artikulua : Zamalanak	12
13. Artikulua : Gordetako bide eta erreiak	14
14. Artikulua : Abiadura	14
15. Artikulua : Zirkulazioa	14
16. Artikulua : Zirkulatzeko edo aparkatzeko baimen bereziak	18
17. Artikulua : Eskatu ahalako garraioa	18
18. Artikulua : Bide publikoetako erabilera debekatuak	18



<b>19. Artikulua : Lehentasuneko Arretako edo zirkulazio handiko bideak</b>	19
<b>II. TITULUA: ARAU-HAUSTEEN, HAIEN MAILEN ETA ZIGOR APLIKAGARRIEN TIPIFIKAZIOA</b>	
<b>I. KAPITULUA: ARAU-HAUSTEAK ETA HAIEN MAILAK</b>	
<b>20. Artikulua : Arau-hausteen kontzeptu orokorra</b>	20
<b>21. Artikulua : Tipifikazioa</b>	20
<b>II. KAPITULUA: ZIGOR APLIKAGARRIAK</b>	
<b>22. Artikulua : Arau-hausteak eta zigorrak</b>	20
<b>III. TITULUA: ZUHURTASUNEZKO NEURRIAK</b>	
<b>I. KAPITULUA: IBILGAILUAK IBILGETZEA ETA KENTZEA</b>	
<b>23. Artikulua : Ibilgailuak ibilgetzea</b>	21
<b>II. KAPITULUA: IBILGAILUAK KENTZEA</b>	
<b>24. Artikulua : Bide publikotik ibilgailuak kentzea</b>	22
<b>25. Artikulua : Arriskua sortzen duen tokian aparkatzea</b>	22
<b>26. Artikulua : Oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazioa trabatzen den tokian aparkatzea</b>	23
<b>27. Artikulua : Zerbitzu publikoren baten lana galarazi edo zailtzen den tokian aparkatzea</b>	24
<b>28. Artikulua : Ondare publikoan galerak edo narriadura eragiten diren tokietan aparkatzea</b>	24
<b>29. Artikulua : Utzita egotea</b>	24
<b>30. Artikulua : Aparkaldi mugatuko guneetatik ibilgailua kentzea</b>	25
<b>31. Artikulua : Beste erabiltzaile batzuentzat gordetako gunean dauden ibilgailuak kentzea</b>	25
<b>32. Artikulua : Ibilgailuak kentzeko beste hainbat arrazoi</b>	26
<b>33. Artikulua : Ibilgailua kentzeko agindua bertan behera uztea</b>	26
<b>III. KAPITULUA: IBILGAILUEK EGINDAKO ZARATA</b>	
<b>34. Artikulua : Ibilgailuek egindako zarata</b>	27
<b>IV. KAPITULUA: IBILGAILUAK IBILGETU, KENDU ETA BILTEGIAN EDUKITZEKO ZERBITZU PUBLIKOAGATIKO TASAK</b>	



**35. Artikulua : Tasen autolikidazio-erregimena**

28

**V. TITULUA: ZIGOR PROZEDURA  
KAPITULU BAKARRA**

**36. Artikulua : Organo instrukzio-egile eta zigortzaile eskudunak**

29

**37. Artikulua : Espedienteak Administrazio eskudunari igortzea**

29

**38. Artikulua : Gidabaimenak eta gidatzeko lizentziak baliogabe uztea eta kentzea**

29

**39. Artikulua : Zigor-espedienteak izapidetzea**

29



**1. ERANSKINA**

**OINEZKOENTZAKO GUNEAK**

---

<b>Artikuluak</b>	<b>Orria</b>
<b>1. Artikulua: Xedea eta aplikazio-eremua</b>	<b>1</b>
<b>2. Artikulua: Ibilgailuen zirkulazioa</b>	<b>1</b>
<b>7. Artikulua: Arau-haustek eta zigorrak</b>	<b>2</b>



## 2. ERANSKINA

### ERRENTERIAKO UDALERRIKO BIDEETAN ZIRKULATZEKO ETA APARKATZEKO MUGA ESPEZIFIKOEI BURUZKO ARAUAK

---

Artikuluak	Orria
Eusko Jaurlaritzaren bideak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumena	1
Gipuzkoako Foru Aldundiaren bideak	1
Errenteriako Udalaren bideak	1
LEHENTASUNEN ARRETA BIDEAK	5
1. Grafikoa: Herri Barrua	6
2. Grafikoa: Lehentasuneko Arreta Bideak	7
3. Grafikoa: Oinezkoentzako Gunea	8

**3. ERANSKINA:****BIDE PUBLIKOAN APARKATZEKO ERRESERBAK EMATEKO,  
SEINALEZTATZEKO ETA IZAPIDETZEKO ARAUAK**

Artikuluak	Orria
1. Artikulua: Xedea eta ezaugarri orokorrak	1
2. Artikulua: Erreserbaren seinaleak	1
3. Artikulua: Erreserbak izapidetzeko baldintza orokorrak	1
4. Artikulua: Erreserba motak	2
5. Artikulua: Gune-erreserbak jabetza pribatuetara ibilgailuekin sartzeko ibiak daudenean	3
6. Artikulua: Gune-erreserbak lanak egiteko	9
7. Artikulua: Salgaien zamalanetarako erreserba publikoak	10
8. Artikulua: Guneen erreserba segurtasun publikoa dela-eta	11
9. Artikulua: Agintariak edo erakunde ofizialetako automobil ofizialek aparkatzeko gune-erreserbak	12
10. Artikulua: Zerbitzu publikoan diharduten erakunde publikoen aparkaleku erreserbaturako gune-erreserba	12
11. Artikulua: Gune-erreserba osasun-zentroen aurrean	13
12. Artikulua: Bidaiariak garraiatzen dituzten zerbitzu erregularreko lineak kokatzeko gune-erreserba	13
13. Artikulua: Eskolako autobusak ikastetxetik hurbil gelditzeko gune-erreserbak	14
14. Artikulua: Gune-erreserba herri barruko garraiorako zerbitzu publikoan diharduten autobusetarako	14



<b>15. Artikulua: Gune-erreserbak hotelen aurrean</b>	<b>15</b>
<b>16. Artikulua: Gune-erreserbak trafiko-erakarpen handiko zentroen aurrean</b>	<b>16</b>
<b>17. Artikulua: Minusbaliiodunentzako guneen erreserbak</b>	<b>16</b>
<b>18. Artikulua: Taxi-geltokietarako guneen erreserbak</b>	<b>18</b>
<b>19. Artikulua: Beste erreserba mota batzuk</b>	<b>19</b>
<b>20. Artikulua: Ekimen pribatu bidezko erreserben baja</b>	<b>19</b>
<b>21. Artikulua: Ekimen pribatu bidezko erreserben eskatzaileek dituzten beste betebeharrak batzuk</b>	<b>19</b>
<b>22. Artikulua: Arau-haustekak</b>	<b>20</b>
<b>23. Artikulua: Zigorrak</b>	<b>20</b>





## **4. ERANSKINA**

### **ERRENTERRIAKO UDALERRIAN ZIRKULATZEKO ETA APARKATZEKO BAIMEN BEREZIAK EMATEARI ETA ERABILTZEARI BURUZKO ARAUAK**

---

<b>Artikuluak</b>	<b>Orria</b>
<b>I. Kapituluak: Arauen xedea eta edukia</b>	<b>1</b>
<b>II. Kapituluak: Baimen motak</b>	<b>1</b>
<b>III. Kapituluak: Oinezkoentzako gune gisa seinalizatutako edo urbanizatutako guneetan zirkulatzeko baimenak</b>	<b>1</b>
<b>IV. Kapituluak: Bide-seinaleek edo Zirkulazioko Ordenantza Orokorrek zehazten duten baimendutako gehieneko pisu osoa baino pisu handiagoa duten ibilgailuetarako zirkulazio-baimenak</b>	<b>3</b>
<b>V. Kapituluak: Zamalanak Zirkulazioko Ordenantza Orokorrek aipatzen dituenaz bestelako baldintza batzuetan egiteko baimenak</b>	<b>4</b>
<b>VI. Kapituluak: Bide publikoan ibilgailuen eta oinezkoen zirkulazioari eragiten dioten eta seinaleak eta balizak ezartzera behartzen duten lanak egiteko baimenak</b>	<b>6</b>
<b>VII. Kapituluak: Bide publikoan zirkulazioa eragozten duten lanak edo okupazioak direla-eta ibilgailuen zirkulazioa eteteko kale-mozketak egiteko baimenak</b>	<b>9</b>
<b>VIII. Kapituluak: Indarrean dagoen araudiak zehazten dituen neurriak gainditzen dituzten garraio berezietarako zirkulazio-baimenak</b>	<b>10</b>
<b>IX. Kapituluak: Udalerriko bide publikoetan barrena salgai arriskutsuak garraiatzeko zirkulazio-baimenak</b>	<b>10</b>
<b>X. Kapituluak: Aparkatzea oro har debekatuta dagoen guneetan aparkatzeko baimen bereziak</b>	<b>11</b>

## **GEHIGARRIA**

### **BIDE PUBLIKOAN EGIN BEHARREKO LANAK SEINALEZTATZEA ETA**



**BALIZATZEA**

**Aplikazio-eremua eta baldintza orokorrak**

**Gutxienerako seinaleztapena eta balizatzea**



## **5. ERANSKINA**

### **ZARATAK**

---

<b>Artikuluak</b>	<b>Orria</b>
<b>1. Artikulua: Helburua</b>	<b>1</b>
<b>2. Artikulua: Aplikatu beharreko araudia</b>	<b>1</b>
<b>3. Artikulua: Mantenua</b>	<b>1</b>
<b>4. Artikulua: Ibilgailuen kontrola</b>	<b>1</b>
<b>5. Artikulua: Ziklomotorrentzako eta motorrentzako saioak</b>	<b>3</b>
<b>6. Artikulua: Arau-haustek</b>	<b>3</b>
<b>7. Artikulua: Zirkulatzen ari diren ibilgailuek egiten duten zarataren gehieneko mugak</b>	<b>4</b>
<b>8. Artikulua: Neurketarako tresnak</b>	<b>5</b>
<b>9. Artikulua: Neurketarako baldintza orokorrak</b>	<b>5</b>
<b>10. Artikulua: Neurketa egiteko metodoak</b>	<b>6</b>
<b>11. Artikulua: Emaitzen interpretazioa</b>	<b>7</b>

**6. Eranskina****ERRENTERIAKO UDALERRI BARRUKO ESKOLA GARRAIOARI ETA  
ADINGABEEN GARRAIOARI BURUZKO ARAUDIA**

---

<b>Artikuluak</b>	<b>Orria</b>
<b>ATARIKO XEDAPENAK</b>	<b>1</b>
<b>I. KAPITULUA: Helburua</b>	<b>1</b>
<b>ZERBITZUA ESKAINTZEKO ARAUAK</b>	<b>1</b>
<b>II. KAPITULUA: Baimenei buruzkoa</b>	<b>1</b>
<b>III. KAPITULUA: Garraiolariaren betebeharrak</b>	<b>2</b>
<b>IV. KAPITULUA: Prozedura</b>	<b>3</b>
<b>V. KAPITULUA: Arau-haustek eta Zigorrak</b>	<b>5</b>

**7. ERANSKINA****ZIRKULAZIOAREN ETA DENBORA MUGATUKO APARKALDIEN  
ANTOLAMENDURAKO ARAUAK (TAO)**

<b>Artikuluak</b>	<b>Orria</b>
<b>ATARIKO XEDAPENAK</b>	<b>1</b>
<b>I. KAPITULUA:</b>	
<b>APLIKAZIO XEDEA ETA EREMUA</b>	<b>1</b>
<b>APARKALDIAREN DENBORA MUGATIK SALBUETSITA DAUDEN KASUAK ARAUZEARI BURUZKO ARAU OROKORRAK</b>	<b>1</b>
<b>Elbarrientzako txartel berezia</b>	<b>3</b>
<b>Ibilgailu ofizialen txartel berezia</b>	<b>3</b>
<b>Egoiliarrentzako txartel berezia</b>	<b>3</b>
<b>Merkatarientzako txartel berezia</b>	<b>5</b>
<b>II. KAPITULUA:</b>	<b>6</b>
<b>APARKATZE DENBORA MUGATZEKO ARAUAK</b>	
<b>SEKTORE URDINA</b>	<b>6</b>
<b>SEKTORE BERDEA</b>	<b>6</b>
<b>III. KAPITULUA: ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK</b>	<b>7</b>

**8. ERANSKINA****ARAU-HAUSTEEN ETA ZIGORREN KOADROA**



## ZIOEN AZALPENA

Ibilgailuen zirkulazioak gure gizartean hartu duen garrantzia ulertzeko, nahikoa da Zirkulazioari oro har, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen Testu Artikulatua onartu zuen martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzazko Errege Dekretuan egindako azalpena irakurtzea. Honako hau zioen beste hainbat konturen artean: *“Egia da ibilgailu motordunen zirkulazioa areagotu eta hedatu egin dela eta, ondorioz, eguneroko bizitzaren parte bat dela eta zirkulazio-askatasunaren adierazpen benetakoenetakoa bihurtu dela. Baina modu masiboan eta aldi berean gauzatzen denez, babes publikoa behar duten interes indibidualei eta kolektiboek kalterik ez egiteko arautu beharreko hainbat arazo sortzen ditu.”*

*Egia da gai hori arautzeko lehen erantzulea Estatua dela, baina aipatu dugun araudiko 7. artikuluan, honako eskumen hauek esleitzen zaizkie udalei:*

- a. *Euren eskumeneko herri barruko bideetako zirkulazioa antolatzea eta kontrolatzea eta agente propioen bidez zaintzea, bide horietan egiten diren arau-hausteak salatzea eta beste ezein administrazioari berariaz esleituta ez dagoenean, arau-hauste horiek zigortzea.*
- b. *Zirkulazioko Udal Ordenantzaren bitartez herri barruko bideen erabilera arautzea. Horretarako, bateragarriak izan behar dute aparkalekuak erabiltzaile guztien artean berdintasunez banatzea, ibilgailuen zirkulazio arinak, kaleek oinezkoentzako erabilera izateak eta aparkaldi mugatuko neurriak ezartzea —aparkalekuen errotazioa ziurtatu ahal izateko—. Gainera, arreta berezia eskaini behar zaie mugikortasuna murriztuta duten eta ibilgailuak erabiltzen dituzten pertsona ezinduen premiei, gizartean errazago integra daitezen.*
- c. *Ibilgailuek denbora mugatuko guneetan aparkatzeko baimena ez dutenean edo emandako baimena gainditzen dutenean, herri barruko bideetan ibilgailuak ibilgetzea, gidaria identifikatzea lortu arte. Ibilgailuek zirkulazioa oztopatu edo eragozten dutenean, zirkulazioan arriskua sortzen dutenean edo aparkaldi mugatuko gunean behar bezala aparkatuta ez daudenean, herri barruko bideetatik kendu eta gordetzea, artikuluko honetan bertan aurreikusitako ibilgetzeko baldintzetan. Herriz kanpoko bideetako ibilgailuak kendu eta gordetzea, arauz erabakitzen diren kasu eta baldintzetan.*
- d. *Bere osotasunean eta soilik herri barruan burutzen diren kirol-probak baimentzea, zeharkaldiak izan ezik.*
- e. *5. artikuluko o) atalak aipatzen dituen probak egitea, arauz finkatutakoaren arabera.*
- f. *Behar denean, herri barruko bideak ixtea.*



Era berean, badira kontuan hartzeko hainbat gauza: bizikletaren agerpena edo berragerpena garraibide bezala, oinezkoari eman behar zaion protagonismo nagusia, garraio publikoaren lehentasuna, eta zirkulazio motorizatuak dituen ondorio negatiboak arinduko dituen neurrien demanda soziala; hori dela eta beharrezkoa da araudia egokitzea gure Herriko mugikortasun iraunkorrari bultzada bat emateko.

Hori dela eta, bizikleten erabilera arautzeari atal berezi bat eskaini zaio, garraio mota honen sustapen politiken ondorio bezala, martxan dagoen aldaketa klimatikoa ekiditeko neurrietako bat baita. Bizikleten zirkulazioa galtzadetan, oinezkoen gunetan eta bizikleta bideetan arautzen da, garraio hori berragertzeak sor ditzakeen arazoak prebenitzeko helburuarekin. Borondatezko izaera izango lukeen bizikleten erregistro bat sortzea ere aurreikusten da, ibilgailu mota honen lapurretak ekiditeko asmoarekin.

Gainera, ibilgailuen eta oinezkoen zirkulazioa erregulatzen duten arauak izandako aldaketa berri eta garrantzitsuak kontuan hartuz, nahitaezkoa da gaiarekin zerikusia duten udal-ordenantzak egokitzea (batzuk indargabetuz, beste batzuk aldatuz eta berriak onartuz), batzuk zaharkituta gelditu direlako eta udal-araurik ez duten arlo berriak sortu direlako.

Horregatik, beharrezkotzat jo da eskumen horiek guztiak Zirkulazioko Ordenantza Orokor bakarrean biltzea eta beste zortzi Eranskin sortzea. Modu horretan, gaiari buruzko araudia sakabanatuta egotea saihesten da, eta bai herritarrei eta bai Udaltzaingoko agenteei beraiei erraztu egiten zaie araudi horretarako sarbidea.

Hori guztiagatik eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legean eta haren Testu Bateratuan Tokiko Erakundeei onartzen zaien eskumenaren eta lehen aipatu dugun Zirkulazioari oro har, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen Testu Artikulatua onartu zuen martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzazko Errege Dekretuko 7. artikulua araberaren arabera, honako ordenantza hau egin da:

## **ERRENTERIAKO UDALAREN ZIRKULAZIOKO ORDENANTZA OROKORRA**

### **XEDAPEN OROKORRAK**

#### **1. Artikulua Eskumena**

Ordenantza hau Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak eta Zirkulazioari oro har, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Testu Artikulatua onartu zuen martxoaren 2ko



339/90 Legegintzako Errege Dekretuak zirkulazio-alorrean Udalari emandako eskumenaren arabera xedatu da.

## **2. Artikulua Arautzearen xedea**

Zirkulatzean herri barruko bideak erabiltzea, zirkulazioa antolatzea, zaintzea eta kontrolatzea, arau-haustekak salatu eta zigortzea eta ibilgailuak ibilgetzeko, herri barruko bidetik kentzeko eta gordetzeko zuhertasunezko neurriak hartzea da Ordenantza hau arautzearen xedea; eta beraz, trafikoa hobetzea, Herriko erabilera publikoko bide eta aparkalekuetan ibilgailuak aparkatzea arautuz, funtzioa, espazioa eta denbora kontuan hartuta.

Errenteriako Udalak ulertzen du herri barruko aparkatzeko guneak ondasun urria direla, eta horien probetxua interes orokorra dela eta ibilgailu erabiltzaile guztiek dutela eskubidea horiek berdintasunean erabiltzeko.

Horren ondorioz, Udalak lortu beharreko lehentasunezko helburu bat jarri da trafikoari dagokionez: herrian gainazalean erabilgarri diren aparkalekuen denboraren araberako banaketa egiterakoan ekitaterik handiena lortzea; izan ere erabilera publikoko jabariaren aprobetxamendu intentsiboa egiten da; horrela, hiritar guztiei aukera ematea ibilgailua darabilten bitartean sortzen zaizkien premiazko beharrak konpontzeko, inork edozein arrazoi erabilita gune horren erabilera pribatu eta pribilegiaturik ez duela egingo bermatuz, bereziki kronologikoki aurretik okupatzea, denboraren eta espazioaren inolako mugarik gabe, beste erabiltzaileak kaltetuz; hori dela eta aparkalekuen erabilera, bertan egotea eta bertatik ibilgailuak erretiratzea Errenteriako Udalak emango duen Zerbitzu Publikoa dela arautzen da.

## **3. Artikulua Aplikazio-eremua**

Ordenantza honetako aginduak Errenteriako udalerriko herri barruko bide guztietan aplikatuko dira.

# **I. TITULUA HERRI BARRUKO BIDEETAN ZIRKULAZIOA ANTOLATZEA**

## **I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK**

### **4. Artikulua Legedi orokorraren aplikazio gehigarria**

Udal-ordenantza horren aplikazio gehigarriak izango dira 339/90 ELD eta haren lege-xedapenak.

### **5. Artikulua Zirkulazioa antolatzeko eta kontrolatzeko neurriak**





- 5.1 – Udal-agintariak zirkulazioa antolatzeko egokitzen jotzen dituzten neurriak hartu ahal izango dituzte, esaterako, ibilgailu edo oinezko guztien edo batzuen zirkulazio-baldintzak behin betiko edo aldi baterako aldatu, murriztu edo debekatu eta aparkaldiak, zamalanak eta pertsona edo salgaien garraioa berrantolatu edo arautu ahal izango dituzte.
- 5.2 – Udaltzaingoak aldi baterako aldatu ahal izango du herriko gunek bateko zirkulazioa, eta oinezko edo ibilgailuei leku baterako sarbidea ere debekatu ahal izango die. Horretarako, behar diren seinaleak aldi baterako jarri edo kendu ahal izango ditu eta baita zirkulazioaren segurtasunerako eta arintasunerako behar diren neurriak hartu ere.
- 5.3 – Aparkatzeari eta zirkulazioari buruz, edo pertsona, ondasun edo ibilgailuen garraioari buruz udaltzainek ematen dituzten aginduek lehentasuna izango dute aurretik dagoen beste edozein seinale edo araudirekiko, eta bat-batean bete beharko dira. Halaber, Aparkatzea Kontrolatzeko Zerbitzuko Zaintzaileen aginduak ere bete egin beharko dira, haien eskumenen esparruan.
- 5.4 – Udal-agintariak aldi baterako debekatu ahal izango dute baimendutako jarduerak okupatuko dituzten edo konponketa-, seinaleztapen-, mantentze- edo garbiketa-lanen bat egin behar den gunetan ibilgailuak aparkatzea. Horretarako, aipatutako guneak mugatuko dira eta 24 ordu aurretik edo, ezinbesteko kasuan, epe laburragoan debekuaren berri emango da informazio-seinaleen bitartez, abian noiz jarriko den adieraziz.

## **II. KAPITULUA JOKABIDE ARAUAK**

### **6. Artikulua Oztopoak bide publikoetan**

- 6.1 – Debekatuta dago bide publikoan edukiontziak, mahai hankabakarrak, kioskoak, saltokiak edo beste edozein oztopo edo objektu jartzea, hain zuzen udal-baimenik gabe, erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko adina babesik gabe, eta baimen horretan finkatutako arauen arabera babestu gabe, seinaleztatu gabe eta argiztatu gabe. Oztoporen bat bide publikoan jartzea ezinbestekoa izango balitz, udal-baimena beharko litzateke, eta bertan finkatuko lirateke bete behar diren baldintzak.
- 6.2 – Ondoko kasuetan, udal-agintariak objektu, instalazio eta oztopoak kendu egingo dituzte; betiere, aldeztu aurretik interesatuei jakinarazita. Nolanahi ere, gastu guztiak interesatuen bizkar geratuko dira:
- 6.2.1 – Baimena ez badute.
- 6.2.2 – Baimenaren epea amaitu bada.



6.2.3 .- Baimenean finkatutako baldintzak bete ez badira.

6.2.4 – Baimena emateko baldintzak desagertu badira.

6.2.5 – Halaber, objektuak, instalazioak eta oztopoak bide publikotik kenduko dira, udal-baimena izanda ere, honako arrazoi hauengatik beharrezkotzat jotzen bada: segurtasun-arrazoiengatik edo higiene- eta osasun-arrazoiengatik beharrezkoa baldin bada, aurretik baimena duten obrak egin behar badira, ikuskizunak burutu behar badira eta baimena duten segizioei bidea eman behar baldin bazaie; beste kasu batzuetan ere egin ahal izango da, baldin eta neurri hori hartzeko behar adina arrazoi badago. Kasu horietan, gastuak Udalaren kontura joango dira.

6.3 – Edukiontzia, mahai hankabakarrak, kioskoak, saltokiak eta gainerako elementuak jartzeko gordetzen diren tokiek aparkatzeko erreserbarako izango dira, galtzadan baldin badaude.

## **7. Artikulua Seinaleak**

7.1 – "ERRENTERIA" hitzarekin batera, herriko sarbideetan jarritako zirkulazio-seinaleek herri barru osoan aginduko dute.

7.1.2 Udaltzaingoen aginduek lehentasuna dute beste guztiekiko.

7.2 – Zirkulatzeko eta/edo aparkatzeko mugapen espezifikoak dituzten gune edo eremuetan kokatuta dauden eta/edo haiei buruzko azalpenak dituzten zirkulazio-seinaleek gune edo eremu osoan aginduko dute.

7.3 – Ez da inolaz ere utziko publizitatea jartzen ez seinaleetan ez seinaleen inguruan. Interes publiko eta orokorreko tokiak adierazten dituzten informazio-seinaleak bakarrik baimenduko dira. Hori guztia, publizitateari buruzko udal-araudi espezifikoak gaiari buruz esaten duena ahaztu gabe.

7.4 – Debekatuta dago erabiltzaileei semaforoak eta seinaleak ikustea eragozten edo mugatzen dieten edo arreta galarazten dieten markesina, kartel, iragarki eta instalazioak jartzea.

7.5 – Udal-agintariak berehala kenduko dituzte baimenduta ez dauden edo indarrean dauden arauak betetzen ez dituzten seinale guztiak. Seinale horiek jarri dituztenek, edo, haien ordezkatzaille moduan, onuradunek ordaindu beharko dituzte gastuak.

7.6 – Udaltzaingoa, segurtasun-arrazoiengatik edo zirkulazioaren arintasuna bermatzeko, aurretik dagoen antolamendua aldi baterako aldatu ahal izango du, pertsonak eta ibilgailuak pilatzen diren tokietan eta larrialdi-kasuetan. Helburu horrekin, egokitzen jotzen diren behin-behineko seinaleak jarri edo kenduko dira, eta behar diren aurrezaintzako neurriak hartuko dira.



## **8. Artikulua Geldialdia**

- 8.1 – Pertsonak hartu edo uzteko edo objektuak jaso edo deskargatzeko ibilgailuak bi minutu baino gutxiagoz gelditzea da geldialdia.
- 8.2 – Geldialdietan, gidariak ezingo du ibilgailua abandonatu eta, eskatzen diotenean edo egoerak eskatzen duen une berean, kendu egin beharko du.
- 8.3 – Espaloirik gabeko kaleetan geldialdia egiten denean, metroko tartea utziko da ibilgailuaren eta fatxada hurbilenaren artean, baldin eta kontrakoa dioen seinalerik ez badago.
- 8.4 – Herri barruko lineetako nahiz herriz kanpoko lineetako autobusek udal-agintariek berariaz erabakitako edo seinaleztatutako geralekuetan soilik hartu edo utzi ahal izango dituzte bidaiariak.
- 8.5 – Udal-agintaritzak eskumena du garraio-zerbitzua duten ikastetxeetako arduradunei ikasleak hartzeko edo uzteko ibilbideak proposatzea eskatzeko. Behin ibilbideak onartzen direnean, agintaritzak ahalmena du ibilbide horren barruan geralekuak finkatzeko eta debekatuta egongo da ikasleak geraleku horietatik kanpo jasotzea.
- 8.6 – Guztiz debekatuta dago honako toki hauetan gelditzea:
- 8.6.1 – Hala seinaleztatuta edo legez debekatuta dagoen tokietan, baldin eta bidaiari gaixoak edo ezinduak jasotzeko edo uzteko ez bada, edo larrialdiko edo segurtasuneko zerbitzua edo ibilgailu baimendua ez bada.
- 8.6.2 – Alkatetzaren aginduz lehentasunekotzat edo zirkulazio-intentsitate handikotzat jo diren bideetan, horretarako seinaleztatutako tokietan izan ezik.
- 8.6.3 – Pertsonen edo ibilgailuen zirkulazioa oztopatzen den tokietan.
- 8.6.4 – Ikuspen murriztua duten bihurguneetan, sestra-aldaketetan eta haien inguruan eta tuneletan.
- 8.6.5 – Bidegurutzeetan eta haien inguruan.
- 8.6.6 – Ibilgailuaren eta galtzadaren beste aldeko ertzaren edo zeharkatzeko debekua adierazten duen luzetarako marraren arteko distantzia hiru metro baino gutxiagokoa edo, edozein kasutan, beste ibilgailuei igarotzen ez uzteko modukoa denean.
- 8.6.7 – Behar den bezala geldituta edo aparkatuta dagoen beste ibilgailu bati bidera sartzea galarazten zaionean.



8.6.8 – Seinaleak baimendutako biraketa galarazten denean.

8.6.9 – Babesgune, irlatxo, erdibitzaile eta zirkulazioa zuzentzeko gainerako elementuen gainean.

8.6.10 – Ibilgailuei, dagokion ibiarekin behar bezala seinaleztatutako higiezinetara sartzea oztopatzen zaienean.

8.6.11 – Pertsonak higiezin batera sartzeko edo bertatik irteteko pasabidearen erabilera normala oztopatzen denean.

8.6.12 – Espaloi, pasealeku, oinezkoentzako gunee eta lorategietan.

8.6.13 – Trenbide-pasagune, txirindularientzako pasagune eta oinezkoentzako pasaguneetan.

8.6.14 – Zirkulaziorako edo erabiltzaile jakin batzuen zerbitzurako soilik gordetako errei edo bide-zatietan.

8.6.15 – Herri barruko garraio publikoak bakarrik erabiltzekoak diren aparkaleku eta geralekuetan.

8.6.16 – Elbarrien ibilgailuetarako gordetako guneeetan.

8.6.17 – Herri barruko garraio publikoak bakarrik erabiltzekoak diren edo bizikletetarako gordeta dauden erreietan.

8.6.18 – Zerbitzu publiko, erakunde ofizial eta larrialdietako zerbitzuen ibilgailuetarako gordetako guneeetan.

8.6.19 – Elbarriak igarotzeko espaloietako beheraguneetan.

8.6.20 – Zubietan eta gaineko pasabideetan edo haien azpian.

8.6.21 – Kantoi, bidegurutze edo adarkatzeetatik 5 metro baino gutxiagora.

8.6.22 – Eragiten dien erabiltzaileei edo maniobrak eginarazten dizkietenei seinaleak ikustea galarazten den tokietan.

8.6.23 – Martxaren kontrako noranzkoan.

8.6.24 – Aurretik aipatu ez diren arren, arriskua sortzen duten edo oinezko, ibilgailu edo animalien zirkulazioa larriki oztopatzen duten tokietan.



## **9. Artikulua Aparkatzea**

- 9.1 – Ibilgailua bi minutu baino gehiagoz ibilgetzea da aparkatzea, baldin eta ibilgetze hori zirkulazioak eragiten ez badu edo legezko aginduren bat betetzeko ez bada.
- 9.2 – Ibilgailuek ilaran, hau da, galtzadarekiko paraleloan gelditu behar dute, baldin eta kontrako seinalerik ez badago, zoladuran markatutako perimetroaren barruan eta espaloitik ahalik eta hurbilen. Gidaria libre utziko da, espaloirik gabeko kaleetan izan ezik. Kasu horietan, 8.3. artikuluan xedatutakoaren arabera jokatu da.
- 9.3 – Beste seinalerik ezean, noranzko bikoitzeko bideetan baimenduta dago ilaran aparkatzea, galtzadaren eskuin aldean eta martxaren noranzkoan. Noranzko bakarreko bideetan ere modu berean aparka daiteke, eta bidearen zabalerak aukera ematen duen kasuetan soilik aparkatu ahal izango da ezkerreko aldean.
- 9.4 – Zirkulazioa ez oztopatzeko moduan eta bidearen gainerako erabiltzaileentzat arriskurik ez sortzeko moduan aparkatuko da ibilgailua. Kasu guztietan, ibilgailua bere kasa mugitzen ez hasteko moduan aparkatu beharko dute gidariek, horretarako behar diren neurri egokiak hartuz.
- 9.5 – Gainerako erabiltzaileei geratzen den espazioa ahalik eta ongien erabiltzen uzteko moduan aparkatuko da.
- 9.6 – Ezin dira bide publikoetan aparkatu ibilgailu motordunetik bereizitako atoiak, ez 3.500 kg baino gehiagoko baimendutako gehieneko pisua duten autobus, traktore, karabana edo bestelako ibilgailuak, ez bideko marrek aparkalekurako ezarritako mugapenak gainditzen dituzten ibilgailuak. Salbuespentzat joko dira Alkatetzaren Dekretu edo Bandoak berariaz baimendutako baldintza, toki eta aldiak.
- 9.7 – Administrazio eskudunak emandako Elbarrientzako txartelen titularrek honako toki hauetan aparka dezakete:
- 9.7.1 Elbarrien ibilgailuetarako gordetako guneeetan.
- 9.7.2 Aparkaldi mugatua (TAO) araututa ez dagoen tokietako zamalanetarako guneeetan.
- 9.7.3 Aparkaldi mugatuko guneeetan (TAO).
- 9.8 – Udal-agintaritzak, salbuespen gisa, aparkaldia muga dezake herriko zenbait auzo edo gunetan, eta ibilgailu mota jakin batzuei bakarrik eman diezaieke aparkatzeko baimena.



9.9 – Bizikletak, horiek aparkatzeko egokitutako guneeetan aparkatuko dira, horretarako egokitutako parriletan behar bezala aseguratuta. Parrillarik ez balego, edo plaza guztiak hartuta baleude beste lekuetan aparka daitezke, beti ere, lorategietan, parterretan edo antzeko lekuetan aparkatzen ez badira, eta oinezkoen joan-etorria eta ibilgailuen zirkulazioa oztopatzen ez badute; erabiltzaileek inola ere ezingo dituzte zuhaitzen enborretara lotu, ezta erabilera arrunta kaltetu edo hautsi daitezkeen hiri altzarietara ere, eta ezingo dira aparkatu 3 metro baino zabalera txikiagoko espaloietan ere.

9.10 – Motorrak oinezkoen guneeetan edo pasealekuetan aparkatu ahal izango dira Udal agintaritzak ezarritako eta behar bezala seinaleztatutako aparkalekuetan.

9.10.1.- Motorrak leku hauetara oinez eramango dira eserlekuan jarri gabe eta motorra itzalita. Motorraren indarra espaloia-aren koska gainditzeko soilik erabil daiteke.

9.10.2. Motorrak espaloian baterian aparkatuko dira horretarako zoruan marraztutako perimetroan.

9.11 – Debekatuta dago ibilgailuak aparkatzea honako kasu eta leku hauetan:

9.11.1 – Hala seinaleztatuta edo legez debekatuta dagoenean.

9.11.2 – Ibilgailuak gelditzea debekatuta dagoenean.

9.11.3 – Bigarren ilaran, baita lehen ilara oztoporen batek edo babes-elementuren batek okupatzen duenean ere.

9.11.4 – Bide publikoko leku berean zazpi egun baino gehiagoz jarraian.

9.11.5 – Martxaren kontrako noranzkoan.

9.11.6 – Zamalanetarako gordetako tokietan; baimena duten ibilgailuak ere ez, baldin eta ez badira horretan ari.

9.11.7 – Zamalanetarako gordetako tokietan, horretarako baimenik ez duten ibilgailuak.

9.11.8 – Ikuskizunetarako edo ekintza publikoetarako eraikinen sarbidearen aurrean ikuskizun edo ekintzak burutzen ari direnean, horrela, larrialdiren bat gertatzen bada, pertsona asko batera irtetea galarazten delako.

9.11.9 – Behar bezala aparkatuta dauden beste ibilgailuen irteera oztopatzen ari direnak.

9.11.10.- Lanak, jendaurreko ekitaldi edo kirol-ekintzak direla-eta, aldi baterako



seinaleztatutako tokietan.

9.11.11 – Elbarriek bakarrik erabiltzeko seinaleztatutako tokietan.

9.11.12 – Espaloietan, pasealekuetan eta oinezkoak igartzeko gainerako tokietan.

9.11.13 – Ondare publikoa hondatu daitekeenean.

9.11.14 – Behar bezala seinaleztatutako ibien aurrean.

9.11.15 – Bigarren ilaran, bai lehen ilaran dagoena ibilgailua bada, edukiontziren bat bada, babesteko elementua bada edo beste edozein motatako elementua bada.

9.11.16 – Seinaleztatutako eta mugatutako garraio publikoaren geralekuan.

9.11.17 – Larrialdi- edo segurtasun-zerbitzuetarako edo seinalean argi eta garbi adierazita dagoen erabiltzaileentzako berariaz gordetako tokietan.

9.11.18 – Galtzadaren erdian.

9.11.19 – Legezko seinaleak debekatzen duen tokietan.

9.11.20 – Zirkulazioaren baimendutako noranzko bakoitzean ibilgailu-ilara bakarra igartzeko aukera ematen duten kaleetan.

9.11.21 – Aurreko ataletan adierazita ez egon arren, arriskua sortzen den edo oinezkoen, ibilgailuen edo animalien zirkulazioa oztopatzen den tokietan.

9.11.22 – Trafikoa, Motoredun Ibilgailuen Zirkulazioa eta Hiri Segurtasunari buruzko Legearen 2. artikulua aipatzen duen bideetan edo lurretan zirkulatzeko nahitaezko baimen administratiboa ez duen edozein ibilgailu herri jabarian aparkatzea.

## **10. Artikulua Oinezkoentzako guneak**

10.1 – Udal-administrazioak ibilgailuen zirkulazioa eta ibilgailu guztiak edo batzuk aparkatzea erabat edo partzialki debekatutako kaleak edo herri barruko bideak dira oinezkoentzako guneak.

10.2 – Ibilgailuak ezin dira ibili oinezkoentzako guneetan finkatutako ordutegiaz kanpo, berariazko baimena izan ezean.

10.3 – Bizikleta, patin, monopatin eta trizikloek horretarako gordetako erreietan ibili



behar dute eta, halakorik ez balego, oinezkoentzako guneeetan (espaloiak, nasak eta pasealekuak barne) ibili ahali zango dira, baldin eta oinezkoen kopuruak aukera ematen badu, oinezkoen lehentasuna errespetatuz, oinezkoentzako arriskurik sortu gabe eta gunerako ezarritako gehieneko abiadura-mugak errespetatuz.

10.4 – Oinezkoentzako guneen sarreran eta irteeran, ibilgailuei gunean sartzea eta gunearen barruan zirkulatzea eragotziko dieten elementu mugikorrek erabili ahal izango ditu udal-agintaritzak.

10.5 – Oinezkoentzako guneeetan, ibilgailuak ibili eta aparkatzeko debekua honelakoa izan daiteke:

10.5.1 – Bere perimetroak mugatuta dituen bide guztiak edo batzuk bakarrik har ditzake.

10.5.2 – Aurrez finkatutako ordutegira muga daiteke edo ez.

10.5.3 – Finkoa izan daiteke edo asteko egun batzuetarako bakarrik.

10.6 – Ezarritako mugapenak direnak direla, ez dute eraginik izango honako ibilgailu hauen zirkulazioan eta aparkaldian:

10.6.1 – Su Itzaltze eta Salbamendu zerbitzuko ibilgailuetan, Poliziaren ibilgailuetan, anbulantzietan eta, oro har, zerbitzu publikoen prestaziorako baimendutako ibilgailuetan.

10.6.2 – Gaixoak edo ezinduak garraiatzen dituztenak.

10.6.3 – Gunean dagoen garaje edo baimendutako aparkalekutik datozenak edo hara doazenak.

10.6.4 – Baimendutako kale eta orduetan zamalanak egiteko baimena duten ibilgailuak.

10.6.5 – Udal-agintaritzaren ebazpen justifikatuak berariaz debeku horretatik kanpo utzi dituenak.

10.7 – Udal-agintaritzak oinezkoentzako guneeetan ezarritako mugapen guztiak edo batzuk betetzetik libre utz ditzake zenbait ibilgailu, baldin eta arrazoi justifikatuak badaude.

10.8 – Oinezkoentzako guneeetan, ibilgailu, bizikleta, patin, monopatin eta trizikloak ahalik eta kontu handienarekin ibiliko dira, eta oinezkoek beti izango dute lehentasuna.





## **11. Artikulua Garraio publikoaren geralekuak**

Udal-administrazioak erabakiko du zer tokitan eta zenbat denboraz egingo diren garraio publikoko zerbitzuen geldialdiak.

## **12. Artikulua Zamalanak**

12.1 – Zamalanak salgaien garraiorako ibilgailuetan egingo dira, inoiz ez jendearentzako autoetan. Gainera, horretarako gordetako guneeetan eta ezarritako eta dagokion seinalean adierazitako ordutegian egingo dira.

12.2 – Zamalanak egiten dituzten garraio-ibilgailuen pisuari eta neurriari dagokienez, indarrean dagoen araudian xedatutakora moldatuko dira. Hala ere, Alkatetzak pisu eta neurri horiek muga ditzake, herriko zenbait bideren ezaugarrien arabera.

12.3 – Zamalanak modu honetan egingo dira:

12.3.1 – Ahal izanez gero, horretarako baldintza egokiak dituzten merkataritza- eta industria-lokalen barruan.

12.3.2 – Haien azalera, helburu edo kokapenagatik zamalanak maiztasunez eta intentsitate bereziarekin egingo dituztela aurreikusten den lokalak irekitzeko baimenak, lokalen jabeek lan horiek egiteko barruan behar adina espazio uztearen arabera emango dira.

12.3.3 – Merkataritza- eta industria-lokalen baldintzek zamalanak barruan egiteko aukerarik ematen ez dutenean, horretarako gordetako ordu eta guneeetan egingo dira lan horiek. Dena den, ordu eta/edo gune baimendutik kanpo zamalanak egiteko baimena eman ahal izango da, auzokoei eta bidearen gainerako erabiltzaileei eragozpenik sortzen ez zaienean.

12.3.4 – Baimendutako ibilgailuak zamalanak egiteko bakarrik aparkatu ahal izango dira lan horretarako gordetako guneeetan, eta ibilgailua kendu egin beharko da lanak amaitzen direnean.

12.3.5 – Une jakin batean eta eraikin jakin baten aurrean egin behar diren zamalanak —esaterako, etxe-aldaketetakoak, berogailuetarako erregaienak, eraikuntzarako materialenak, etab.— artikulu honetan deskribatu bezala egin behar dira; baina aurreko ataletan adierazitako ordutegi eta tokietara egokitu ezin direnean, udaltzaingoa emandako baimena izan beharko dute, zirkulazioaren edo beste gertakizun batzuen ondoriozko eragozpenik ez badago. Baimenean finkatuko dira seinaleen erabilerari, egutegiari, ordutegiari, polizia-zaintzaren premiari eta abarri buruzko baldintzak. Lanak hasi baino gutxienez 48 ordu lehenago eskatu beharko da baimena, eta honako datu



hauek adierazi beharko dira eskaeran: enpresa eskatzailearen helbidea, ibilgailuaren matrikula, pisua, neurriak eta jatorria, zamalanak egiteko toki zehatza eta lanek gutxi gorabehera iraungo duten denbora. Udaltzaingoaren iritziz, emandako baimenarekin bat etorriko ez balira edo zamalanak burutzeko eragozpenak sortuko lituzkeen zerbait gertatuko balitz, zamalanak bertan behera utzi beharko lirateke.

#### 12.4 – Alkatetzak honako gai hauei buruzko xedapenak eman ahal izango ditu:

12.4.1 – Zamalanetarako gordetako gunek seinaleztatzea.

12.4.2 – Zamalanetarako gunek mugatzea.

12.4.3 – Herriko zenbait bidetan ibilgailuak ibili edo aparkatzeko pisu eta neurriak mugatzea.

12.4.4 – Zamalanak egiteko baimendutako ordutegiak finkatzea, herriko bide eta auzoen problematika propioaren arabera.

12.4.5 – Zamalanetarako gunek espezifikoetan egoteko gehienezko denbora finkatzea.

12.4.6 – Zamalanak egiteko zerbitzu berezien kasuan, egunak, orduak eta tokiak adieraztea.

12.4.7 – Honako hauentzako baimen bereziak:

\*12,5 tona edo gehiagoko kamioiak.

\*Salgai arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuak.

\*Beste batzuk.

#### 12.5 – 12 tona baino gehiagoko kamioiek zamalanak egin ahal izango dituzte:

12.5.1 – Merkataritza- eta industria-lokalen barruan, baldin eta lokalek baldintza egokiak badituzte eta aurrez baimendutako ibilbideak erabiltzen badira.

12.5.2 – Aurrekoa bete ezin duten kasu espezifikoetan, baimen berezia beharko dute.

#### 12.6 – Zamalanetako salgai, material edo gauzak ez dira bide publikoan utziko, zuzenean eramango dira higiezinetik ibilgailura edo alderantziz. Salbuespenezko kasuetan berriazko baimena jaso beharko dute eta bide publikoa okupatzeko nahitaezko baimena izan beharko dute eta, edozein kasutan, bide publikoan egiten diren lanak Seinalezatu eta Balizatze 4.



Eranskinean adierazitako baldintzei erreparatuko zaie.

12.7 – Zamalanak behar diren arretazko neurriak hartuta eta bide publikoa garbi uzteko derrigortasunarekin egin beharko dira. Zamalanek irauten duten bitartean, langileek arreta berezia jarri beharko dute talka zuzenik ez eragiteko eta kargaren desplazamenduak edo dardarak sortzen duen zarata saihesteko.

12.8 – Espaloitik hurbilen dagoen aldetik egingo dira zamalanak. Bestalde, lanak arintzeko behar diren bitartekoak eta langileak erabiliko dira eta oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazioa ez oztopatzeko ahalegina egingo da.

Zamalanak egiten diren bitartean, oinezkoentzako edo ibilgailuetarako arriskurik balego, behar den bezala seinaleztatuko da.

12.9 – Zamalanak ahalik eta azkarren bukatzeko, behar adina langilerekin egingo dira. Lan bakoitzerako baimendutako denbora-muga 30 minutukoa da, oro har. Salbuespen gisa, denbora gehiagorako baimena eman daiteke, behar bezala justifikatutako eta lan jakin baterako eskaera egin ondoren.

### **13. Artikulua Gordetako bide eta erreiak**

13.1 – Udal-agintaritzak errei edo bide jakin batzuk gorde ahal izango ditu ibilgailu mota jakin batzuk bakarrik ibiltzeko.

13.2 – Gordetako errei eta bideetatik ibiltzea derrigorrezkoa izango da dagokien ibilgailuetarako.

### **14. Artikulua Abiadura**

14.1 – Herri barrurako baimendutako gehienezko abiadura, aurreratzean ere gainditu ezin dena, 50 km/h da, baldin eta kontrakoa dioen seinalerik ez badago.

14.2 – Bai oinezkoentzako guneetan —ibilgailu jakin batzuk ibiltzea baimenduta dagoenean— bai espaloirik gabeko galtzadetan eta baita oinezkoak ibiltzen diren beste toki batzuetan ere, oinezkoak igarotzean, ibilgailuen gidariak abiadura motelduko dute, behar izanez gero erabat gelditzeraino; era berean, istripuak saihesteko behar diren neurriak hartuko dituzte.

14.3 – Era berean, behar diren neurriak hartuko dira oinezkoek istripu edo eragozpenik izan ez dezaten, honako arrazoi hauengatik: zoladuraren egoera txarragatik, galtzada estutzeagatik, lanengatik, eguraldi baldintza txarregatik, etab.

### **15. Artikulua Zirkulazioa**

#### **HOTS KUTSADURA ETA ATMOSFERA KUTSADURA**



15.1 – Ibilgailuak ezin izango dira ibili, baldin eta Zirkulazioari oro har, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen xede diren bide edo lurretan gaia arautzen duten arau espezifikoek ezarritako mugak gainditzen dituzten hots mailak dituzten asaldu elektromagnetikoak igortzen badituzte. Era berean, ezin izango dituzte gasak edo keak isuri, ezarritako mugak gainditzen dituzten balioetan, ezta baimenik gabeko erreforma garrantzitsua egin bazaie ere. Hori guztia Ibilgailuen Araudi Orokorreko I. Eranskinean xedatutakoaren arabera.

Ibilgailuen gidariek aipatutako akatsak atzemateko probak egiten lagundu beharko dute.

15.1.1 – Bai herri barruko bideetan eta baita herriz kanpokoetan ere, debekatuta dago ibilgailu motordunak eta ziklomotorrak ke-hodi librearekin ibiltzea, hau da, ezta ez isiltzeko derrigorrezko gailurik gabe.

15.1.2 – Era berean, debekatuta dago aipatutako ibilgailuak ibiltzea motorrek isuritako gasak isilgailu eraginkorra zeharkatuta atera ordez, isilgailu ez-oso, desegoki edo hondatua zehar edo hodi burrunbarian zehar ateratzen badira; eta debekatuta dago, halaber, barne-errekuntzako ibilgailu motordunak ibiltzea ere, erre gabeko erregaia kanporatzea saihesteko gailurik ez badute edo beste ibilgailuetako gidariei ikustea eragozten dieten edo oro har kaltegarriak diren keak isurtzen badituzte.

15.2 – Udaltzainek ibilgailua ibilgetu dezakete Zirkulazioari oro har, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen Testu Artikulatuko 70.2. artikulua arabera eta ibilgailu motaren arabera, legez baimendutako gas-, ke- eta zarata-mailak gainditzen baditu.

15.3 – Atal honetako kontrolak, entseguak eta arau-hausteak 5. Eranskinean daude bilduta, eta baita ibilgailuen gehienezko zarata-mugak eta 5. Eranskin horretan aipatutako ziklomotor eta motorrek egindako zarata neurtzeko metodoak eta aparatuek ere.

15.4 – Bizikleta-, ziklomotor- eta motor-gidariek indarrean dauden zirkulazio-arauak eta seinaleak ezagutu behar dituzte, eta zorrotasunez bete behar dituzte bai arau horiek eta baita udaltzainen aginduak ere.

## **BIZIKLETAK ETA BIZIKLETA-ERREIAK**

15.5 – Udal administrazioak, abenduaren 19ko 19/2001 Legearen 70 eta ss artikuluetan jasotzen diren bizikleten zirkulaziorako bideak eraiki, antolatu eta kontrolatu ahal izango ditu. Bide horiek behar bezala seinaleztatuak egongo dira.



15.5.1 – Bide horietan zirkulatzea, gelditzea, eta aparkatzea debekatua izango dute auto, motor eta ziklomotoreek, eta orokorrean, bizikleta edo patinak ez diren beste edozein ibilgailuek.

15.5.2 – Oinezkoek bide horiek gurutzatzeko bertan seinaleztatzen diren oinezkoen pasabideak erabiliko dituzte, eta oinezkoek lehentasuna izango dute, beti ere, oinezkoen pasabidetik pasatzen badira.

15.5.3 – Bizikletek, trafiko eta zirkulazio araudiari buruz indarrean dagoen araudiari lotuta daudenez, zirkulatzeko adierazitako seinaleztatutako bideetatik ibiliko dira. Oinezkoen guneetan bizikletentzako bideak seinaleztatu daitezke.

15.5.4 – Bizikletek indarrean dagoen legediak ezarritako tinbrea eta gailu distiratsuak izango dituzte.

15.5.5 – Gainerako trafikotik eta oinezkoentzat egokitutako guneetatik fisikoki bereiztutako erreiak, bizikletan edo patinetan dabilzan pertsonak soilik erabili ahal izango dituzte. Gomendatutako abiadura ez da 15 Km/h baino gehiago izango, eta inola ere ezingo du 20 Km/h abiadura gainditu.

15.5.6 – Espaloietan eta oinezkoen guneetan markatutako ibilbideetan txirrundulariak seinaleztatutako bandatik ibiliko dira. Gehieneko abiadura 10 Km/h izango da eta uneoro oinezkoek lehentasuna izango dute.

15.5.7 – Jende uholdeak direnean izan ezik, bizikletak oinezkoen guneetatik eta paseo eta espaloi zabaletatik ibili ahal izango dira, baldintza hauen pean:

- Oinezkoen lehentasuna errespetatzen badute
- Gehieneko abiadura 10 Km/h bada eta oinezkoen kopuruari egokitzen badiote
- Oinezkoen seguritateari eragingo dion maniobra zabar edo ausardia handiegikorik egiten ez badute.
- Taldean ez badute zirkulatu

15.5.8 – Galtzadatik doazenean, bizikletak eskuineko erreitik joango dira, eta honen erdigunea hartu ahal izango dute. Era berean, ezkerreko erreitik zirkulatu ahal izango dute, bidearen ezaugarriek eskuinetik joaten uzten ez badute, edo ezkerrean biratu behar dutenean.

15.5.9 – Txirrundulariak hiri bideetan taldean doazenean indibidualki errespetatu beharko dute semaforoaren seinaleek eragiten dieten guztia.



15.5.10 – Bizikletek, bidegorrietan eta oinezko edo motoredun ibilgailuekin partekatutako ibilbide seinaleztatuetan, atoi edo antzekoren bat eraman dezakete, egunez nahiz gauez, beti ere ikuspena galtzen ez bada eta hutsik duen masaren %50 ez badu gainditzen. Atoi hori edonolako zamak eta umeak garraiatzeko izango da, behar bezala egiaztatu eta homologatuta egon beharko du, eta ezartzen duen pisu muga errespetatu beharko da.

15.5.11 – Era berean, gidaria heldua denean, baimena izango du 7 urte bitarteko haur bat eramateko. Aulkia bizikletari erantsiko zaio eta behar bezala egiaztatua eta homologatua izan behar du, eta aulki horretan ezarritako pisu mugak errespetatu egingo dira.

15.5.12 – Txirrindulariek eta ziklomotoeen gidariak debekatua dute beste ibilgailuei eskuinetik aurrea hartzea, aurreratu behar den ibilgailua eta bide ertzaren arteko zabalera 1,5 metro baino gutxiago denean.

15.5.13 – Udalak bizikleten erregistro bat sortzeko ahalmena du, bertan izena ematea borondatezkoa izango da, eta helburua da bizikleten lapurretak ekiditea eta galdutakoan horiek aurkitzen laguntzea. Zerbitzu hau Udaltzaingoaren atal administratiboak kudeatuko du. Erregistro honetan sartzeko bizikletek serie-zenbakia izan behar dute, eta datu hauek jarri behar dira:

- Jabearen izen-abizenak
- Helbidea eta harremanetarako telefonoa
- Nortasun Agiriaren zenbakia
- Bizikletaren serie-zenbakia
- Bizikletaren marka-modeloa eta kolorea

14 urte baino gutxiagokoen bizikletak direnean, izen-ematea gurasoen edo legezko tutoreen izenean egingo da.

Ibilgailua Erregistroan inskribatzean, jabeak borondatezko aseguruua duela jasota utzi dezake.

Organo eskudunaren akordio edo erabakiaren bidez, erregistroaren funtzionamendurako instrukzioak emango dira.

15.6 – Esku-gurdiak espaloietan edo oinezkoentzako gunetan ibili ahal izango dira, baldin eta oinezkoei enbarazu egin gabe ibiltzeko neurriak badituzte. Bestela, galtzadatik ibiliko dira, eskuineko ertzari ahalik eta gehien itsatsita eta bideetako seinaleak errespetatuz.



## **16. Artikulua Zirkulatzeko edo aparkatzeko baimen bereziak**

Pisu edo neurri jakin batzuk gainditzen dituzten ibilgailuei gune edo/eta ordu jakin batzuetan zirkulatzeko edo aparkatzeko muga diezaieke Udaltzaingoak. Ibilgailu horiek ezin izango dira herriko bide publikoetan ibili, baldin eta udal-baimenik ez badute. Baimena bidaia bakarretarako edo aldi jakin baterako eman daiteke.

## **17. Artikulua Eskatu ahalako garraioa**

17.1 – Bederatzi eserleku baino gehiago dituen —gidariarena barne—, eta abiapuntua herrian duen eskatu ahalako garraio-zerbitzuak udal-baimena beharko du.

17.2 – Zerbitzuaren titular diren pertsona fisiko edo juridikoek eskatu beharko dute udal-baimena. Eskabidearekin batera, indarrean dagoen legeriak eskatzen dituen agiriak, proposatzen den ibilbidea eta egin nahi diren geldialdiak aurkeztuko dira.

17.3 – Baimenak bertan ezartzen den aldirako bakarrik balioko du, eta baimen berria eskatu beharko da baldintzen edozein aldaketarako.

17.4 – Eskatu ahalako garraioaren geralekuetan, ezin da egon bidaiariak jaso edo uzteko behar den denbora baino gehiago.

## **18. Artikulua Bide publikoetako erabilera debekatuak**

18.1 – Debekatuta dago bide publikoetan pasadizoko beste jendeari edo praktikatzen ari direnei beraiei arriskua edo eragozpena sor diezaieketen joko edo jolasak egitea.

18.2 – Udal-baimena beharko dute jende-multzoak edo -pilaketak sor ditzaketen eta oinezkoen edo ibilgailuen joan-etorria galaraz dezaketen ekintza edo deialdiek. Ekintza horietarako baimenak bat-batean baliogabetu ditzakete udaltzainek, deitutakoei edo hirugarrenei eragozpen larriak edo arriskuak sortzen dizkietela ikusten bada.

18.3 – Edozein esparru edo zerbitzutara sartzeko jende-ilarak ordenatuta eratu beharko dira, banakako ilaran, higiezinaren fatxadetan zehar, galtzadan sartu gabe eta etxebizitza eta dendetako sarbideak libre utziz. Jende-ilara eragiten duen jardueraren erantzuleek ordena-zerbitzua izan behar dute, ezer gerta ez dadin eta bidearen erabiltzaileei eragozpenik ez sortzeko.

18.4 – Debekatuta dago salgai arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuek herri barruan zirkulatzeko. Herria inguratzen duten bideak erabili behar dituzte.



18.5 – Arau orokor gisa, debekatuta dago 12,5 tona baino gehiagoko baimendutako gehieneko pisua duten ibilgailuak herri barrura sartzea eta, ondorioz, baita herri barruan aparkatzea ere. Aipatutako ibilgailuak Ordenantza honetako 2. Eranskinean adierazita eta aurretik seinaleztatuta dauden bideetan ibili ahal izango dira, baldin eta euren helmugara iristeko nahitaezko pasabidea bada, ordezko ibilbiderik ez badago eta zirkulazio handiko orduetan ibiltzen ez badira.

18.6 – Euren neurriengatik edo pisuagatik Zirkulazioko edo/eta Errepideetako administrazio-erakundeen baimen berezia behar duten ibilgailuek herri barruan zehar zirkulatzeko Udaltzaingoak aurrez finkatutako ordutegia (inoiz ez zirkulazio handiko orduetan), egutegia eta ibilbidea errespetatu beharko dituzte, eta udaltzainek lagunduta joan beharko dute.

18.7 – Salbuespen gisa, ibilgailu horiei herri barruan sartzen utziko zaie, honako baldintza hauetako bat gertatzen delako eta guztiz beharrezkoa denean, baldin eta xede horrekin bakarrik eta SAEGEN Salgai Arriskutsuen Errepideko Garraioari buruzko Erregelamendu Nazionalako urtarrilaren 31ko 74/92 Errege Dekretuak ezartzen duen modu eta baldintzen arabera egiten bada.

18.7.1 – Zamalanak egiteko edo salgaiak banatzeko.

18.7.2 – Behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuan.

18.8.- Motor gabeko patinak edo antzerako tresnak espaloitik, oinezkoak lehentasuna duten guneeetan eta bizikletentzako bideetatik soilik ibiliko dira eta ezingo dute zirkulazio errailak inbaditu. Iragaitan bere martxa oinezkoenera moldatu behar dute sahistuz, beti ere, eragozpenik egitea edo arriskua sortzea. Monopatinak ezingo dira erabili espaloietan, oinezkoen guneeetan ezta bizikletentzako bideetan.

Ibilgailu hauek ez dute lehentasunik izango oinezkoekiko.

18.9.- Espreski debekatzen da bizikleta, moto eta ziklomotoren gidariei, ibilgailu hauek martxan jarri edo zirkulatu gupil bakarra galtzadan jarritz. Era berean debekatzen da ziklomotore, bizikleta, patinei eta monopatinei martxan doazen ibilgailuei heltzea

## **19. Artikulua Lehentasuneko Arretako edo zirkulazio handiko bideak**

19.1 – Lehentasuneko Arretako Bide gisa izendatu ditzake zenbait bide. Ondorioz, debekatuta egongo da bide horietan bigarren ilaran gelditzea, eta, gainera, bertan egindako arau-hausteen ondoriozko zigorren zenbatekoa handitu egingo da.

19.2 – Lehentasuneko Arretako Bideak informazio-seinale bertikalen bitartez





identifikatuko dira.

19.3 – Zirkulazio handiko ordutzat joko dira astelehenetik ostiralera bitarteko lanegunetako 7:00etatik 9:00etara, 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara bitartekoak.

## **II. TITULUA**

### **ARAU-HAUSTEEN, HAIEN MAILEN ETA ZIGOR APLIKAGARRIEN TIPIFIKAZIOA**

#### **I. KAPITULUA**

##### **ARAU-HAUSTEAK ETA HAIEN MAILAK**

#### **20. Artikulua Arau-hausteen kontzeptu orokorra**

Hutsegite administratibo izango dira honako Ordenantza honek arau-hauste gisa tipifikatzen dituen ekintza eta ez-egite guztiek eta bertan xedatutako portaera-arauen kontrako jokabideek, martxoaren 2ko 339/90 Legegintzazko Errege Dekretuaren eta haren lege-xedapenen aplikazio zuzena aparte utzi gabe.

#### **21. Artikulua Tipifikazioa**

Honako Ordenantza honen arau-hausteak dira, zirkulazioari eta bide publikoen erabilerari eta hango segurtasunari eragiten dietelako, Ordenantza honen Eranskin gisa dagoen katalogoan tipifikatutako jokabideak.

#### **II. KAPITULUA**

##### **ZIGOR APLIKAGARRIAK**

#### **22. Artikulua Arau-hausteak eta zigorrak**

Honako Ordenantza honen, 339/1990 Legegintzazko Errege Dekretuaren eta haren lege-xedapenen aurkako arau-hausteak, arin, larri eta oso larri gisa tipifikatuta daude.

22.1 – Era berean, arau-hauste arinak 1, 2 eta 3 mailakoak izango dira euren motaren barruan dagokien maila txikieneko, erdi-mailako eta maila handieneko zigorren arabera:

Minimoa (L1): isunaren kopurua, 50€.

Erdikoa (L2): isunaren kopurua, 80€.

Maximoa (L3): isunaren kopurua, 100€.

8. eranskinean arau-hauste arinak, bere mailak eta horiei dagozkien isunak tipifikatuta daude.



- 22.2 – Arau-hauste larriak 200 euroko isunarekin zigortuko dira. Halaber, 339/1990 Legegintzazko Errege Dekretuan eta hura garatzeko araudietan ezarritako zigorrak aplikatuko dira.
- 22.3 - Arau-hauste oso larriak 500 euroko isunarekin zigortuko dira. Era berean, 339/1990 Legegintzazko Errege Dekretuan eta hura garatzeko araudietan ezarritako zigorrak aplikatuko dira.
- 22.4 - Zigorrak mailakatu egingo dira, eta horien kopuruak handitu ahal izango dira trafikoko legediak ezarritako portzentajeen arabera, gertaeraren larritasuna eta garrantzia, arau-hauslearen aurrekariak eta behin baino gehiagotan egin duen, eta bere buruarentzat eta errepidea erabiltzen duten gainerakoentzat sortutako balizko arriskua eta proportzionaltasun irizpidea kontuan hartuta.
- 22.5 – Gehiegizko abiadura eta edari alkoholdunen eraginpean gidatzeagatik egindako arau-hausteak indarrean dagoen trafikoko araudiak ezarritako kopuruarekin zigortuko dira.

### **III. TITULUA ZUHURTASUNEZKO NEURRIAK**

#### **I. KAPITULUA IBILGAILUAK IBILGETZEA ETA KENTZEA**

##### **23. Artikulua Ibilgailuak ibilgetzea.**

23.1 Bide publikoan ibilgailuak ibilgetzea bidezkoa izango da indarrean dagoen trafikoko araudiak aurreikusitako kasuetan eta baldintzak aplikatuta.

Ibilgailua ibilgetzeko neurria baliorik gabe utziko da, eragin duten arrazoiak desagertu bezain laster, baita indarrean dagoen trafikoko araudiak ezarritako inguruabarrak ematen direnean ere.

23.2 – Ibilgailuak bide publikoan ibilgetzea bidezkoa izango da honako kasu hauetan ere:

23.2.1 – Ibilgailuak TAO guneeetan aparkatzeko gaitzen duen baimenik ez duenean. Baimena faltsutzen, manipulatzeko edo jartzen ez bada, baimenik ez daukala ulertuko da.

23.2.2 – Gaitzen duen baimenean adierazitako denboraren bikoitza gaintzen denean.



23.2.3 – Ibilgailuak TAO gunean egoteko gehienezko denbora gainditzen duenean.

23.2. atalean aipatutako kasuetan, ibilgetzeko neurria baliorik gabe utziko da eragin duten arrazoiak desagertzen direnean.

## **II. KAPITULUA IBILGAILUAK KENTZEA**

### **24. Artikulua Bide publikotik ibilgailuak kentzea**

Udaltzaingoak bide publikotik ibilgailua kentzeko eta Ibilgailuen Udal Biltegira eramateko agindua eman dezake, ibilgailua honako baldintza hauetako batean dagoenean:

24.1 – Oinezkoentzako edo ibilgailuetarako arriskua sortzen duen tokian dagoenean.

24.2 – Oinezkoen edo ibilgailuen zirkulazioa larriki nahasten duenean.

24.3 – Zerbitzu publikoren baten lana oztopatu edo zailtzen duenean.

24.4 – Ondare publikoan galerak edo narriadura eragiten baditu.

24.5 – Abandonatuta badago.

24.6 – Aparkaldi mugatuko gunean gaizki aparkatuta badago.

24.7 – Zirkulaziorako edo erabiltzaile jakin batzuen zerbitzurako gordetako erreian edo bide-zatian badago.

24.8 – Ibilgailuari martxan jarraitzea galarazten dion istripua izan badu.

24.9 – Trafiko, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legeren 2. Artikuluak aipatzen duen bide eta lurretatik zirkulatzeko beharrezkoa den baimen administratiboa ez badu

24.10.- Martxoaren 2ko 339/90 Legegintzazko Errege Dekretuan edo haren legegindapenetan aurreikusitako beste edozein kasutan.

### **25. Artikulua Arriskua sortzen duen tokian aparkatzea**

Aparkatutako ibilgailu bat oinezkoentzako eta gainerako gidarientzako arriskua sortzen ari dela esango da, honako toki hauetako batean dagoenean:

25.1 – Bihurguneetan eta sestra-aldaketetan.



- 25.2 – Kaleen elkarguneetan eta haien inguruan ikuspena murrizten duenean.
- 25.3 – Zirkulazio-seinaleak ikustea galarazten duen tokietan.
- 25.4 – Espaloi-ertzaren erpinetik kanpo geratzen denean, gainerako gidariak ibilbidea aldatzera behartuz edo ibilgailuen biraketa zailduz.
- 25.5 – Ikuskizun publiko eta aisialdirako lokalen larrialdiko irteera oztopatzen duenean, barruan ikuskizuna gauzatzen den bitartean.
- 25.6 – Galtzadaren erdian.
- 25.7 – Erdibitzaileetan, bereizgailuetan, irlatxoetan edo zirkulazioa bideratzeko beste elementu batzuetan.
- 25.8 – Marra zuriz seinaleztatutako zoladurako guneeetan.

## **26. Artikulua Oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazioa trabatzen den tokian aparkatzea**

Ibilgailu bat oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazioari trabak jartzen ari den tokian aparkatuta dagoela esan daiteke honako kasu hauetan:

- 26.1 – Gelditzea debekatutako tokian aparkatuta dagoenean.
- 26.2 – Beste ibilgailuei pasatzen uzten ez dienean.
- 26.3 – Pertsonen higiezin batera sartzea edo higiezinetik irtetea trabatzen dienean.
- 26.4 – Ibilgailuei ibiarekin seinaleztatuta dagoen higiezinera sartzea edo higiezinetik irtetea galarazten dienean.
- 26.5 – Behar bezala aparkatuta dagoen beste ibilgailu bati zirkulazioan sartzea galarazten dionean.
- 26.6 – Bigarren ilaran aparkatuta dagoenean.
- 26.7 – Zirkulazioko erretean aparkatuta dagoenean.
- 26.8 – Oinezkoentzako pasagunean aparkatuta dagoenean.
- 26.9 – Bizikletetarako gordetako erreietan aparkatuta dagoenean.
- 26.10 – Espaloietan, irlatxoetan eta oinezkoentzako gordetako gainerako guneeetan aparkatuta dagoenean.



26.11 – Lehentasuneko bide edo zirkulazio handiko bide izendatutakoetan debekatutako tokietan aparkatuta dagoenean.

## **27. Artikulua Zerbitzu publikoren baten lana galarazi edo zailtzen den tokian aparkatzea.**

Ibilgailu bat zerbitzu publikoren baten lana galaraziz aparkatuta dagoela esan daiteke, honako kasu hauetako batean:

27.1 – Garraio publikoko ibilgailuetarako gordetako geralekuetan dagoenean.

27.2 – Garraio publikoko ibilgailuetarako gordetako erreietan dagoenean.

27.3 – Zabor-bilketarako gordetako gunetan dagoenean.

27.4 – Larrialdiko eta segurtasuneko ibilgailuetarako gordetako espazioetan eta irteeretan dagoenean edo ibilgailu horiei lekuren batera sartzea galarazten dienean.

27.5 – Zabor-bilketako ibilgailuei oztopo egiten dienean.

## **28. Artikulua Ondare publikoan galerak edo narriadura eragiten diren tokietan aparkatzea**

Aparkatutako ibilgailu batek ondare publikoan galerak edo narriadura eragiten dituela esan daiteke, lorategia, hesia, arboladun gunea, parkea eta herria apaintzeko helburua duten beste toki batzuetan dagoenean.

## **29. Artikulua Ibilgailua utzita egotea eta hondakin gisa tratatzea**

29.1 – Alkateak edo horren delegazioz eskumena duen agintariak ibilgailua Ibilgailuak Tratatzekeo Baimendutako Zentro batera eramateko agindu ahal izango du, ondoren suntsitu eta deskontaminatzeko:



- a) Ibilgailua ibilgetu edo Udalak herri jabaritik erretiratu eta biltegian utzi duenetik bi hilabete baino gehiago igaro direnean, epe horretan titularrak inolako alegaziorik egin ez badu.
- b) Hilabete baino gehiago leku berean aparkatuta dagoenean, eta bere kabuz ibiltzea ezinezkoa egiten duten hondamenak dituenen edo matrikula-plakak falta dituenen.
- c) Matxura edo istripua dela medio ibilgailu bat esparru pribatu batean jaso denean, titularrak bi hilabeteko epean bertatik erretiratu ez badu.

Ibilgailua lekualdatzeko agindua eman baino lehen, Udalak titularrari horren berri emango dio, eta ohartarazi egingo dio hilabeteko epean erretiratzen ez badu Ibilgailuak Tratatzeako Baimendutako Zentrorra eramango duela

29.2 –1. atalean, c) paragrafoan aurreikusitako kasuan, esparruaren jabeak edo arduradunak Probintziako Trafikoko Buruzagitzari baimena eskatu beharko dio ibilgailua hondakin gisa tratatzeko. Horretarako, titularrari ibilgailua bere esparrutik ateratzeko eskatu diola egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du.

29.3 –Komenigarria irizten den kasuetan, alkateak edo delegazioa duen agintari eskudunak erabaki ahal izango du ibilgailua suntsitu beharrean zaintza eta trafikoa kontrolatzeko ardura duten udal zerbitzuei adjudikatzea.

### **30. Artikulua Aparkaldi mugatuko guneetatik ibilgailua kentzea**

30.1 – Ordu-tegi mugatua duen aparkalekuan dauden ibilgailuak 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuko 85.1 artikulua aipatzen dituen edozein egoeratan kendu ahal izango dira:

30.1.1 – Udal-agintariek ordu-tegi mugatuko aparkaleku gisa jarri dituzten tokietan aparkatzea baimentzen duen ezaugarria jarri gabe aparkatuta dagoenean.

30.1.2 – Aparkatzeko ordaintzen den denboraren bikoitza gainditzen denean.

### **31. Artikulua Beste erabiltzaile batzuentzat gordetako gunean dauden ibilgailuak kentzea**

Era berean, udal-agintariek erabiltzaile jakin batzuentzat edo jarduera jakin batzuetarako aldi baterako edo behin betiko gordeta dituzten guneak okupatzen dituzten ibilgailuak ere bide publikotik kendu ahal izango dira. Honako kasu hauetan gertatuko da hori:

31.1 – Baimendu gabeko ibilgailuak zamalanetarako gordetako guneetan aparkatuta



daudenean.

31.2 – Baimendutako ibilgailuak zamalanetarako guneeetan aparkatuta daudenean, zamalanak egiten ari ez direla.

31.3 – Elbarrientzako pasaguneetan aparkatuta daudenean.

31.4 – Elbarrien ibilgailuak aparkatzeko guneeetan aparkatuta daudenean.

31.5 – Erakunde Ofizialen ibilgailuetarako gordetako guneeetan aparkatzen denean.

### **32. Artikulua Ibilgailuak kentzeko beste hainbat arrazoi**

Ez arau-hausterik ez ordaintzeko betebeharririk ez egon arren, bide publikotik ibilgailuak ken daitezke honako kasu hauetan eta 5.4. artikuluan xedatutakoa aparte utzi gabe; eta ahalegina egingo da ibilgailuaren jabeari jakinarazteko zer egoeratan kendu den ibilgailua eta, hala badagokio, zer tokitan dagoen:

32.1 – Baimendutako egintza publiko baterako gordetako toki batean aparkatuta dagoenean.

32.2 – Bide publikoa garbitzeko, konpontzeko, mantentzeko edo seinalezatzeko beharrezkoa denean.

32.3 – Behar bezala justifikatutako larrialdia denean.

### **33. Artikulua Ibilgailua kentzeko agindua bertan behera uztea**

33.1 – Ibilgailua kentzea bertan behera utziko da gidaria azaltzen bada eta ibilgailua zegoen egoera irregularra amaitzeko behar diren neurriak hartzen baditu. Tasei dagokienez, Zerbitzu Prestazioagatiko Tasak Arautzeko Udal Ordenantzan xedatutakoa aplikatuko da.

33.2 – Lapurreta, istripu, sorospena matxuragatik eta jabearen borondatearen aurka egindako eta behar bezala egiaztatutako eta justifikatutako beste erabilera batzuen kasuetan izan ezik, ibilgailua herri jabearen kentzearen, garraiatzearen eta gordailuan uztearen ondorioz sortutako gastuak titularraren, maizterren edo ohiko gidariaren kontura izango dira, kasuaren arabera. Hala bada, dagokionak gastuak ordainduko ditu edo ordainduko dituela bermatuko du, ibilgailua aurretiaz itzultzearen baldintza gisa, dagokion errekurso-eskubidearen eta gastuak, ibilgailua kentzea eragin duen istripuaren, uztearen edo arau-haustearen erantzulearen bizkar jartzeko aukeraren kalterik gabe. Gastuen zenbatekoa Udaleko Zerga Ordenantzan finkatuko da.

Udalak 24 orduko epean ibilgailua kendu eta gordailuan utzi duela jakinarazi behar dio titularrari. Komunikazioa Trafikoko Zuzendaritzak hala eskatzen duten gidarien



esku jarriko duen Helbide Elektronikoaren (DEV) bitartez egingo da, titularrak baldin badu.

33.3 – Ibilgailua eramateko zerbitzua hasi ondoren ibilgailuaren jabea edo gidaria azalduko balitz ibilgailuaren kargu egiteko, arraste-tasaren % 50 ordaindu beharko du ibilgailua hartu ahal izateko. "Zerbitzua hasitzat emango da" poliziak kasu jakin horretarako eskatutako garabia esandako tokian aurkeztu denean eta gaizki aparkatutako ibilgailua krokatzeko lanak hasi direnean.

33.4 – Autoaren erantzulea zerbitzua hasi baino lehen azalduko balitz eta ibilgailuaren egoera irregularra amaitzeko behar diren neurriak hartuko balitu, ez litzateke tasarik kobratuko eta ez litzateke beste neurri osagarriarik aplikatuko.

33.5 – Neurri horiek hartu baino lehen, ahal izanez gero, jabeari jakinaraziko zaio behar adinako aurrerapenarekin eta, ezinezkoa bada, ibilgailua leku egoki hurbilenera eramango da eta ahal den guztia egingo da jabeari aldaketaren berri emateko. Neurri horiek ez diote gasturik eragingo jabeari, baldin eta frogatzen ez bada jabeari ibilgailua kentzeko jakinarazpena nahikoa denborarekin eman zaiola. Kasu horretan, ordenantza honetako 29. artikuluan xedatutakoaren arabera jokatu da.

### **III. KAPITULUA IBILGAILUEK EGINDAKO ZARATA**

#### **34. Artikulua Ibilgailuek egindako zarata**

34.1 – Zirkulazioaren zarata erregulatzea.

34.1.1 – Ibilgailu motordun guztiek funtzionatzeko baldintza onetan egon behar dute, bai ibiltzen ari direnean eta bai geldituta daudenean; hartara, igortzen duten zarata-mailak ez ditu gaindituko ordenantza honetako 5. Eranskinen finkatutako eta indarrean dagoen araudi aplikagarriak edo ondorengo aldaketek finkatutako mugak.

Egiten diren kanpoko saialdietan baimendutako gehieneko mugak 5. Eranskinen jasotakoak izango dira.

34.2 - Debekuak.

34.2.1 – Debekatuta dago ibilgailu motordunak eta ziklomotorrak ke-hodi librearekin, eztandak isilarazteko nahitaezko gailurik gabe edo isilgailu ez-oso, desegoki edo hondatuekin ibiltzea.

34.2.2 – Debekatuta dago ibilgailuen martxa behartu eta beharrezkoak ez diren





azelerazioengatiko zarata gogaikarriak sortzea.

34.2.3 – Debekatuta dago herri barruan klaxonak edo beste edozein hots-seinale erabiltzea, inor harrapatzeko edo talka egiteko berehalako arriskuaren kasuan edo larrialdiko zerbitzua egiten ari diren lehentasuneko ibilgailu publiko edo pribatuen kasuan izan ezik.

Edozein kasutan, lehentasuneko ibilgailuen gidariek tarteka erabiliko dute argi-seinalea, hots-seinale bereziak ez egiteak gainerako pertsonentzat inolako arriskurik sortzen ez duenean.

34.2.4 Komenigarritzat jotzen den kasuetan eta herritarren ingurumen-kalitatea zaintzeko, ibilgailuen zirkulazioak, honako Ordenantza honetan ezarritakoaren arabera, zarata maila handiak sortzen dituen guneko edo bideak babestu ahal izango ditu Udalak. Horretarako, zirkulazioaren ordutegiak eta abiadura erregulatuko ditu, edo zirkulazioa ibilgailu mota jakin batzuetara mugatuko du.

#### **IV. KAPITULUA**

### **IBILGAILUAK IBILGETU, KENDU ETA BILTEGIAN EDUKITZEKO ZERBITZU PUBLIKOAGATIKO TASAK**

#### **35. Artikulua Tasen autolikidazio-erregimena**

Bide publikoko ibilgailuak ibilgetu eta kentzeko eta udal-biltegian gordailuan edukitzeko zerbitzuak sortzen dituen tasak Zerbitzu Publikoen Prestazioagatiko Tasen Udal Zerga Ordenantza Erregulatzailerak dagokion ekitaldirako finkatzen dituenak izango dira.

Ibilgetzea kentzea eta ibilgailua itzultzea jabeari edo pertsona baimenduari bakarrik eta dagozkion tasak ordaindu ondoren egin ahal izango zaio, honako Ordenantza honetako 33. artikuluan aurreikusitako kasuetan izan ezik.

Ibilgailuak bide publikotik kendu (bai honako Ordenantza honetan, martxoaren 2ko 339/90 Legegintzazko Errege Dekretuan edo haren lege-xedapenetan aurreikusitako arrazoiengatik eta bai Agintari Judizialak hala agintzen duelako edo beste Administrazio batek eskatzen duelako) eta udal-biltegian gordailuan geratzen direnean, indarrean dagoen ordenantzak ekitaldi bakoitzerako ezartzen dituen tasak eragingo ditu aipatutako gordailu-zerbitzuak.

Tasa horiei zerbitzuaren prestazioa amaitzen denean gauzatu beharreko autolikidazio-erregimena aplikatuko zaie, eta zerbitzuaren prestazioa eragin eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Ogasuneko Foru Arau Erregulatzaileran xedatutakoaren arabera beraien subjektu pasibotzat jotzen diren pertsona, erakunde edo instituzioek ordaindu beharko dituzte.



## **V. TITULUA ZIGOR PROZEDURA**

### **KAPITULU BAKARRA**

#### **36. Artikulua Organo instrukzio-egile eta zigortzaile eskudunak**

Zirkulazioko oro har, ibilgailuen zirkulazioko eta bide-segurtasuneko arau-hausteengatik irekitako espedienteen instrukzioa Udaltzainburuak edo honek eskuordetza emandako pertsonak egingo du eta, behin amaitzen denean, alkateak edo ordezeko zinegotziak xedatuko du dagokion ebazpena.

#### **37. Artikulua Espedienteak Administrazio eskudunari igortzea.**

Herri barruko bidean egiten diren arau-haustea —zigorra alkateari ez dagokionean—, udaltzainek eta Aparkaldia Kontrolatzeko Zerbitzuko Zaintzaileek salatuko dituzte, eta instrukzio-egileak Administrazio eskudunari bidaliko dizkio.

#### **38. Artikulua Puntuak kentzea eragiten duten arau-haustea**

Diruzko zigorraz gain gidabaimenean edo gidatzeko lizentzian dituen puntuak kentzea eragiten duten zigor-espedienteak, espedientearen arrazoia udal eskumeneko zigorra duen jokabidea bada, udal organo eskudunek bideratu eta ebatziko dituzte, indarrean dagoen trafikoko araudiak xedatutakoari jarraiki.

#### **39. Artikulua Zigor-espedienteak izapidetzea**

Ordenantza honetan xedatutakoaren arau-hausteengatik irekitako zigor-espedienteak martxoaren 2ko 339/90 Legegintzazko Errege Dekretuan eta haren lege-xedapenetan araututako prozeduraren arabera izapidetuko dira.

### **LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA**

Ordenantza honetan aurreikusi ez den oro, trafiko, zirkulazio eta bide segurtasunaren inguruan indarrean dagoen araudiak erregulatuko du.

### **BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA**

Ordenantza honetan trafikoko araudiari buruz egin diren erreferentziak trafiko, zirkulazio eta bide segurtasunaren alorrean indarrean dagoen araudiari buruzkoak direla ulertu behar da, barne sartuta lege maila duten arauak eta horiek garatzeko egindako erregelamenduak.

### **XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA**

Lau gurpleko ibilgailuak gordetzeko xedea eta hiru ibilgailu edo gehiago gordetzeko ahalmena duten eta honako Ordenantza hau indarrean sartzen denean pasabidea



gordetzeko baimena ez duten garaje-jabeek aipatutako pasabidea gordetzeko baimena izan beharko dute SEI HILABETEKO epean, honako Ordenantza hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik kontatzen hasita.

Adierazitako epean nahitaezko baimena lortu ez badute, administrazio-espeditentea ireki eta, ondorioz, erreserba hori izatearen neurri zuzentzailea ezarriko zaie. Ohartarazpena egin ondoren, jabeak edo jabeek neurri zuzentzaile hori hartzeari uko egiten badiote, ordezkoko gisa gauzatu ahal izango da, eta sortzen diren gastuak jabearen kontura izango dira, premiamendu-bidez eskatu ahal izango direnak. Hori guztia jarduera prebentzio gisa geldiarazteko ahalmenaz landa egin ahal izango da.

### **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

Indargabetuta geratuko dira honako honen aurka doazen maila bereko edo baxuagoko araudi guztiak. Honako hauek zehazki:

- Errenteria Herriko Zirkulazio eta Aparkamenduaren Ordenantza. TAO. GAO 209. zk., 1992-06-12koa.
- Herri Barru Historikoa Oinezkoentzat jartzeari buruzko Udal Ordenantza. GAO 200. zk., 1992-10-21ekoa.
- Zirkulazioko oro har, ibilgailu motordunen zirkulazioko eta bide-segurtasuneko arau-hausteengatik zigorrak arautzen dituen Udal Ordenantzaren sartutako arau-hauste eta zigorren zerrenda kodifikatua. GAO 041. zk., 1992-03-02koa.
- Bide publikoetako ibilgailuak ibilgetzea eta kentzea arautzen duen zirkulazio-ordenantza. GAO 245. zk., 1991-12-26koa.
- Pasabidea eta espazioa gordetzea arautzen duen behin betiko ordenantzaren onarpena. GAO 170. zk., 2000-09-07koa.
- Zirkulazioko Buruzagitzak ateratako matrikula-plakak ez daramatzaten trakzio-ibilgailuei buruzko udal-ordenantza. GAO 245. zk., 1991-12-26koa.
- Pertsona elbarriek bakarrik erabiltzeko aparkalekuaren emakida arautzen duen araudia. GAO 34. zk., 2000-02-16koa.



## **AZKEN XEDAPENA**

39 artikulua, xedapen iragankor bakarra, xedapen indargabetzaile bat, azken xedapen bat eta 8 Eranskin dituen honako Ordenantza hau behin betiko onartu eta haren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean, indarrean sartuko da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 65.2 artikuluan aurreikusitako epea amaitzen denean.



## **1. ERANSKINA**

### **OINEZKOENTZAKO GUNEAK**

#### **1. Artikulua Xedea eta aplikazio-eremua**

Eremu jakin bateko biztanleriaren ezaugarriak aintzat hartuta, Udal-administrazioak zirkulatzeko eta ibilgailuak aparkatzeko —edo bateko nahiz besteko— debeku partziala edo erabatekoa ezar dezake. Horren bidez, aipaturiko eremuaren bide publiko guztiak edo batzuk oinezkoentzako pasabideak izango dira.

Zirkulatzeko eta aparkatzeko ezarritako mugak ez zaizkie aplikatuko udal-, polizia-, suhiltzaile- eta anbulantzia-zerbitzuetarako ibilgailuei, zerbitzuan dauden bitartean. Halaber, honako Ordenantza honi dagokion eremuan dauden garajeetako titularrei ere ez zaie araudia aplikatuko; betiere, jarduera hori burutzeko Udalak ematen duen eta nahitaezkoa den baimena badute.

Gune horiek Oinezkoentzako Guneak izango dira, eta kasu bakoitzaren arabera, Bando ala Dekretu bidez zehaztuko eta arautuko dira. Oinezkoentzako eta bizitegiguneetako sarbide eta irteeretan egokiak diren seinaleak jarriko dira. Halaber, sarbidea eta ibilgailuen zirkulazioa oztopatzeko, bestelako elementu mugikorak ere jarri ahal izango dira, aipaturiko kale eta guneetan.

Honako Eranskin honen gehigarrian, udalerrian aurreikusitako oinezkoentzako guneak ikus daitezke modu grafikoan.

#### **2. Artikulua Ibilgailuen zirkulazioa**

Gune horietan, lanegunetan eta goizeko 7:00etatik eguerdiko 12:00ak arte baimenduko da ibilgailuen zirkulazioa.

Ibilgailuen abiadura oinezkoen abiadurara egokituko da. Era berean, oinezkoek lehenetsuna izango dute, une oro.

Salbuespen gisa, eta alde zuzenetik lortutako baimen batekin, ezarritako ordutegitik kanpo ere zirkulatu ahal izango da, interes orokorreko zerbitzuak betetzeko. Hau da, ezinduen lekualdatzeak egin, eta bertan kokaturiko merkataritzako eta tailerretako ibilgailuak erabili ahal izango dira ordutegitik kanpo. Nolanahi ere, horien beharra ongi justifikatu beharko da.

Aipaturiko ibilgailuak ezin izango dira inoiz oinezkoentzako guneetan aparkatu, eta sarrera debekatuta izango dute arratsaldeko 19:00etatik aurrera, ekaina eta iraila bitartean izan ezik —biak barne—. Hilabete horietan, ordutegia arratsaldeko 20:00ak arte luzatuko da.

Oinezkoentzako guneetan zirkulatzeko eta aparkatzeko debekuari dagokionez:



1. Guneko perimetroaren barruan dauden bide guztietan edo batzuetan ezar daiteke.
2. Ordutegiaren arabera izan daiteke ala ez.
3. Egunero ezar daiteke edo egun jakin batzuetan baino ez.
4. Ibilgailuen ezaugarriak eta betetzen dituzten zereginak aintzat hartuta, debekuak ibilgailu batzuei edo besteei eragin diezaieke.

### **3. Artikulua Debekuak**

BAIMENDUTAKO GEHIENEZKO PISUA (BGP) 3.500 kg-tik gorakoa duten ibilgailuek, eta, 2 m zabal, 5 m luze eta 4 m garaitik gorako neurriak dituztenek erabat debekatuta dute oinezkoentzako guneeetan zirkulatzea.

Nolanahi ere, egoera bereziak gertatzen direnean, kasu bakoitzaren eta 4. Eranskinean ezarritakoaren arabera, Alkatezak, Udaltzaingoak edo Errenteriako Udaleko Zirkulazio Sailak gunehorietan zirkulatzeko baimen bereziak eman ahal izango dituzte, aurreko paragrafoan zehazturiko pisuak eta neurriak dituzten ibilgailuentzat.

### **4. Artikulua Aparkatzea**

Bidaiariak jaisteko eta igotzeko egiten diren geldialdiak eta zamalanak egiten direnean izan ezik, 1. artikuluan zehazturiko Gunean aparkatzea debekatuta dago.

Zamalanak eguerdiko 12:00ak baino lehen amaituko dira.

Lan horietan egiten diren geldialdiak ezin izango dira egin biratzeko guneeetatik 5 m baino gutxiagoko tartean, ezta geldirik dagoen beste ibilgailu batetik 3 m baino gutxiagoko tartean ere.

Oinezkoentzako itxitura ezarritako kaleen sarbideetan ezin izango da aparkatu; horrela, baimendutako ibilgailuak eta zerbitzu publikoaz arduratzen direnak errazago sartu ahal izango dira.

### **5. Artikulua Jaiegunetan aparkatzea**

Jaiegunetan, Zirkulatzeko eta Aparkatzeko debeku orokorra ezarriko da, 0:00etatik 24:00etara.

Industrien nortasuna aintzat hartuta, eta nahitaezkozat jotzen bada, zirkulatzeko baimena emango zaie enpresei. Horren bidez, 1.000 kg-tik gorako zama-ahalmenik ez duen furgoneta batekin ibiltzeko aukera izango dute, igandeetan eta jaiegunetan eguerdiko 12:00ak arte.

### **6. Artikulua Kasu bereziak**

Udaletxean edo Jasokundeko Andre Mariaren elizan ezkontza-ospakizunak egiten direnean, ezkontideak daramatzan ibilgailuak sartzeko eta aparkatzeko baimena izango du, alde aurretik hala eskatuta.



Era berean, gorpu aurreko meza egiten den hileta-elizkizunetan hileta-ibilgailuen sarrera baimenduko da.

## **7. Artikulua Arau-haustek eta zigorrak**

Hona hemen, Eranskin honi dagozkion arau-haustek:

7.1 .Oinezkoentzako gunetik ordutegitik kanpo zirkulatzea baimenik ez duen ibilgailu batekin.

7.2 .Ibilgailua ordutegitik kanpo aparkatzea oinezkoentzako gunean.

7.3 .Ibilgailua aparkatzea edo geratzea oinezkoentzako gunean, aparkatzeko ezarritako mugak errespetatu gabe.

7.4 . Oinezkoentzako gunetik zirkulatzea, oinezkoek duten lehentasuna errespetatu gabe.

7.5 .Oinezkoentzako gunean zirkulatzea baimendutako pisua eta neurriak gainditzen dituen ibilgailu batekin, horretarako nahitaezkoa den baimena izan gabe.

Ordenantza honen 2. Eranskinean zehazturiko plaza eta kaleetan baimenik gabe aparkatuta dauden ibilgailuak horrelakoez arduratzen den zerbitzuak eramango ditu. Halaber, Zirkulazio Ordenantzaren arabera arau-hauste horri dagokion zigorra jarriko zaie.

Era berean, aipaturiko Ordenantzan jasotzen denaren arabera zigortuko dira, bai aurreko artikuluetan aurreikusi edo baimendu ez diren kasuak bai Ordenantza hauetan aipaturikoaren gaineko arau-haustek.



## **2. ERANSKINA**

### **ERRENTERIAKO UDALERRIKO BIDEETAN ZIRKULATZEKO ETA APARKATZEKO MUGA ESPEZIFIKOEI BURUZKO ARAUAK**

Honako arau honen xedea udal-eskumenaren barruko bideak erabiltzeko dauden mugen gaineko araudia egitea da. Batez ere, bertan ibiltzen diren ibilgailuen dimentsioak, pisua eta bestelako ezaugarriak arautuko dira. Halaber, aparkatzeko dauden dimentsio mugak ere arautuko dira.

Horri begira, eta Errenteriako udalerriarekin batera hainbat titulartasun eta jurisdikzio daudela aintzat hartuta; jarraian, horrelako bideak aipatzen dira, araudiari dagokionez Errenteriako bideekin zerikusia dutelako. Bestalde, zehaztasunik gabeko zerrenda da.

#### **1. Eusko Jaurlaritzaren bideak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumena:**

A-8 autobidea

#### **2. Gipuzkoako Foru Aldundiaren bideak:**

Eskualde-errepidea: GI-2132 (Astigarragako Bentak)

Eskualde-errepidea: GI-2134 (Lartzabal)

Eskualde-errepidea: GI-2638 (Lezo)

Eskualde-errepidea: GI-3671 (Astigarragako bentak, Masti Loidi/Txirrita Maleo industrialdea)

Eskualde-errepidea: GI-3672 (Zamalbide-Agustinak)

#### **3. Errenteriako Udalaren bideak:**

3.1. Aipaturiko hainbat errepideren zatiak herri barrutik pasatzen dira. Zati horien titulartasuna transferitzen ez den bitartean, titularra den erakundearen esku egongo da haien seinaleztatzea eta ustiapena. Halere, horrek ez die kalterik egingo, zerbitzua hobetu nahian, hainbat administrazioen artean lorturiko akordioei. Ondorioz, zirkulazio mugak titular bakoitzak bere jurisdikzioan aplikatzen dituen arau espezifikoien eta irizpideen arabera izango dira. Era berean, jarritako seinaleekin bat datozen mugak zehaztuko dira.





3.2. Udalerrian indarrean dauden muga orokorrak bat datoz Bide Segurtasunari buruzko Legean, Zirkulazioko Araudian, edo indarrean dagoen araudian ezarritakoekin. Honako hauek dira:

3.2.1. Abiadura: 50 kilometro orduko. Hori gogoraraziko duten seinaleak joan-etorri handiko eta gehiegizko abiaduran ibiltzeko joera atzematen den bideetan jarriko dira. Aurrekoa aparte utzi gabe, eta bide-segurtasun arrazoiak direla-eta, zirkulatzeko arreta berezia eskatzen duten bideetan mugak areagotu egingo dira (eskolak gertu dituzten kaleetan, bide estuetan, egoitzaguneetan, etab). Oinezkoentzako kaleetan edo zirkulazioa murriztua dutenetan, abiadura 10 kilometro ordura murriztuko da.

3.2.2. Neurriak: Ibilgailuen gehienezko neurriak honako hauek izango dira:

3.2.2.1.1. 2,50 metro zabal.

3.2.2.1.2. 4,00 metro garai.

3.2.2.1.3. 16,50 metro luze.

Bide Segurtasunari buruzko Legeak edo indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen salbuespenekin.

Aipaturiko neurriak gainditzen dituzten ibilgailuek nortasun berezia izango dute. Era berean, Errenterian zirkulatu ahal izateko, 2. Eranskinean arautzen diren baimen bereziak eskuratu beharko dituzte.

Bestalde, aipaturiko zabalera duten ibilgailuek ezin izango dute parte zaharreko hainbat kale estutan zirkulatu. Horrelako salbuespenetan, seinaleak jarriko dira kaleak onartzen duen gehienezko zabalera adieraziz.

Azpiko pasaguneetako eta zubietako galibo librea ongi seinaleztatuta egongo da, informazioa eta muga argi ikus daitezzen.

3.2.3. Pisua: Herri barruko bideetan onarturiko gehienezko tona kopurua 40 tona izango da.

Halere, Eranskin honetan zehazten diren herriguneetan baimendutako gehieneko pisua 12,5 tonatik gorakoa duten ibilgailuekin zirkulatu ahal izateko, baimen berezia eskuratu beharko da, 4. Eranskinean arautzen den moduan.

Mugak nolanhikoak direla ere, zoladuraren erresistentzia dela-eta, Udal Zirkulazio eta Garraio Sailaren iritziz beste muga batzuk finkatu behar badira, finkaturiko muga berriak argi adieraziko dira dagokien bideetan.



Oinezkoentzako kale eta guneeetan, baimen berezia izan ezean, baimendutako gehienezko pisua 3,5 tonatik gorakoa duten ibilgailuek ezin izango dute zirkulatu.

3.3. Aurreko ataletan adierazitako muga orokorrez gainera, araudi honetan zirkulatzeko eta aparkatzeko honako muga espezifiko hauek arautzen dira:

3.3.1. Oinezkoentzako kale eta guneeetako zirkulazio-mugak.

3.3.2. 12,5 tonatik gorako BGPa duten ibilgailuentzako mugak.

3.3.3. Merkantzia arriskutsuen garraiorako mugak.

3.3.4. Ibilgailuen neurriei eta parte zaharrear aparkatzeari dagozkien mugak.

3.3.5. Oinezkoentzako kaleetan zirkulatzeko mugak.

Hiri Ordenamendurako Plan Orokorreko arauetan, lehentasunez oinezkoek erabiltzen dituzten hainbat kale "oinezkoentzako kale" edo "zirkulazio murrizteko kale" gisa kalifikatzen dira. Bide Segurtasunari buruzko Legean eta Zirkulazioko Araudi Orokorrean kale horiei buruz jasotako erreferentziaz gain, ez da haien ezaugarrien definizio zehatzik egiten, eta mugak arautu gabe daude. Era berean, haien erabilera, ustiapena, seinaleztatzea, eta abar zehaztu gabe ageri dira.

Beraz, bidezkoa da kale horien eta haien ezaugarrien normalizazioa egitea, eta baita baimendutako erabilerak arautzea eta seinaleztatzea ere. Helburu hori lortzearren, honako hau ezartzen da:

3.3.5.1. Oinezkoentzako kalea:

Oinezkoentzako lehentasunezko bide publikoa. Kalearen diseinuan espaloia eta galtzada ez dira bereizten, eta oinezkoek azalera guztia erabili ahal izango dute. Halaber, askotariko hiri-altzariak jarri ahal izango dira (zuhaitzak, eserlekuak, kioskoak, eta abar).

Ibilgailuen zirkulazio murriztua baimenduko da, eta horren berri ematen duten seinaleak jarriko dira kaleen sarbideetan. Oinezkoek lehentasuna izango dute beti, baina ezin izango dute inolako arrazoirik gabe ibilgailuen zirkulazioa oztopatu. Bestalde, gehienezko abiadura 10 kilometro ordukoa izango da, eta aparkatzea debekatuta egongo da, onarturiko ordutegian ibiliko diren baimendutako ibilgailuentzat eta baimendutako zamalanak egiteko izan ezik.



Kaleak duen zirkulazio-noranzkoa aintzat hartuta, “Zirkulazioa debekatuta” idatzita duten seinaleak jarriko dira kalearen sarbidean; halaber, baimendutako salbuespenen berri emango da, testu osagarri baten bidez. Honako salbuespen hauek egon daitezke:

3.3.5.1.1. Garajeetarako sarbideak (bakar-bakarrik garajeetan sartzeko eta ibirako erreserba-baimena dutenentzat).

3.3.5.1.2. Legeztatutako sarbideak (merkataritzaguneetara edo ibirako erreserba-baimena duten bestelakoetara).

3.3.5.1.3. Onibarretarako sarbideak (sartzeko eta etxe aurrean aparkatzeko aukera ematen zaie bertakoei).

3.3.5.1.4. Zamalanak (baimendutako ordutegia zehaztuko da; normalean 8:00etatik 11:00etara).

3.3.5.1.5. Baimendutako ibilgailuak (baimen idatzia edo bereizgarria beharko da).

Zirkulatzeko baimenak Udalaren onarpenarekin lortuko dira, Zirkulazioko Ordenantza Orokorreko 4. Eranskinean arautzen den moduan.

Halaber, sartzen diren ibilgailuentzat baimendutako gehienezko pisuari buruzko seinaleak jarri beharko dira. Gehienez ere 3,5 tonatakoa izango da. Salbuespenek 4. Eranskinean araturiko baimen berezia eraman beharko dute.

Baimendutako gehienezko abiadura eta aparkatzeko debekua ez dira nahitaez seinaleztatuko.

Oinezkoentzako kalearen amaieran, zirkulazio-noranzkoaren arabera, “zirkulazio debekatua” seinalea jarriko da, bestelako osagarririk gabe.

Oinezkoentzako kaleek sartzeko eta ateratzeko pasabideak izan beharko dituzte.

3.3.5.2. Zirkulazio murrizteko kalea:

Udal-aginteak zirkulazio kopurua murriztea erabaki duen bide publikoari deritzo. Erabilera mota, beharra eta ordutegia aintzat hartuta, gutxiengo batek bakarrik erabil dezake. Oinezkoentzako ez dago inolako murrizketarik; beraz, nagusiki oinezkoek erabiltzen duten bidea dela esan daiteke. Diseinua konbentzionala da eta ongi bereizten dira galtzada eta espaloiak, maila berean edo garaiagoan jarriak egon arren. Kateak, harrizko bolak, mugarriak eta bestelakoak erabiltzen dira espaloiak mugatzeko. Galtzadan ibilgailuek dute lehentasuna, eta espaloietan, berriz, oinezkoek.



Abiadura-muga jakin bat finkatu eta seinalezta daitekeen arren, bi muga baino ez daude: bata, herri barruari dagokion muga orokorra; eta bestea, zirkulazio-baldintzara egokitzeko gidariek bete beharrekoa. Era berean, herri barrurako ezarritako pisu-mugaz gain, ez dago bestelako pisu-muga zehatzik (jarri daitekeen arren). Baimendutako ibilgailuak espaloiairen ondoan edo mugan aparka daitezke, gutxieneko tartea baldin badago; bestela, debekatuaren seinalea jarriko da, edozein kaletan egin ohi den bezala.

Pisuaren eta aparkatzearen gainean esandakoa izan ezik, gainerako seinaleak oinezkoentzako kaleetan jartzen diren bezalakoak izango dira, salbuespen eta guzti.

### 3.3.5.3. Oinezkoentzako gunea:

Oinezkoentzako kale multzoak, edo oinezkoentzako eta ibilgailuentzako zirkulazio murrizteko kaleen nahasketa bidez osaturiko sareak dira oinezkoentzako gunek. Kale bakoitzari dagokion lehentasuneko araubidea ezarriko zaio. Kale horietan kartel handien bidez jakinaraziko dira erabilera-arauak, murrizketak, baimendutako erabilerak, ordutegiak eta bestelakoak. Kartelak oinezkoentzako guneen sarbideetan jarriko dira. Bestalde, zirkulazio-noranzkoa eta -norabidea kale arruntetan bezala antolatuko da. Hori dela-eta, aurreikusitako sarbideetan lehen aipaturiko kartelak jarriko dira, eta gunearen irteeretan "norabide debekatua" seinaleak.

Beraz, karteletan "oinetzkoentzako gunea" dela jakinaraziko da; eta horrekin batera, "zirkulazio debekatua" eta "aparkatzea debekatua" seinaleak ere jarriko dira. Halaber, salbuespenen araubidea zehaztuko da (normalean, garajeei eta zamalanei buruzkoa izango da) eta BGPa 3,5 tonara murrizten dela jakinaraziko da.

### 3.3.6. 12,5 tona baino gehiagoko BGPa duten ibilgailuei dagozkien zirkulazio-mugak.

Zirkulazioko Ordenantza Orokorreko 15-5. artikulua Errenteria barrura sartzeko debeku orokorra ezartzen die 12,5 tonatik gorako BGPa duten ibilgailuei. Halere, industria-jardueraren eguneroko beharrak asetzeko eta herriz kanpoko zirkulaziorako nahitaezkoak diren bideak salbuetsita geratuko dira. Hori dela-eta, honako hau ezartzen da:

3.3.6.1. Herriko sarbideetan jarriko diren karteletan, 12,5 tonatik gorako BGPa duten ibilgailuek herri barruan zirkulatzeko debekua dutela adieraziko da.

3.3.6.2. Aipaturiko mugak aintzat hartuz, honako bide hauen barruan geratzen den eremua herri barrua izango da:

- Lezo pasealekua



- Nafarroako etorb.: Lartzabal auzoko errotonda
- Nafarroako etorb.: Kaputxinoetako tunela
- Arragua auzoa (Oiartzungo udalerrria)- Fanderia auzoa
- Agustindarren etorb: A-8-aren gaineko zubia (K.P 13,00)
- Arramendi pasealekua - Txirrita Maleoko errotonda
- Lezoko pasealekua – Renfeko geltokia.
- San Markos kaleko errotonda
- Kaputxinoen auzoko errotonda (Sorgintxulo kalea) – Sarbideak A-8- N-1

Muga horien barruko eremuan, aipaturiko debekua indarrean egongo da, eta horren berri ematen duten seinaleak jarriko dira. Honako bide hauek, ordea, salbuetsita gertatuko dira herriz kanpoko pasabideak edo industrialdeetarako sarbideak direlako:

- Masti Loidi industrialdera sartzeko bideak
- Txirrita Maleo industrialdera sartzeko bideak

Eranskin honetan, mugatutako eremua eta salbuetsitako bideak zehazten dira, modu grafikoan.

Halaber, 12,5 tonaren muga landa-auzoetako erdiguneetan ere ezarriko da. Hori dela-eta, beharrezkoak diren seinaleak jarriko dira bertan. Industria-jarduerako gunetara daramaten bideak salbuetsita geratuko dira.

Horrela mugatutako bideetan zirkulatu ahal izateko, Zirkulazioko Ordenantza Orokorreko 2. Eranskinean arautzen den baimen berezia eskuratu beharko da.

### 3.3.7. Salgai arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuei ezarritako mugak.

Errepideetan Salgai Arriskutsuak Garraiatzeko Araudiaren eta Zirkulazioko Ordenantzaren arabera, ibilgailu horiek debekatua dute udalerriko bide publikoetatik ibiltzea eta aparkatzea. Beraz, herriko saihebidetarako erabil beharko dituzte nahitaez.

Halere, debekuak ez du eraginik izango garraioaren jatorria edo helmuga herriko erdigunea bera denean. Horretarako, lehen aipaturiko Udal Ordenantzan eta Zirkulazioko Ordenantza Orokorreko 4. Eranskinean udal-baimena eskuratu behar da.

### 3.3.8. Neurriak direla eta, herri barruan aparkatzeko mugei dagokienez.



3.3.9. Neurriak: Ibilgailuen gehienezko neurriak honako hauek izango dira.

- 2,50 metro zabal.
- 4,00 metro garai.
- 5,50 metro luze.

Neurri horiek gainditzen dituzten ibilgailuek nortasun berezia izango dute aparkatzean. Beraz, herri barruan aparkatu ahal izateko 4. Eranskinean arautzen diren baimen bereziak eskuratu beharko dituzte.

3.3.10. Pisua: erdigunean baimendutako gehienezko pisua 12,5 tonakoa izango da.

Baimendutako gehienezko pisua 3.500 kg-tik gorakoa duten ibilgailuak aparkatu ahal izateko 4. Eranskinean arautzen diren baimen bereziak eskuratu beharko dira.

Murrizketa horiez gain, zoladuraren erresistentzia dela eta, Udal Zirkulazio eta Garraio Sailak hainbat bideetan bestelako mugak finkatzea erabakitzen badu, mugek eragina izango duten bideetan seinaleak jarriko dira.

## **LEHENTASUNeko ARRETA BIDEAK**

Lehentasuneko arreta bideak edo zirkulazio handikoak.

Errenteriako Udaleko Zirkulazioko Ordenantza Orokorraren 26-11. artikulua, Bide Segurtasunerako Legearekin eta Zirkulazioko Araudiarekin bat eginez, aintzat hartzen ditu, oinezkoen eta ibilgailuen, edo, batzuen nahiz besteen arteko zirkulazioa larri oztopatzen dituzten aparkatzekok moduak, "lehentasuneko arreta" bideetako gune debekatuetan egiten direnean.

Zirkulazio handiko herri barruko bideei eta herritarren arteko komunikazioari eta zirkulazioari eusten dioten bideei buruz ari dela ulertzen da. Beraz, horrelako bideetan joan-etorria oztopatzen dituzten erasanak saihestu beharko dira. Era berean, arreta eta zaintza berezia eskaini beharko zaie.

3.3.11. Lehentasuneko Arreta Bideen definizioa

Errenteriako udalerrian eta Udal-eskumenari dagozkion bide publikoetan, herriko ibilgailuen komunikazioari eusten dioten bideak eta egunero 2.500 ibilgailutik gorako zirkulazio-intentsitatea dutenak Lehentasuneko Arreta Bidetzat hartuko dira. Beraz, horrelako bideetan gerta daitezkeen zirkulazio-, jario- eta edukiera-oztopoak saihestu beharko dira, ahal den neurrian. Halaber, neurri bereziak hartuko dira zirkulazio-zaintzari dagokionez.

3.3.12. Lehentasuneko Arreta Bideen (lab) zerrenda

**MOJA AGUSTINDARREN etorbidea**



ALABERGA bidea  
ALFONSO XI.aren kalea  
BERAUN kalea  
GALTZARABORDA etorbidea  
LEZO pasealekua  
MARIA DE LEZO kalea  
NAFARROA hiribidea  
PABLO IGLESIAS kalea  
SAN MARKO kalea  
SEGUNDO ISPIZUA kalea  
SORGINTXULO kalea  
TOMAS LOPEZ, kalea  
BITERI kalea

Herriko zirkulazioaren bilakaeraren arabera, aurreko zerrenda handitu edo txikitu ahal izango da. Aldaketak egiteko, Udaletxeko Zirkulazio eta Garraio Sailak proposamena egingo du eta Alkatetzaren ebazpen baten bidez onartuko da.

### 3.3.13. Lehentasuneko Arreta Bideetako mugak.

Lehentasuneko Arreta Bideetako mugak bi eratakoak izango dira:

#### 3.3.13.1. Hirigintzako mugak:

Plan Orokorreko hirigintzako araudian erabilerei eta sarbideei buruz jasotako muga berak dira. Araudiaren “III. mailako mugak” dira, eta eraikitako azalera aintzat hartuta, bide horien industria- eta merkataritza-erabilerari buruzkoak dira. Halaber, aparkatzeko gunetara sartzeko eta bertan dauden lokaletan zamalanak egiteko hainbat muga daude, galtzada biltzailea dutenentzat izan ezik.

#### 3.3.13.2. Zirkulazio-mugak:

Zirkulazioko Ordenantza Orokorrean eta Eranskin gehigarrietan, ibilgailu astunen zirkulazioari, zamalanei, zirkulazio-mozketei eta bestelakoei buruz jasotzen diren muga berak dira.

Berriazko araudia alde batera utzita, bai Udaltzaingoak bai Zirkulazio eta Garraio Zerbitzuek, beren eskumenen barruan, bide horiek hartzeko edo erasateko ematen dituzten baimenen kopurua ahalik eta gehien murriztuko dute. Beraz, ahal izanez gero, zirkulazio gutxiko eta gaueko ordutegietan, edo, lanegunetatik kanpo egingo dira horrelakoak.




## 2. ERANSKINAREN GRAFIKOAK

### ERRENTERIAKO BIDEEN GRAFIKOAK











 **CASCO URBANO**









### **3. ERANSKINA**

## **BIDE PUBLIKOAN APARKATZEKO ERRESERBAK EMATEKO, SEINALEZTATZEKO ETA IZAPIDETZEKO ARAUAK**

### **1. artikulua Xedea eta ezaugarri orokorrak**

Bide publikoan aparkatzeko erreserbatzat hartzen da denbora-tarte jakin batean ibilgailuek aparkatzea debekatuta duten guneen seinaleztapena; gune horietan erreserbaren emakida jaso duten ibilgailuek bakarrik aparkatu ahal izango dute, emakidaren xedearekiko duten harremanaren arabera.

### **2. artikulua Erreserbaren seinaleak**

2.1 Oro har, erreserbak era honetan seinaleztatuko dira: erreserbatuta dagoen gunea mugatzeko bi R-308 erreserba-plaka jarriko dira, eta baita testu osagarri bat ere, erreserba zer erabiltzaileri dagokion eta zer ordu eta egunetarako balio duen adieraziz; salbuespen izango dira arau honetan zehazten diren kasu bereziak, eta horietan, beste seinale mota batzuk jarriko dira.

2.2 Plaka horiez gainera, eta Udaleko Zirkulazio eta Garraio Sailak egoki deritzonean, seinale horizontalak ere jarriko dira: bide-marra horiak, sigisagan.

2.3 Seinaleak eta bide-marrak udal baldintzen arabera jarri beharko dira materialei, jartzeko moduari, eta abarri dagokienez, eta Udaleko Zirkulazio eta Garraio sailak gainbegiratuko du ondo jarrita dauden.

2.4 Erreserbatutako guneetan, seinaleetan adierazten den egun eta orduetan, ezin izango dute aparkatu bertan zehazten diren erabiltzaile ez direnek, eta seinaleetan ez bada ordutegirik zehazten, erreserba iraunkortzat hartuko da.

### **3. artikulua Erreserbak izapidetzeko baldintza orokorrak**

3.1 Aparkatzeko erreserbak Udaleko Zirkulazio eta Garraio Sailak jarriko ditu, hiriko bide-sarea ustiatzeko funtzioa beteaz, edo bestela, Alkatetzaren hitzarmen bidez, interesdunak eskatuta; kasu horretan, interesdunek berek seinaleztatuko dituzte erreserbak, arauan zehazten diren baldintza orokorreari jarraituz.

3.2 Erreserbak sortzeko interesa duten pertsonak erreserba izapidetzeko eskaera Alkatetzan egin beharko dute, Udalaren Erregistro Orokorrean; espedientea bideratzeko Udaltzaingoak eta Zirkulazio Sailak txostena



egingo dute. Alkatetzari dagokio eskaera onartzea edo ukatzea.

Guneen erreserba emateko bete behar diren baldintzak Arau honen hurrengo artikuluetan zehazten dira, eta orobat zehazten dira proposatutako erreserba mota bakoitzak bete beharreko baldintza bereziak, erabilerari eta seinaleei dagokienez.

3.3 Emakida guztien berri emango zaio Udaleko Zirkulazio eta Garraio Sailari eta baita Udaltzaingoiari ere, eta azken horri noiz instalatuko den jakinarazi beharko zaio.

#### **4.Artikulua Erreserba motak**

Erreserbak era honetan sailkatzen dira:

4.1 Jabetza publiko zein pribatuetara ibilgailuekin sartzeko ibietarako pasatzeko erreserbak.

4.2 Lanetarako guneen erreserbak.

4.3 Salgaien zamalanetarako erreserba publikoak.

4.4 Segurtasun publikoa bermatzeko guneen erreserba.

4.5 Agintariak edo erakunde ofizialetako langileek aparkatzeko guneen erreserba.

4.6 Nortasun publikoa, erdi-publikoa edo pribatua duten hainbat erakundek, zerbitzu publikoetakoak oro har, aparkatzeko gune-erreserba.

4.7 Osasun-zentroen aurreko guneen erreserba.

4.8 Bidaiariak garraiatzen dituzten autobus-zerbitzu erregularreko lineak jartzeko guneen erreserba.

4.9 Ikastetxeetako autobus-geltokietarako guneen erreserba, ikastetxeetan edo ikasketa-zentroetan.

4.10 Herri barruko garraio-zerbitzu publikoko autobusetarako guneen erreserba.

4.11 Lan- edo eskola-garraiorako geltokiak jartzeko guneen erreserba, ikastetxetik, ikasketa-zentrotik edo lanlekutik urrun.

4.12 Hotelen aurrean bidaiariak igotzeko edo jaisteko guneen erreserba.



4.13 Zirkulazio handiko zentroen aurreko guneen erreserba.

4.14 Elbarrientzako guneen erreserba.

4.15 Taxi geltokietarako guneen erreserbak.

4.16 Beste erreserba mota batzuk.

## **5.Artikulua Gune-erreserbak jabetza pribatuetara ibilgailuekin sartzeko ibiak daudenean.**

5.1 Derrigorrezko pasagune-erreserba.

Pasagunearen erreserbarako baimena eduki beharko dute, derrigorrez:

5.1.1 Lau gurpileko ibilgailuetarako aparkalekuak dituzten eta ezaugarri hauek betetzen dituzten garajeen jabe direnek: 3.500 kg-tik beherako zama duten hiru automobil edo furgonetentzako ahalmena, edo 100 m<sup>2</sup>-ko edo hortik gorako eremua, baldin eta kanporako irteera libre badute, lokal berean dauden beste ibilgailuen aparkalekua eragotzi gabe.

Ordenantza honen aplikazioa dela-eta, lau gurpileko automobil baten aparkalekuaren baliokide izango dira 75 cm<sup>3</sup>-tik beherako ahalmena duten sei motor edo 75 cm<sup>3</sup>-tik gorako ahalmena duten lau motor.

5.1.2 Gutxienez 100 m<sup>2</sup>-ko eremua duten industria- eta merkataritza-establezimenduen jabeek, baldin eta haien jarduerarako beharrezkoa bada automobilak sartzea eta ateratzea edo zamalanak oso maiz egitea. Halaber, aurreko baldintzak bete gabe ere, zama handien zamalanak egiten dituzten establezimenduek, edo establezimenduaren nolakotasuna dela-eta, barnean nahitaez zamalanak egin behar dituztenek.

5.2 Aukerako pasagune-erreserba.

Udalak automobilak pasatzeko erreserba eta horietan aparkatzeko debekua eman ahal izango du honako kasu hauetan:

5.2.1 Administrazio baten mende dauden zentro ofizialetan, osasun- eta laguntza-zentroetan eta interes publikoko beste zerbitzu batzuetan.

5.2.2 Garaje partikularretarako lokaletan, trafiko ezaugarri bereziak dituzten eremuetan badaude, banan-banan aztertuko dira eta bakarka hartuko da erabakia; kasu horietan, denbora edo garaia mugatu ahal izango da, interes orokorreko irizpideen arabera: baldin eta lau gurpileko bi ibilgailu edo gehiagotarako plazak badituzte eta ibilgailuko



gutxieneko azalera 20 m<sup>2</sup>-koa bada, lokalaren ezaugarri bereziak kontuan hartuta azalera handiagoa eskatzeko kalterik gabe; era horretan, edozein ibilgailu bertatik arazorik gabe atera ahal izango dela ziurtatuko da. Baimen hori lortzeko ezinbesteko baldintza izango da Udalean, eskaeraz gainera, garajearen eskala-planoa aurkeztea, ibilgailuentzako plazak zehaztuta dituelarik.

5.2.3 Mugakide diren garaje partikularretarako lokaletan, ibilgailu bakarra gordetzen bada bertan, eta ahalmena aurreko atalean aipatutako ezaugarriak dituzten hiru ibilgailutarako edo gehiagotarako badu.

5.2.4 Finka partikular zein kolektiboetako garajeetara sartzeko baimenak direnean, edo trafiko ezaugarri bereziak dituzten eremuetan, kasuak banan-banan aztertuko dira eta erabakia banakakoa izango da; denbora edo garaia interes orokorreko irizpideen arabera mugatu ahal izango dira.

### 5.3 Pasagunearen erreserbarako eskaera.

Pasagunearen erreserba lortzeko lizentzia idatziz eskatuko zaio Udaleko Alkateari, eta Udal Erregistroan aurkeztu beharko da.

Eskaerarekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

5.3.1 Lan-baimena eta lehen erabilerari dagokiona, oin berriko lanetarako baimenen kasuan.

Jardueraren lizentzia, gainerako erabileretan.

Zabaltzeko lizentzia emateko beharrezkoa izango da pasagune-erreserbaren lizentzia lortzea, derrigorrezko pasagune-erreserbaren kasuetan.

5.3.2 Lokalaren planoak; bertan, ibilgailuak non gordeko diren adierazi beharko da, edo zein gunetan egingo diren zamalanak, hala dagokionean.

5.3.3 Eskatzailearen aitortpena; bertan eskatzaileak adierazi beharko du jarduera zer ordutan egoten den martxan, zer gune eskatzen duen, eta egin ohi diren zamalanen nolakotasuna eta maiztasuna.

### 5.4 Pasabide-erreserbarako lizentziaren emakida.

Dagokien zerbitzuen txostena aurkeztean, lizentzia Alkatetzaren ebazpen bidez, edo zeregin hori beste organo baten esku utzi denean haren ebazpen bidez, eman edo ukatuko da, eta Zerga Ordenantzetan dagokion tasaren sortzapena egingo da. Lizentzia eskatu eta hilabete iragan





ondoren, eskatzaileari ez bazaio aldeko zein kontrako erabakiaren berri eman, lizentzia ukatutzat jo beharko du eskatzaileak.

#### 5.5 Pasagune-erreserbarako lizentziaren baldintza orokorrak.

Lizentziak mugatu ahal izango dira bai espazioari bai denborari dagokionez.

Espazioa lokalera sartzeko atearen zabaleraren berdina izango da, oro har, eta gutxienez 3 metro eta gehienez 5 metro izango ditu; muga hori zabaldu ahal izango da, baldin eta ibilgailuek bertara sartzeko bira-erradio handiagoa behar dutela justifikatzen bada. Edonola ere, ibiaren luzera metro baten multiploa izango da.

Denborari dagokionez, kasu hauetan emango da lizentzia :

##### 5.5.1 Lan-ordutegian bakarrik.

##### 5.5.2 Ordutegi berezietan.

Ordutegi mugatuko ibiei dagokienez, jardueraren arabera baimendutako ordutegian bakarrik murriztuko dute horien parean aparkatzeko edo gelditzeko aukera, eta dagokion ebazpenean zehaztu beharko da.

Erabilera iraunkorreko ibien bitartez, automobilak sartzeko eta irteteko baimena eguneko hogeita lau orduetarako izango da. Kasu batean zein bestean, baimendutako ordutegiaren barruan, ezin izango da automobilik aparkatu edo gelditu, ezta ibientzako pasabide-erreserbaren jabeek ere.

#### 5.6 Lizentziaren iraunaldia.

Ibientzako erreserba-lizentziaren iraunaldia urtebetekoa izango da, eta era automatikoan luzatuko da, baldin eta Udalak ez badu kontrako oharrik egiten. Lizentziak Eranskin honetan aurreikusten den moduan eskatu, izapidetu eta emango dira, dagokien tasak ordainduta.

#### 5.7 Gordailuaren eraketa.

Pasagune-erreserbarako lizentzia lortzen dutenek berme bat jarri beharko dute, nahitaez, Udal Kutxan; berme hori dirutan, bankuaren berme bidez edo indarrean den legedian zehazten diren baliabideen bitartez egin ahal izango da. Bermearen zenbatekoa kasuan-kasuan zehaztuko da, dagokion txosten teknikoa ikusi ondoren, udal zerbitzuek adierazten dituzten arauak ez betetzearen ondorioz Udalak egin beharko lituzkeen obrei aurre egin ahal izateko.

#### 5.8 Debeku-plakak.



Udalak pasagune-erreserbaren jabe direnei emango die, eta azken horien kontura izango dira, aparkatzeko debekua eta mugaren amaiera adierazten dituzten plakak, lokalaren aurrealdean jar ditzan.

Eraikinaren fatxadan eta ibilgailuentzat erreserbatutako pasagunearen bi muturretan bi plaka jarriko dira, eta horietan honako argibide hauek zehaztuko dira:

5.8.1 Ibilgailuetarako pasaguneetan, erabilera iraunkorra denean, aparkatzea debekatuta dagoela adierazten duen disko bat jarriko da, erdian, "IBI IRAUNKORRA" esaldiarekin; diskoaren beheko aldean, berriz, udal-lizentziaren zenbakia idatziko da.

5.8.2 Ibilgailuak ordutegi jakin batean igartzeko, aparkatzea debekatuta dagoela adierazten duen disko bat jarriko da, erdian, "ALDI BATERAKO IBIA" esaldiarekin, eta diskoaren beheko aldean debekuaren ordutegia eta udal-lizentziaren zenbakia zehaztuko dira.

5.8.3 Zenbaitetan, hainbat arrazoi direla medio, ez bazaio egoki irizten fatxadan ibi-plakak jartzeari, euskarri bertikal galbanizatuan jarri ahal izango dira plakak; zirkulazio-seinaleentzako eredu estandarren arabekoak izango dira, eta plaken beheko aldearen gutxieneko altuera 2 metrokoa izango da, espaloia zoladuratik gora neurtuta.

5.9 Obrak espaloi eta zintarrietan. Zainketa.

Ibilgailuentzako pasabideen zintarriak, bai erabilera iraunkorrekoetan bai ordutegi mugatutakoetan, txikitu ahal izango dira. Galtzadaren eta arekaren arteko muga zehazteko 15 cm zabal den zerrenda edo laukizuzen hori bat margotu beharko da, Udal Zerbitzu Teknikoek emandako zehaztapenen arabera; hori titularraren kontura izango da. Zintarrien txikitzea galtzadaren aldatsetik 3 eta 5 cm bitarteko mailara finkatuko da; ez da kalterik eragingo euri-urak husteko arekan, eta alboko bide publikoko zoladura eta zintarri mota bera erabiliko da.

Pasagune-erreserbaren titularrak behar bezala mantendu beharko du pasabidea, eta oinezkoentzako segurtasun-baldintzak bete beharko ditu. Zoladura berritu egingo da Udalak egoki deritzonean, eta pasagune-erreserbaren konponketa titularraren kontura izango da.

5.10 Pasatzeko eskubiderako lizentziaren titular direnen betebeharrak.

Pasatzeko eskubiderako lizentziaren titularraren betebeharra da:

5.10.1 Ibilgailuak pasatzeko eraikuntza-lanak egitea, bere kontura.



5.10.2 Zoladura eta seinaleztatzeko diskoak zaintzea.

5.10.3 Galtzadaren ertzak eta gainerako seinaleak Ordenantza honetan zehazten den moduan txikitzea eta margotzea Udalak hala eskatzen duen oro, eta bestela, urtean behin.

5.10.4 Zoladura berritzea, Udal Zerbitzu Teknikoek berritu behar dela uste dutenean.

5.10.5 Lizentzia baliogabetzen denean, espaloia eta zintarria jatorriz zeuden moduan uztea.

5.10.6 Udaltzainei eta udal teknikariei dagokien lokaletara sartzen uztea, haiek dagozkien egiaztapenak eta/edo ikuskapenak egin ditzaten.

5.10.7 Lokalaren, establezimendu industrialaren edo komertzialaren titular aldaketarik balego, Udalari horren berri ematea. Bestalde, pasagune-erreserban baja eman dela jakinarazi behar da.

5.10.8 Bere gain hartzea segurtasunari dagozkion beste seinale edo osagaien ondoriozko gastuak (ispiluak, mugarriak...).

5.10.9 Dagokion tasa ordaintzea. Titular-aldaketa edo baja Udalari jakinarazi bitartean, Udalak pasagune-erreserbaren jatorrizko jabearen izenean igorriko ditu ordainagiriak.

5.11 Pasagune-erreserbaren iraungitzea.

Pasagune-erreserbaren lizentziak iraungiko dira, baldin eta lokalaren jarduera edo helburua aldatzen bada edo eraikina eraisten bada.

5.12 Pasagune-erreserbaren baliogabetzea.

Pasagune-erreserbaren lizentziak kasu hauetan baliogabetuko dira:

5.12.1 Ibilgailuak pasatzeko egin beharreko eraikuntza-lanak egin ez badira edo gaizki egin badira.

5.12.2 Erabilitako galtzada ez bada egoera ezin hobean mantentzen.

5.12.3 Ibilgailuetarako pasagunea ez bada behar bezala erabiltzen.

5.12.4 Lokalak ez baditu eskatzen diren ezaugarriak betetzen edo ez bada titularrak adierazitako helburuetarako erabiltzen.



5.12.5 Lizentzia eman zeneko egoera aldatu bada.

5.12.6 Dagokion Zerga Ordenantzan adierazten den tasa ordaindu ez bada.

5.12.7 Oro har, Eranskin honetan adierazten diren arauen arabera titularrari dagozkion betebeharrak betetzen ez badira.

5.12.8 Pasagune-erreserbaren lizentzia deuseztatzeko kontrakoa dioen espedientea izapidetu beharko da, interesdunari entzunaldia eman ondoren; espedientea lizentzia eman zuen organoak erabakiko du.

### 5.13 Borondatezko espazio-erreserba.

Zamalanak maiz egin ohi dituzten industria- eta merkataritza-establezimenduen titularrek Udalari gunea erreserbatzeko baimena eskatu ahal izango diote, betiere lan horien ondorioz ez bada ibilgailurik lokalera sartu eta bertatik irten behar, eta lanak jarduera egiten den ordutegiaren barruan egiten badira.

### 5.14 Gunea erreserbatzeko eskaera.

Gunearen erreserba lortzeko lizentzia idatziz eskatuko da, Udaleko Alkateari bidaliko zaio, eta Udal Erregistroan aurkeztu beharko da.

Eskaerarekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

#### 5.14.1 Jardueraren lizentzia.

5.14.2 Eskatzailearen aitortpena; bertan adierazi beharko du eskatzaileak jarduera zer ordutan egoten den martxan, zer gune eskatzen den, eta egin ohi diren zamalenen nolakotasuna eta maiztasuna.

### 5.15 Gunea erreserbatzeko lizentziaren emakida.

Dagokien zerbitzuen txostena aurkeztean, lizentzia Alkatetzaren ebazpen bidez edo, zeregin hori beste organo baten esku utzi denean, haren ebazpen bidez eman edo ukatuko da, eta Zerga Ordenantzetan dagokion tasa ordaindu beharko da.

Eskaera eskatu eta hilabete igarotzen bada berariazko ebazpenik jaso gabe, lizentzia ukatutzat hartuko da.

### 5.16 Gunea erreserbatzeko lizentziaren baldintza orokorrak.



Lizentziak espazioaren eta denboraren arabera mugatu ahal izango dira. Erreserbaren tarteak ohiko zamalanak egiteko behar dena izango da. Edonola ere, erreserbaren luzera metro baten multiploa izango da.

Denborari dagokionez, lizentzia eman ahal izango da.

#### 5.16.1 Lan-orduetan bakarrik.

#### 5.16.2 Ordu berezietan.

Ordutegi mugatuko guneen erreserbaren bitartez, gune horretan baimendutako ordutegian eta jardueraren arabera aparkatzea edo gelditzea mugatuko da; dagokion ebazpenean zehaztu beharko da hori guztia.

Kasu batean zein bestean, eta baimendutako ordutegiaren barruan, ezin izango da ibilgailurik aparkatu edo gelditu, gunearen erreserba duen titularrarena izan ezik.

#### 5.17 Lizentziaren iraunaldia.

Lizentziaren iraunaldia urtebetekoa izango da, eta era automatikoa luzatuko da, baldin eta Udalak ez badu kontrakoa dioen oharrik egiten.

#### 5.18 Debekua adierazten duten plakak.

Aparkatzeko debekua eta mugaren amaiera adierazten duten plakak Udalak emango dizkie gunearen erreserba dutenei lokalen parean jarritzatzen, eta azken horien kontura izango dira.

Eraikinaren fatxadan eta gune-erreserbaren muturretan, bi plaka jarriko dira; horietan honako argibide hauek azalduko dira.

5.18.1 Ordutegi jakin batean gune-erreserban aparkatzea debekatuta dagoela adierazten duen disko zentral bat jarriko da, "ALDI BATERAKO GUNE-ERRESERBA" esaldiarekin, debekuaren ordutegiarekin, eta, beheko aldean, udal-lizentziaren zenbakiarekin.

5.18.2 Hainbat arrazoi direla-eta gune-erreserbarako plaka fatxadan jartzea komeni ez bada, euskarri bertikal galbanizatuan jarri ahal izango da, zirkulazio-seinaleetarako eredu estandarraren arabera, eta plakaren beheko aldean espaloien zoladuratik gutxienez 2 metroko altueran geratzen dela.

#### 5.19 Gune-erreserbaren titularraren betebeharrak.

Gune-erreserbaren titularraren betebeharra izango da:



5.19.1 Seinaleztatzeko diskoak zaintzea.

5.19.2 Galtzadaren ertza Udal Zerbitzu Teknikoek adierazitako moduan pintatzea, urtean behin, nolnahi ere.

5.19.3 Lokalaren, industria- edo merkataritza-establezimenduaren titular aldaketarik gertatzen bada, Udalari jakinaraztea. Horrez gainera, gune-erreserbaren bajaren berri ere eman beharko da.

5.19.4 Beste segurtasun-seinaleek edo osagai osagarriek (ispiluek, mugarriek...) eragindako gastuak bere gain hartzea.

5.19.5 Dagokion tasa ordaintzea. Titular-aldaketa edo baja Udalari jakinarazten ez zaion arte, hark gune-erreserbaren jatorrizko titularraren izenean bidaliko ditu ordainagiriak.

5.20 Gune-erreserbaren iraungitzea.- Lokalaren jarduera edo xedea aldatzen denean edo eraikina eraitsi denean iraungiko da gune-erreserbarako lizentzia.

5.21 Gune-erreserbaren baliogabetzea.

Gunea erreserbatzeko lizentziak baliogabetu ahal izango dira:

5.21.1 Erreserbatutako gunea ez bada erabiltzen edo gaizki erabiltzen bada.

5.21.2 Lizentzia eman zeneko egoera aldatu bada.

5.21.3 Zerga Ordenantzan adierazitako tasa ordaintzen ez bada.

5.21.4 Ordenantza honetan adierazitako betebeharren bat, edozein, betetzen ez bada.

Gune-erreserbaren lizentzia deuseztatzeko kontrakoa dioen espedientea izapidetu beharko da, interesdunari entzunaldia eman ondoren; lizentzia eman zuen organoak hartuko du espedienteari buruzko erabakia.

## **6.Artikulua Gune-erreserbak lanak egiteko.**

6.1 Eskaera- Lanak egiteko udal-baimena duten pertsonak edo erakundeek, horiek egiteko hirugarrengeoi aparkatzeko debekua jartzea beharrezkoa dutenean, materialen zamalanak errazteko edo erortzen diren objektuetatik, etab. babesteko, erreserba Alkateari zuzendutako idatzi bidez eskatuko dute, eta Udalaren Erregistroan aurkeztu beharko dute.



Era honetako erreserbak Udaleko Zirkulazio eta Garraio Sailak emango ditu, Udaltzaingoa aldeko txostena egin ondoren.

6.2 Erreserba horiek eraikuntza-lanetarako ibiei lotuta eman ahal izango dira (hau da, materialak eramateko ibilgailuei sartzan uzten dietenei lotuta), edo ibi horietatik bereiz, bide publikoan zamalanak egiteko. Ezin emango da era honetako erreserbarik kalearen zabalera dela-eta eragiketa horiek egiteko zirkulazioa etengo bada; salbuespenezko kasuetan, 4. Eranskinen xede horretarako zehazten diren baimenak eman ahal izango dira.

6.3 Erreserbaren seinaleak eskatzaileak jarriko ditu ohi denez, eta testu osagarri bat izango du idatzita, "obretarako erreserba", eta baimendutako ordutegia "jai egunetan izan ezik"; lizentziaren zenbakia seinalearen goiko aldean zehaztuko da. Ez da seinale horizontalik jarriko.

6.4 Obrak amaitu eta erreserba jadanik behar ez denean, lizentziaren esleipendunek eskatu beharko dute baja eta kendu beharko dituzte seinaleak; baja emango zaie aipatutako seinaleak kendu badira eta zoladuran ez badago kalterik, eta horretarako, seinaleak kentzen diren egunean instantzia aurkeztuko da Udal Erregistroan eta seinaleak kendu izanaren berri emango zaio Udaleko Zirkulazio eta Garraio sailari.

## **7. Artikulua Salgaien zamalanetarako erreserba publikoak.**

7.1 Zamalanetarako erreserbak eta horietarako seinaleak Udaleko Zirkulazio eta Garraio Sailak jarriko ditu:

7.1.1 Administrazioaren kabuz, bide publikoan zirkulazioa arautzeko irizpide teknikoei jarraituz.

7.1.2 Partikularrek eskatuta, Udaltzaingoa eta Udaleko Zirkulazio eta Garraio Sailak txostenak egin ondoren, baldin eta, zerbitzu horien ustez, erreserbaren sorrera justifikatzeko behar adina eskaera badago.

7.1.3 Erreserbaren onuradun lokal edo saltoki bakar bat denean, seinaleak eskatzaileak berak jarriko ditu, udal-arauei jarraiki.

7.1.4 Udaleko Zirkulazio eta Garraio sailak du zamalanetarako erreserba bat sortzeko edo kentzeko eskumena, eta edonoiz kendu ahal izango du segurtasun-arrazoien eta zirkulazioaren beharren ondorioz, edo erabilera eskasa egiten zaiolako, eta erreserbaren erabiltzaileek edo eskatzaileek ezin izango dute eskubiderik alegatu.

7.2 Behar beste eskaera dagoela onartzeko baldintza orientagarriak honako hauek dira:



7.2.1 50 metroko zintarria duen tarte batean, egunero hamar zamalan baino gehiago egiten badira, BGPT 3,5 tonatik gorakoa duten merkataritza ibilgailuekin.

7.2.2 Azalera 2.000 metro koadrotik gorakoa duten instalazio industrialak, industriarako hornikuntzen saltokiak, edo azalera 1.000 metro koadrotik gorakoa duten saltokiak, baldin eta legitimatuta badaude eta barruan ez badute behar adina espaziorik zamalanak egiteko.

7.2.3 Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko araudian eskatzen diren zirkulazio-azterketaren ondorioz egokitzat hartzen diren lekuak.

7.2.4 Inguruan ibilgailuak gelditzeko debekua duen eremua handia bada, autobus-geltokiak eta beste erabileratarako aparkatzeko erreserbak badaude, merkataritza-jarduera badago, eta horren guztiaren ondorioz, lokalaren parean ezin badira zamalanak egin.

### 7.3 Erreserbaren ordutegiak honako hauek izango dira:

7.3.1 Janari- eta edari-dendetarako erreserbak, 08:00etatik 13:00etara.

7.3.2 Erabilera orokorretarako erreserbak, 8:00etatik 13:00etara eta 14:00etatik 17:00etara.

7.3.3 Gelditzeko debekua duten guneetatik, zirkulazio handiko guneetatik, etab. eta zamalanetarako eskaera handiko guneetatik hurbileko erreserbetan, 7:00etatik 17:00etara.

7.3.4 Saltoki espezifikoetarako erreserba bereziak, 21:00etatik 7:00etara.

### 7.4 Guneen seinaleak Zirkulazio Araudi Orokorrean agindutakoaren arabera jarriko dira, era honetan:

7.4.1 R-308 plaka, "Zamalanak" testuarekin, ordutegiarekin eta asteko egunekin. Aipatutako epetik kanpo Zirkulazio Ordenantza Orokorreko 12-1. artikuluan sartuta ez dauden ibilgailuak aparkatu ahal izango dira.

7.4.2 R – 308 plaka, "Zamalanak izan ezik" panelarekin eta gainerako seinale osagarriekin aparkatzea debekatuta dagoen guneetan; era horretan, Zirkulazio Ordenantza Orokorreko 12-1. artikuluan sartuta dauden ibilgailuak bakarrik gaituko dira, eragiketa horiek adierazten den ordutegian eta egunetan egin ahal izateko.

7.4.3 Osatzeko bidean marra horiak marraztuko dira, sigi-sagan.





Kontrakoa adierazten ez bada, erreserbak jaiegun ez diren egunetan bakarrik egongo dira indarrean, astelehenetik ostiralera. Larunbatetan ere indarrean badago, espresuki adierazi beharko da.

## **8.Artikulua Guneen erreserba segurtasun publikoa dela-eta**

8.1 Segurtasun Indarrek eta segurtasunaren alorreko beste sail publiko batzuk eskatu ahal izango dute, instalazioak eta pertsonak babesteko behar dituztenean.

8.2 Horiez gainera, erreserba hori eskatu ahal izango dute lapurretei, suteei, etab. aurre egiteko, segurtasun-arrazoiak direla-eta aparkamendua guztiz debekatzea beharrezkoa duten erakunde pribatu zein publikoek, suteak, ikuskizun lokalak, etab. arautzen dituen eta indarrean den araudia beteaz, edo poliziaren gomendioz.

Udaleko Zirkulazio eta Garraio Sailak emango ditu, Tokiko Poliziak aldeko txostena idatzi ondoren, egokitzen hartzen den kasuetan.

8.3 Era honetara seinaleztatuko dira: R-307 seinaleekin baimendutako luzera mugatuz, eta "Segurtasun Publikoa" dioen testu osagarriarekin; babestutako zentroaren izena eta, hala dagokionean, ordutegia ere adieraziko da.

8.4 Leku horretan, salbuespen gisa, ibilgailu ofizialek, segurtasunekoek, etab. gelditu edo aparkatu behar badute, "baimendutako ibilgailuak izan ezik" azalpena erantsiko da; ibilgailu horien matrikulak eta identifikatzeko datuak Udaltzaingoaren bulegoetara bidali beharko dira, haiek identifikazio-txartelak egin ditzaten. Txartel horiek ibilgailuen aurreko haizetakoetan jarri beharko dira, ondo ikusteko moduan. Txartel horiek urtebeteko balioa izango dute, eta urteko lehenengo hilabetean berritu beharko dira.

8.5 Seinaleen instalazioa eskatzailearen kontura izango da, oro har, Udalak dagokion kostua bere gain hartzeko erabakitzen duenean izan ezik; kasu horretan, Udaleko Zirkulazio eta Garraio Sailak instalatuko ditu.

## **9.Artikulua Agintariek edo erakunde ofizialetako automobil ofizialek aparkatzeko gune-erreserbak.**

9.1 Era honetako erreserbak erakunde ofizialetako ordezkari baimenduek eskatu ahal izango dituzte, baldin eta aparkatzeko leku nahikoa ez duen bulego publiko batean jarduten badute.

9.2 Eskaeran zenbat plaza eskatzen diren adierazi beharko da, eta baita zehazki zer leku, ordutegi eta asteko egun eskatzen diren ere.



Erreserba hauek Udaleko Zirkulazio eta Garraio Sailak emango ditu, udaltzaingoa aldeko txostena egin ondoren.

9.3 Ohi bezala seinaleztatuko dira, eta "ibilgailu ofizialak" testu osagarria edukiko dute; zer erakunderi dagokion, eta behar denean, zer egunetan eta ordutan dagoen indarrean ere adieraziko da.

9.4 Erreserban bulegoari atxikitako ibilgailu ofizialek bakarrik aparkatu ahal izango dute, eta argi adierazi beharko dute ibilgailu ofizialak direla.

9.5 Erreserban segurtasunagatik edo beste arrazoi batzuk direla-eta, identifikatu gabeko beste ibilgailu batzuk aparkatu behar badira, testu osagarrian honela adierazi beharko da: "ibilgailu ofizialak eta baimenduak". Kasu horretan, ibilgailu baimenduei dagozkien matrikula zerrendak eta identifikatzeko datuak Udaltzaingoari igorri beharko zaizkio, hark beharrezko identifikazio-txartelak egin ditzan; txartel horiek ibilgailuen aurreko haizetakoan, ondo ikusten dela, jarri beharko dira. Txartel horiek urtebeteko balioa izango dute, eta urteko lehenengo hilabetean berritu beharko dira.

## **10.Artikulua Zerbitzu publikoan diharduten erakunde publikoen aparkaleku erreserbatutako gune-erreserba.**

10.1 Zerbitzu publikoan diharduten enpresek eskatuko dituzte.

10.2 Udaleko Zirkulazio eta Garraio Sailak bakarrik emango dizkie, Udaltzaingoa aldeko txostena egin ondoren, zerbitzu publikoan diharduten erakundeetako ibilgailuei; ibilgailuak ikur nabarmenen bitartez bereiziko dira, erreserba hauek zerbitzu publikorako bakarrik behar denean; edonola ere, baimendutako ibilgailuen zerrenda Udaltzaingoari igorriko zaio, hark dagokion identifikazio-txartelak egin ditzan, eta ibilgailuen aurreko haizetakoetan jarri beharko dituzte ondo ikusteko moduan; txartel horiek urtebeteko iraupena izango dute, eta urteko lehenengo hilabetean berritu beharko dira.

10.3 Ohi bezala seinaleztatuko dira, erakundearen izena eta erreserbaren ordutegia adierazten duen testu osagarriarekin.

10.4 Aipatutako erakundeari atxikitako langileen edo bertan lan egiten dutenen ibilgailu pribatuek ezin izango dute, inondik ere, bertan aparkatu.

## **11.Artikulua Gune-erreserba osasun-zentroen aurrean.**

11.1 Erreserba hauek eskatuko dituzte premiazko arreta behar duten gaixotasun-kasuak edo kalte fisikoak zaintzen dituzten osasun-erakunde eta zerbitzuetako arduradunek, edo ezindu fisiko edo psikikoak zaintzen



dituzten zerbitzuetakoek. Bestalde, zerbitzu medikuak egiteko ere gune-erreserbarako baimena eman ahal izango da.

11.2 Era honetako erreserbak Udaleko Zirkulazio eta Garraio Sailak emango ditu, udaltzaingoak aldeko txostena egin ondoren.

11.3 Era honetako erreserbak emateko ezinbesteko baldintza izango da Osasun Zentroaren inguruan aparkatzeko baimena duten guneak egotea, baldin eta osasun-esparruaren barruan lekurik ez badago.

11.4 Era honetako erreserbetan ezin izango da aparkatu, eta osasun-ibilgailuak bakarrik gelditu ahal izango dira, denbora luzeagoan aparkatzea behar dela justifikatzen den kasuetan izan ezik, beste gaixoak iristen direnerako lekuak libre egon behar baitu.

11.5 Ohi bezala seinaleztatuko dira, "osasun-larrialdiak", erreserbaren ordutegia eta erakundearen izena adierazten duen testu osagarriarekin.

11.6 Aipatutako erakundeari atxikitako langileen edo bertan lan egiten dutenen ibilgailu pribatuak ezin izango dute, inondik ere, bertan aparkatu.

## **12.Artikulua Bidaiariak garraiatzen dituzten zerbitzu erregularreko lineak kokatzeko gune-erreserba.**

12.1 Hirugarrenek aparkatzea debekatuta duten gune-erreserba mota hau eskatu ahal izango dute bidaiarien garraio erregularreko emakiden titular direnek; emakida hori gai horretan eskumena duten erakundeek eman ohi dute.

12.2 Lizentzia eskatzeko adierazi beharko da zer garraio-zerbitzutarako eskatzen den eta bidaiaria kopurua eta ordutegia, bidaiako ohiko autobus kopurua eta gehieneko kopurua, etab., eta baita eskatzen den gunea ere.

12.3 Lizentziak Udaleko Zirkulazio eta Garraio Sailak emango ditu, Udaltzaingoaren aldeko txostenaren ondoren; hark erreserbaren kokalekua zirkulaziorako eta sektoreko ibilgailuak aparkatzeko egokiagoa den beste batera aldatzea eska dezake, herriaren erdiguneko erreserbak gehiegi urruntzea saihesteko irizpidearen arabera.

12.4 Erreserbak ohi bezala seinaleztatuko dira, "bus" testu osagarriarekin.

## **13.Artikulua Eskolako autobusak ikastetxetik hurbil gelditzeko gune-erreserbak.**

13.1 Era honetako erreserbak eskatu ahal izango dituzte ikasleentzako eskola-garraioko zerbitzua behar bezala legeztatua duten ikastetxe,



institutu edo bestelako erakunde akademiko eta eskola erakundeetako titularrek edo zuzendariek.

13.2 Lizentziak Udaleko Zirkulazio eta Garraio Sailari eskatu beharko zaizkio, eta eskaeran adierazi beharko da zer garraio-zerbitzuetarako eskatzen den erreserba, ibilgailu kopurua eta ordutegia, ikasleen adina, etab., eta baita zer gune eskatzen den ere.

13.3 Erreserba hauek Udaleko Zirkulazio eta Garraio Sailak emango ditu, Udaltzaingoak aldeko txostena egin ondoren, eta soilik emango zaie udal-zerbitzu teknikoek irizten badiote ikastetxe barruan ez dagoela eskola-garraiorako ibilgailuak sartzeko adina leku.

13.4 Erreserbagunea, ahal bada, ikasleek galtzada zeharkatu gabe iristeko lekuan jarriko da, eta xede horretarako, ikastetxean ate berri bat zabaltzea agindu daiteke; erreserbaren ordutegia ikasleak sartzeko eta irteteko behar duten ordu erdiko lau tarteetara mugatuko da, eta soilik lanegunetarako izango da.

13.5 Erreserba hauek, adierazitako egunetan eta orduetan, eskola-garraiorako baimena duten autobusek bakarrik erabili ahal izango dituzte.

13.6 Erreserbak ohi bezala seinaleztatuko dira, "bus" testu osagarriarekin; kontrakoa adierazten ez bada, eskola-egunetan bakarrik egongo da indarrean.

#### **14. Artikulua Gune-erreserba herri barruko garraiorako zerbitzu publikoan diharduten autobusetarako.**

14.1 Udaleko Zirkulazio eta Garraio Sailak zehaztuko du non jarriko diren herri barruko autobusetarako geltokiak edo garraio periferikoko lineen geltokiak.

14.2 Era honetara seinaleztatuko dira:

14.2.1 Bi R-308 seinale jarriko dira, geltokiaren tarte mugatuz; seinaleen bazterrean "bus" esapidea idatziko da.

14.2.2 Bide-marka horiak, sigi-sagan.

14.2.3 Bi seinaleen artean geltokiari dagokion arauzko zutoina jarriko da, udalean ezarritako moduan eta kolorearekin, eta bertan adieraziko da itxaroteko lerroko lehenengo erabiltzaileak non egon behar duen eta non gelditu behar den autobusera sartzeko aurreko atea.



14.2.4 Noizbait, eta salbuespen gisa, autobus-geltoki bat jarri behar bada gelditzea debekatuta dagoen bideren batean, ez dira adierazitako seinaleak jarriko, zutoina eta bide-markak izan ezik; alabaina, R-307 debekuzko seinalean honela dioen testu osagarri bat erantsiko da: “busa izan ezik”.

14.3 Ordutegia iraunkorra izango da, baita jaiegunetan ere.

14.4 Eskola- edo lan-garraioak gelditzeko guneen erreserbak, ikastetxetik edo lanlekutik urrun daudenean, Udaleko Zirkulazio eta Garraio Sailak egokitzat hartzen dituen lekuetan jarriko dira, edo bestela, norbere ekimenez edo partikularren eskaeretatik abiatuta. Bi minutuz edo gutxiagoz gelditu ahal izango dira eskola- edo lan-garraioari dagozkion ezaugarriak betetzen dituzten ibilgailuak.

## **15.Artikulua Gune-erreserbak hotelen aurrean.**

15.1 Era honetako erreserbak hoteletako nagusiek edo zuzendariak eskatu ahal izango dituzte, Alkateari zuzendutako idatzi bidez, eta Udal Erregistroan aurkeztuta; hark eman egingo ditu egokitzat jotzen baditu, Udaleko Zirkulazio eta Garraio Sailaren txostenaren ondoren.

15.2 Erreserba emateko ezinbesteko baldintza izango da, batetik, hoteleko ate inguruan Zirkulazio Sailaren iritziz gune egoki bat egotea, eta bestetik, hotelak barruan ez edukitzea xede horretarako gunerik.

15.3 Erreserba hauek bakarrik erabiliko dira bidaiariak hotelera edo hoteletik garraiatzen dituzten automobilak geldi egoteko, gehienera hamar minutuz, eta debekatuta egongo da automobilak denbora gehiagoz aparkatuta uztea.

15.4 Ohi bezala seinaleztatuko dira, eta testu osagarri hau izango dute: “hotela”, hotelaren izena eta “hamar minutu gehienez” testua. Erreserbaren ordutegia iraunkorra dela ulertuko da, baita jaiegunetan ere.

15.5 Eskatzaileak zaindu beharko du, bere baliabideen bitartez, erreserba bere bezeroek soilik erabiltzen dutela. Salbuespen gisa, erreserbak baimena ematen dio eskatzaileari, behar izanez gero erreserbatutako gunea konoen, mugarren edo balizen bitartez mugatzeko; eta horiek eskatzaileak jarri edo kenduko ditu, gune hori dagokien ibilgailuek erabiltzen dutela bermatzeko.

## **16.Artikulua Gune-erreserbak trafiko-erakarpen handiko zentroen aurrean.**

16.1 Erreserba mota hauek publiko handia duten zentro publiko zein pribatuek eskatu ahal izango dituzte (zinema, antzokia, autobus-geltoki



pribatuak, ikuskizun-zentroak, eta bestelakoak, udal teknikariaren iritziaren arabera), baldin eta arrazoi horiegatik lokaleko ate aurrean ibilgailuak gelditzeko, ez aparkatzeko, lekua behar badute.

16.2 Erreserbak Udaleko Zirkulazio eta Garraio Sailak emango ditu, egokitzat hartzen baditu, Udaltzaingoak txostena egin ondoren.

16.3 Erreserba hauek emango dira, baldin eta zirkulazioaren ikuspegitik horiek jartzea posible dela ikusten bada, eta betiere lokalean sartzen den jende kopurua hirurehun lagunetik gorakoa bada.

## **17.Artikulua Minusbaliodunentzako guneen erreserbak.**

17.1 Aparkatzeko txartel-baimen berezia duten elbarrien ibilgailuak aparkatzeko gune-erreserbak Udaleko Zirkulazio eta Garraio sailak jarriko ditu:

17.1.1 Ofizioz, udal-zerbitzu teknikoek, Udaltzaingoak edo beste udal-organo batek bultzatuta, sektoreko eskaerak asetzeko erabiltzaileentzat erakarpen handieneko guneetan.

17.1.2 Elbarriekin lotura duten talde, elkarte edo erakundeek bultzatuta, aurreko ataleko arrazoi beragatik.

17.1.3 Norbanakoek eskatuta, behar pertsonalak asetzeko, eskatzailearen bizilekuaren edo lanlekuaren alboan.

Azken bi kasu horietan, erreserbak Udaleko Zirkulazio eta Garraio Sailak emango ditu, Udaltzaingoak txostena egin ondoren.

17.2 Aparkaleku eskusiboan aparkatzeko baimena emateko baldintzak honako hauek dira:

17.2.1 Errenteriako erroldan izena emanda egotea.

17.2.2 Aparkaleku eskusiboan aparkatzeko ibilgailuaren jabe izatea, eta desplazamenduetan eskatzaileak berak erabiltzea ibilgailua, edo ibilgailu baten jabe izatea, bere ardurapean duen pertsonak mugitzeko arazoak direla-eta ibilgailua behar badu.

17.2.3 Garraio publiko kolektiboak erabiltzea eragozten dioten mugikortasun arazoak dituela zehazten duen baremoaren barruan gutxienez 7 balioa edukitzea, edo bestela, baremo horretan A, B eta C sinboloak agertzea:

17.2.3.1. A: Aulki gurpildunetan mugitzen diren erabiltzaileak.



17.2.3.2. B: Batetik bestera mugitzeko nahitaz bi bastoi behar ditu.

17.2.3.3. C: Batetik bestera mugi daiteke, baina urritasun intelektual larriak ditu, garraio publikoko baliabide normalizatuak erabiltzea eragozten diotenak (ezindu psikikoak).

17.2.4 Eskatzaileak garajerik ez edukitzea edo bertara sartzeko zailtasunak edukitzea.

17.3 Behar pertsonalak asetzea xede duten erresebak emateko, ezinbestekoa izango da justifikatzea:

17.3.1 Erresebagunea lanlekuan edo bizilekuan dagoela.

17.3.2 Dagokion eraikinak ez duela aparkalekurik edo garajerik.

17.3.3 Eskatzaileak baduela Udalak ematen duen aparkatzeko txartel-baimen berezia.

17.3.4 Erreserba horiek bi urterako emango dira; epe hori igaro ondoren, ez bada luzapenik eskatzen, Udaleko Zirkulazio eta Garraio Sailak kendu egingo ditu seinaleak.

17.4 Aurkeztu beharreko agiriak.

17.4.1 Alkateari zuzendutako instantzia eskaera.

17.4.2 NANaren kopia.

17.4.3 Ibilgailuaren zirkulazio-baimenaren kopia.

17.4.4 Gidatzeko baimenaren kopia.

17.4.5 Ikuskaritza teknikoaren txartelaren kopia.

17.4.6 Minusbaliotasun Maila, Mugikortasun baremoaren balorazioarekin.

17.4.7 Erroldatze-ziurtagiria.

17.5 Prozedura.

Aparkatzeko erresebaren eskaerak ez baditu aurreko artikuluan aipatutako baldintzak betetzen, interesdunari eskatuko zaio hamar



eguneko epean falta dena konpon dezan edo ezinbesteko agiriak bidal ditzan.

17.6 Minusbaliodunei atxikitako ibilgailuentzako gune-erreserbaren emakidak bi urteko iraupena izango du; epe hori igaro ondoren, urtebeteko hurrenez hurreneko luzapenak eskatu ahal izango ditu, aurretik justifikatzen bada erreserba sortzeko eskaeraren eskatzen zitzaizkion baldintzak ez direla aldatu.

17.7 Erreserbak, nahitaez, erreserba eman aurretik aparkatzeko baimena zuten lekuetan jarri beharko dira.

17.8 Erreserbak, baita pertsona baten eskaeraren ondoriozkoak ere, ez dira eskusiboak erabilerari dagokionez, eta txartel-baimena duen edozein minusbaliodunek erabili ahal izango ditu.

17.9 Aparkatzeko erreserba emateko baldintzak:

17.9.1 Aparkatzeko erreserben emakida eskatu ahalekoa izango da, prekarioan eta hirugarrenei kalterik eragin gabe. Edonola ere, eskaera norako eskatu den kontuan hartuta, inguru horretan aparkatzeko erabil litekeen plaza kopuruak baldintzatuko du eskaera.

17.9.2 Aparkatzeko erreserba emateak ez du inolako eskubide subjektiborik sortzen, beraz, erreserbaren amaiera hitzartuz gero, ez da inolako kalte-ordainik ordaindu beharko.

17.10 Udalak beretzat du gordeta erreserbak kentzeko, lekuz aldatzeko edo murrizteko ahalmena, espazioan zein denboran, baldin eta ez badira behar adina erabiltzen edo zirkulazio egokiaren kontrakoak badira.

17.11 Erreserbatutako gunea mugatzeko R-308 motako bi seinale jarriko dira, erreserbaren "P" letrarekin eta erdian ezindu fisikoen nazioarteko anagramarekin. Dagokionean, erreserba zein ordutan eta egunetan dagoen indarrean adierazten duen testu osagarria jarriko da. Osatzeko bidean marra horiak marraztuko dira, sigi-sagan.

17.12 Emakida baliogabetzeko arrazoiak honako hauek izango dira.

17.12.1 Iruzurra edo gehiegikeria; Udalak egiaztatzen badu aparkatzeko baimena duen ibilgailuaren erabiltzailea ez dela minusbalioa duen pertsona bera.

17.12.2 Norbaitek garraio publiko kolektiboak erabiltzea eragozten duten mugikortasun arazoak dituen zehazten duen baremoan





gutxienez 7 balioa edukitzea, edo bestela, baremo horretako A, B eta C sinboloen bitartea adierazteko egoerak desagertzea:

### **18.Artikulua Taxi-geltokietarako guneen erreserbak.**

18.1 Taxi-geltokietarako guneen erreserbak Udaleko Zirkulazio eta Garraio Sailak emango ditu, Taxien Araudiaren arabera, taxi-erakundeek eta elkarteek eskatuta, eta bide publikoan dagoen eskaerari erantzunez, Udaltzaingoa aldeko txostena egin ondoren.

18.2 Erreserba mota hauen nolakotasuna prekariora izango da, eta lekuz aldatu ahal izango da, eta handitu edo gutxitu, Udalak egoki edo komenigarri deritzon eraginkortasun arazoak direla-eta, eskaera gorabeherak edo zirkulazioan afekzioak gertatu badira. Bestalde, ez badira behar bezala erabiltzen, Udaleko Zirkulazio eta Garraio Sailak kendu ahal izango ditu, Udaltzaingoa aldeko txostena egin ondoren.

18.3 Udaleko Zirkulazio eta Garraio Sailak jarriko ditu seinaleak, eta gunea mugatzeko S-18 motako bi seinale jarriko ditu, eta bide-marka horiak, sigi-sagan.

### **19.Artikulua Beste erreserba mota batzuk.**

Alkatetzak beste gune-erreserba batzuk eman ahal izango ditu, Udaleko Zirkulazio eta Garraio Sailak eta Udaltzaingoa txostenak egin ondoren, ekimen pribatu edo publiko bidez, egoki deritzen baldintza partikularrekin.

### **20.Artikulua Ekimen pribatu bidezko erreserben baja.**

Aparkatzeko erreserba baimenduei Udaleko Zirkulazio eta Garraio Sailak eman ahal izango die baja, interesdun batek halakorik eskatzen duenean:

20.1 Eskatzaileak eskatuta; kasu horretan, interesdunak kendu eta borratu ahal izango ditu dagozkion seinaleak.

20.2 Udaleko Zirkulazio eta Garraio Sailaren ebazpen bidez (udalaren intereserako hainbat arazoirengatik beharrezkoa bada); kasu horretan Udalak kenduko du bere kontura.

### **21.Artikulua Ekimen pribatu bidezko erreserben eskatzaileak dituzte beste betebeharrak batzuk.**

21.1 Erreserbaren titular diren negozio edo erakundearen titular-aldaketarik sortzen bada, edo horiek erreserbaren ordutegia edo egoera aldatzea eskatzen badute, tramitea lehenengo eskaeran egin beharrezkoaren berdina da; kasu horretan, baimenaren esleipendunen betebeharra izango da



Udaleko Zirkulazio eta Garraio Sailari gorabehera horien berri ematea.

21.2 Ekimen pribatu bidezko erreserba baten seinaleztapena ez badago egoera ezin hobean, Zirkulazio Sailak eskatzaileari hamabost eguneko epean ondo jartzeko eskatu ahal izango dio; beteko ez balitz, Udaleko Zirkulazio eta Garraio Sailak erabaki dezake seinaleztatze lanak berak egitea eta lan horri dagokion zordunketa erreserbaren esleipendunari bidaltzea; edo erreserbaren emakida kentzea ere erabaki dezake.

21.3 Udaltzaingoak egindako txartela baimendutako ibilgailua ez den beste batean erabiliz gero, dagokion arau-hausteaz gainera, kendu egingo da emandako txartela.

## **22.Artikulua Arau-haustek**

Ordenantza hau indarrean jartzen denean, aparkatzeko plazak dituzten eta lau gurpileko ibilgailuak gordetzeko xedea duten garajeen titularrek, horiek 3 ibilgailu edo gehiagorentzako lekua dutenean, eta ez dutenean pasatzeko erreserbari dagokion lizentziarik, pasatzeko erreserbaren lizentzia eduki beharko dute; lizentzia hori Udalean eskatu beharko dute.

Ordenantza hau hausten da:

22.1 Eranskin honen 5.1 artikuluan aipatzen den pasatzeko erreserbaren derrigorrezko lizentzia lortzen ez denean.

22.2 Lokalaren, industria edo merkataritza establezimenduaren titulartasunean sortutako edozein aldaketa jakinarazten ez denean.

22.3 Pasagune-erreserban baja eman izanaren berri ematen ez denean, Eranskin honen 5.10.7. artikuluan adierazten denaren arabera.

22.4 Galtzada ez dagoenean behar bezala zainduta.

22.5 Seinale-diskoak ez daudenean behar bezala zainduta.

22.6 Emandako baimena deuseztatuz gero, espaloia eta zintarria jatorriz zegoen bezala jartzen ez bada.

22.7 Udaltzainei edo udal-teknikariei ez bazaie lokaletara sartzen uzten, beharrezko egiaztapenak eta/edo ikuskaritza-lanak egiteko.

## **23.Artikulua Zigorrak**

22. artikuluan aipatzen diren arau-hausteei gehienera 300 €-ko zigorra ezarri ahal izango zaie, dagokion zigorren taulan adierazten denaren arabera.



## **4. ERANSKINA**

### **ERRENTERIAKO UDALERRIAN ZIRKULATZEKO ETA APARKATZEKO BAIMEN BEREZIAK EMATEARI ETA ERABILTZEARI BURUZKO ARAUAK**

#### **I. KAPITULUA**

##### **ARAUEN XEDEA ETA EDUKIA**

###### **1. Artikulua**

Arau hauen xedea da Errenteriako Udalak egoera berezietan bide publikoetan zirkulatzeko, gelditzeko eta lanak egiteko ematen dituen baimenak eskatzeko, izapidetzeko, emateko eta erabiltzeko oinarriak, baldintzak eta arauak zehaztea.

###### **2. Artikulua**

Arau hauek udalerriko bide publiko guztiei dagozkie; baina ez dira arau hauen mende egongo beste jabegoren bat izanik (Gipuzkoako Foru Aldundia edo Bide Pribatuak) Udalak ustiatzen ez dituen bideak.

#### **II. KAPITULUA**

##### **BAIMEN MOTAK**

###### **3. Artikulua**

Arau hauek Alkatetzak, Udaltzaingoak eta Udaleko Zirkulazio eta Garraio Sailak honako arlo hauetan ematen dituzten baimen guztiak barne hartzen dituzte:

- 3.1 Oinezkoentzako gunee gisa seinalizatutako edo urbanizatutako guneeetan zirkulatzeko baimenak.
- 3.2 Bide-seinaleek edo Zirkulazioko Ordenantza Orokorrek zehazten duten baimendutako gehieneko pisu osoa baino pisu handiagoa duten ibilgailuetarako zirkulazio-baimenak.
- 3.3 Zamalanak Zirkulazioko Ordenantza Orokorrek aipatzen dituen bestelako baldintza batzuetan egiteko baimenak.
- 3.4 Bide publikoan ibilgailuen edo oinezkoen zirkulazioari eragiten dioten eta seinaleak eta balizak ezartzea eskatzen duten lanak egiteko baimenak.
- 3.5 Bide publikoan zirkulazioa eragozten duten lanak edo okupazioak direla-eta ibilgailuen zirkulazioa eteteko kale-mozketak egiteko baimenak.



- 3.6 Bide Segurtasuneko Legeak edo indarrean dagoen araudiak zehazten dituzten pisua edo neurriak gainditzen dituzten garraio berezietarako zirkulazio-baimenak.
- 3.7 Udalerriko bide publikoetan barrena salgai arriskutsuak garraiatzeko zirkulazio-baimenak.
- 3.8 Aparkatzea oro har debekatuta dagoen guneeetan aparkatzeko baimen berezia.

### **III. KAPITULUA**

#### **OINEZKOENTZAKO GUNE GISA SEINALEZTATUTAKO EDO URBANIZATUTAKO GUNEETAN ZIRKULATZEKO BAIMENAK**

#### **4. Artikulua**

Ibilgailuek zirkulazio- eta, hala dagokionean, aparkamendu-baimen bereziak beharko dituzte honako gune hauetara sartzeko: Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean oinezkoentzako gune gisa urbanizatutako kale edo guneak, oinezkoentzako kale gisa, zirkulazio murriztuko kale gisa edo oinezkoentzako gune gisa sailkatuta daudenak eta zirkulatzeko debekuaren seinalea dutenak, seinalearen testu osagarriak aipatzen dituen salbuespenak kenduta.

#### **5. Artikulua**

Ez dute baimenik beharko:

- 5.1 Zamalanak egin behar dituzten ibilgailuek, honako baldintza hauek betetzen badira: lanak egin nahi diren gune horretan zamalanak egitea baimenduta egotea eta zirkulatzeko debekuaren seinalearen testu osagarrian espresuki adierazita egotea; zamalanak baimendutako ordutegian egitea, baimendutako gehieneko pisua 3,5 tonakoa duten ibilgailuekin; eta lanek hamabost minutuko tartea hartzea, gehienez ere.
- 5.2 Udal-zerbitzuen ibilgailuek (Hiriko Mantentze-lanak, Udaltzaingoa, Kale Garbiketa, Zabor Bilketa, etab.), betiere, 26 tonako pisua gainditzen ez badute.
- 5.3 Larrialdietako ibilgailuek (su-hiltzaileenek, anbulantziek, etab.)
- 5.4 Segurtasun Zerbitzuen ibilgailuek.

#### **6. Artikulua**

Arau hauetan zehazten den baimen berezia beharko dute:



- 6.1 Sarbidea duten garaje eta saltokien jabeen ibilgailuek, ibi-baimena izanez gero eta seinalearen testu osagarrian honako zehaztapen hauetako bat agertuz gero: “Garajeetara sartzeko izan ezik” edo “Baimendutako sarbideetarako izan ezik”.
- 6.2 Egoiliarren ibilgailuek, etxebizitzaren atari aurrera sartu eta han bi minutu baino gutxiagoko geldialdia egiten badute, eta seinalearen testu osagarriak honako hau badio: “Baimendunak izan ezik”.
- 6.3 Zerbitzu publikoen emakidadunen edo kontratisten ibilgailuek (gasa, telefonoak, elektrizitatea, etab.).
- 6.4 Minusbaliodunen, gaixoen edo ezinduen ibilgailuek, bizitokia duten kalean zirkulatzeko.
- 6.5 Aldi batez 5. Artikuluan adierazitako ordutegia, iraupena edo pisu-muga gainditzen duten zamalanak egin behar dituzten ibilgailuek.

## **7. Artikulua**

Bi eratako baimenak emango dira:

### **7.1 Urte osorakoak.**

- 7.1.1 Urte naturalaren barruan, eta baimenean zehaztutako egun, data eta ordutegietan, zirkulatzeko eta aparkatzeko baimena ematen diete ibilgailuei.
- 7.1.2 Baimendutako gehieneko pisua 3,5 tonatik gorakoa duten ibilgailuei Zirkulazio eta Garraio Sailak emango die baimena, Udaltzaingoak aldeztutako aurretik txostena aurkeztuta. Baimendutako gehieneko pisua 26 tonatik gorakoa duten ibilgailuek, berriz, Udaleko Zirkulazio eta Garraio Sailaren txostena beharko dute.
- 7.1.3 Baimen hauek Eranskin honetako 6. artikuluko 6-1, 6-2, 6-3, 6-4 kasuetan emango dira, bertan aipatzen diren baldintzak betetzen direnean; baita Zirkulazio eta Garraio Sailak behar bezala balioetsitako ez-ohiko egoera guztietan ere.
- 7.1.4 Baimena banakakoa nahiz taldekoa izan daiteke; taldeko baimena emango zaie, hain zuzen, bizilagun-elkarteei, garajeen jabeei, etab. Edonola ere, beti agertu beharko dute baimenean onuradunaren eta ibilgailuaren titularraren izenek.

### **7.2 Eguneko baimenak.**

- 7.2.1 Ibilgailu bati une jakin batean jarduera berezi bat egitera sartzeko baimena ematen diote.



7.2.2 Udaltzaingoa ematen ditu, zuzenean, interesdunak hala eskatuta; eskaria egiteko, sozietatearen izena, ibilgailuaren matrikula eta eskaria egiteko arrazoa aipatu beharko ditu interesdunak.

7.2.3 Era honetako baimenak Eranskin honetako 6. artikuluko 6-5 kasurako emango dira, honako kasu hauetan eta antzekoetan:

- Altzarien garraioa.
- Makina edo erregaien zamalanak.
- Eraikuntza-materialen zamalanak.
- Udaltzaingoa bidezko irizten dien beste kasu batzuk.

7.2.4 Baimena zer ordutegitarako ematen den adierazi beharko da; ahal izanez gero, 7.00ak eta 17.00ak bitarterako soilik emango da.

7.2.5 Eskaria baimendutako gehieneko pisua 26 tonatik gorakoa duen ibilgailu batentzat egiten bada, Udaleko Hirigintza Sailaren alde aurretiko txostena beharko da.

## **8. Artikulua**

Kasu guztietan, istripuak saihesteko hartu beharreko badaezpadako neurri guztiak hartuta zirkulatu beharko da, 10 km/h-ko gehieneko abiaduran.

## **IV. KAPITULUA**

### **BIDE SEINALEEK EDO ZIRKULAZIOKO ORDENANTZA OROKORRAK ZEHAZTEN DUTEN BAIMENDUTAKO GEHIENeko PISU OSOA BAINO PISU HANDIAGO DUTEN IBILGAILUETARAKO ZIRKULAZIO BAIMENAK**

## **9. Artikulua**

Baimendutako gehieneko pisua 12,5 tonatik gorakoa duten eta Errenteriako Ordenantzako 18-5. Artikuluaren arabera herri barruan eta beste gune batzuetan zirkulatzea eta aparkatzea debekatuta duten ibilgailuek baimen berezia eskuratu ahal izango dute zirkulatzea eta aparkatzea debekatuta dagoen eta debeku hori behar bezala seinaleztatuta dagoen kaleetan zirkulatzeko eta aparkatzeko. Baimen berezi hori hurrengo artikuluen arabera arautuko da.

## **10. Artikulua**

Ez dute baimenik beharko:

10.1 Udal-zerbitzuen ibilgailuek (bidezaintza, parke eta lorategiak, argiztapena, kale-garbiketa, su-hiltzaileak, etab.).



10.2 Herri barruko garraio kolektiboko autobusek eta eskatu ahalako garraio zerbitzuetako autobusek.

## **11. Artikulua**

Bi eratako baimenak emango dira:

### **11.1 Urte osorakoak.**

11.1.1 Urte naturalaren barruan, eta baimenean zehaztutako egun, data eta ordutegietan, zirkulatzeko eta aparkatzeko baimena ematen diete ibilgailuei.

11.1.2 Justifikazio berezirik ezean, eta Ordenantza Orokorreko 19-5. eta 20-3. artikuluek diotenari jarraituz, honako ordutegi hauetarako baimena eskuratu ahal izango da: 9.00etatik 12.00etara, 14.00etatik 17.00etara eta 21.00etatik 7.00etara.

11.1.3 Baimenak Eranskin honetan zehazten den moduan emango dira, Udaltzaingoak eta Udaleko Zirkulazio eta Garraio Sailak dagokien txostenak eginda.

Eskaria baimendutako gehieneko pisua 44 tonatik gorakoa duen ibilgailu batentzat egiten bada, Udaleko Hirigintza Sailaren aldez aurretiko txostena beharko da.

Horretan salbuespen izango dira ardatzeko 13 tona baino gutxiagoko pisua duten garabi-ibilgailuetarako baimenak; izan ere, horiek emateko ez da beharko Udaleko Hirigintza Sailaren aldez aurretiko txostenik.

Udaleko Hirigintza Sailak Udaltzaingoari eta kudeaketa-zerbitzuei adieraziko dizkie garabi-ibilgailuei zirkulazio-baimenak emateko kontuan hartu beharreko irizpideak eta baldintza orokorrak, baita muga berezia behar duten tokietan onartzeoak diren gehieneko pisuak ere.

11.1.4 Baimenak emateko, ezinbestean adierazi beharko dira ibilgailuaren ezaugarriak eta pisua, baita ibilgailu hori debekatutako gunean nola eta zenbatean behin erabiliko den ere; gainera, periodikotasun hori justifikatu beharko da, eta orobat justifikatu beharko da pisu gutxiagoko ibilgailuak erabiltzeko ezintasuna edo horrek ekarriko lukeen garestitzea, baita zama zatitzeko ezintasuna ere.

11.1.5 Adibide modura, honako xede hauetarako baimenak ematea joko da justifikatutzat:

11.1.5.1. Etxeko berokuntzarako erregaien hornidura.



11.1.5.2. Eraikuntza-materialen hornidura (hormigoia, agregatuak, adreiluak, burdinak, etab.)

11.1.5.3. Eraisteak, lurra erauztea eta hustea.

11.1.5.4. Garraioa edo zamalanak, garabi-kamioiekin edo ibilgailu bereziekin.

11.1.5.5. Udalaren aburuz ezinbestekoak diren beste zerbitzu batzuk.

## 11.2 Eguneko baimenak:

11.2.1 Ibilgailu horietarako eguneko baimenak Udaltzaingoak emango ditu, zuzenean.

11.2.2 Baimena eskatzeko, honako hauek adierazi beharko dira: ibilgailu mota, matrikula, baimendutako gehieneko pisua eta, hala dagokionean, non aparkatuko den.

11.2.3 Eguneko baimenek urte osorako baimenen ordutegi bera izango dute.

11.2.4 Eskaria baimendutako gehieneko pisua 44 tonatik gorakoa duten ibilgailuetarako egiten bada, Udaleko Hirigintza Sailaren aldez aurretiko txostena beharko da.

Horretan salbuespen izango dira ardatzeko 13 tona baino gutxiagoko pisua duten garabi-ibilgailuetarako baimenak; izan ere, horiek emateko ez da beharko Udaleko Hirigintza Sailaren aldez aurretiko txostenik.

Udaleko Hirigintza Sailak Udaltzaingoari adieraziko dizkio garabi-ibilgailuei zirkulazio-baimenak emateko kontuan hartu behar diren irizpideak eta baldintza orokorrak.

Hirigintza Sailak muga berezia behar duten kokalekuetan onartzekoak diren gehieneko pisuak adieraziko dizkio Udaltzaingoari.

11.2.5 Ibilgailuak baimen berezia behar duten zamalanak egiteko zirkulazio-eta aparkamendu-baimena behar izanez gero, bi jardueretarako baimen bateratua emango zaio.

## V. KAPITULUA

### ZAMALANAK ZIRKULAZIOKO ORDENANTZA OROKORRAK AIPATZEN DITUENEZ BESTELAKO BALDINTZA BATZUETAN EGITEKO BAIMENAK

## 12. Artikulua





Zamalanak Zirkulazioko Ordenantza Orokorreko 12. Artikuluak dioenari jarraituz egin beharko dira. Ibilgailuren batek, salbuespen gisa, lan horiek Ordenantzak dienez bestelako egoera batean egin behar izanez gero, eguneko baimen bana eskatu beharko da era horretako lanak egin behar dituen aldiko. Udaltzaingoak emango ditu baimen horiek, hurrengo artikuluek diotenari jarraituz.

### **13. Artikulua**

Ohiko zamalantzat joko dira Ordenantza Orokorreko 12-3. atalean zehaztutako baldintzetan egiten direnak (lokalen barruan, erreserba jakinetan, eta ibilgailuak espaloi ertzean behar bezala aparkatuta, oinezkoen pasabideetan, bidegurutzetan, garraio publikoaren geralekuetan, etab., eragozpenik sortu gabe; edo zirkulazioa edo gidari edo oinezkoen ikusmena eragozten den tokietan, eta ordutegi jakin batzuetan, gelditzeko debekua, aparkatzeko debekua edo aparkatzeko askatasuna dagoen kontuan hartuta).

### **14. Artikulua**

Baimendutako gehieneko pisua 5,5 tonakoa duten ibilgailuek ez dute inolako baimenik beharko ohiko zamalanak egiteko; ez dute horretarako ordutegi mugaturik ere izango, aparkatzea baimenduta dagoen tokietan; zirkulazio ez-intentsiboko ordutegietan jardun beharko dute, aparkatzea debekatuta dagoen tokietan; eta 23.00etatik 7.00etarako ordutegian jardun beharko dute, gelditzea debekatuta dagoen tokietan.

### **15. Artikulua**

Baimendutako gehieneko pisua 5,5 tona eta 12,5 tona bitartekoa duten ibilgailuek zirkulazio ez-intentsiboko ordutegian soilik egin ahal izango dituzte ohiko zamalanak, edozein bide mota dela ere. Salbuespen gisa, eta Udaltzaingoak onartuz gero, eguneko baimena eskuratu ahal izango dute zirkulazioan gorabehera handirik gertatuko ez den bideetan beste ordutegi batzuetan jarduteko. Egun batetik gorako baimenari edo baimen iraunkorrari dagokionez, Udaleko Zirkulazio eta Garraio Saila izango da era horretako baimena emateko organo iraunkorra.

### **16. Artikulua**

Baimendutako gehieneko pisua 12,5 tonatik gorakoa duten ibilgailuek ibilgailu astunei dagokien zirkulazio-baimena, urte osorakoa nahiz egunekoa, eskuratu dute ohiko zamalanak egiteko.

Salbuespen gisa soilik, Udaltzaingoak onartuz gero, eta aurreko artikuluan esan den moduan, zirkulazio ez-intentsiboko ordutegitik kanpo jarduteko baimena eskuratu ahal izango dute.

### **17. Artikulua**



Honako hauek hartuko dira ez-ohiko zamalantzak: iraupena, ordutegi behartua, okupatu beharreko bide motak edo ibilgailu nahiz oinezkoen zirkulazioarekiko eragina direla-eta, Udaltzaingoaren zuzeneko ikuskaritza, kontrola edo zaintza eskatzen dutenak. Adibide gisa, batzuk aipatzearen:

17.1 Erregaien zamalanak.

17.2 Altzarien garraioa.

17.3 Zirkulatzeko errei bat baino tarte zabalagoa behar duten ibilgailu bereziekin egin beharrekoak, edo garabiak, txirrikak, zinta garraiatzaileak, dibidietak eta espaloi edo galtzadan beste instalazio batzuk ezartzea eskatzen dutenak.

17.4 Aparkatzeko gune espezifiko bat aldeztatik plaka mugigarrien bidez seinaleztatu eta erreserbatzea eskatzen dutenak.

17.5 Oinezkoentzako kaleetan egin beharrekoak edo espaloia parte batean edo erabat okupatzea dakartenak.

17.6 Lanak egiten diren bidean edo zirkulazio-noranzkoan zirkulazioa etetera behartzen dutenak.

17.7 Eraikuntza-materialen zamalanak, honako hauek barne: hormigoia ponpatzea, lurra erauztea edo hustea, edo hondeatze-lanetako lurra ateratzea, makinekin, eta kamioietan garraiatzea.

## **18. Artikulua**

Ez-ohiko zamalanak egiteko, eta Zirkulazioko Ordenantza Orokorreko 12-3-5. Artikuluak dioenari jarraituz, Udaltzaingoa emandako eguneko baimen berezia beharko da; baimen horretan baldintzak, seinaleen erabilera, egutegia, ordutegia eta poliziaren zaintza behar den adieraziko da. Baimen hori lanak egiten hasi baino berrogeita zortzi ordu lehenago eskatu beharko da, eta eskaria egiten duen enpresak ibilgailuaren matrikula eta ezaugarriak, zamalanak non egingo diren eta lanek gutxi gorabehera zenbat iraungo duten zehaztu behar du.

## **19. Artikulua**

Baimen horietan, bide publikoan gune bat erreserbatzeko baimena ere sartu ahal izango da; halakoetan, aparkatzeko debekua adierazi beharko da aldeztatik, gehienez ere 20 metro luzeko tarte hartuta eta arauko seinale mugigarrien bidez.

## **20. Artikulua**

Mudantza-enpresek, erregai-enpresek, eraikuntza-materialen hornitzaileek, garraio-enpresek, zerbitzu-enpresek eta abarrek seinale mugigarrien bidez gune-erreserbak



egiteko urte osorako baimen bat eskuratu ahal izango dute, zerga-ordenantzen testu arautzaileak dienerari jarraituz. Seinaleen ertzean edo plaka osagarrian enpresaren izenak agertu behar du, eta, hala dagokionean, debekuaren eguna eta orduak adierazten dituen testu osagarria ere erantsi beharko zaie.

## **21. Artikulua**

Udaltzaingoaren kontrolpean egiten diren lanetan, haren jarraibideak bete beharko dira; baliteke jarraibide horietan zirkulazioaren egoeraren arabeko aldaketak edo egokitzapenak egin behar izatea, eta baliteke lanak bertan behera utzi behar izatea ere, hala behar izanez gero.

## **22. Artikulua**

Udaltzaingoak zuzenean ikuskatu beharrik ez duten lanak egiteko, baimenean adierazitakoari jarraituko zaio, eta honako baldintza hauek kontuan hartuko dira, oro har:

22.1 Ibilgailuen zirkulazioa bermatu beharko da, beti, eta, hala behar izanez gero, aparkatzeko debekua ezarri ahal izango da, aldez aurretik, gehienez ere 20 metro luzeko tartean eta dagokien seinale mugigarriak erabiliz.

22.2 Espaloia okupatu edo erabilgaitz utzi behar izanez gero, hesiz babestu beharko da okupatutako eremu guztia; baimena eskatzen duenarentzat ari diren langileek bideratuko dituzte oinezkoen joan-etorriak, pareko espaloira gurutzatu behar dutela adieraziz. Lanek ordubetetik gorako iraupena izango badute, oinezkoentzako pasagune babestu bat eratu beharko da galtzadan, elkarri lotutako hesien bidez; pasagune horrek 1,50 zabalera behar du izan eta kaltetutako eremu guztia inguratu behar du. Galtzadan okupatuko den tartea luzetara aparkatzeko muga baino tarte handiagoa hartuko badu, aldez aurretik iragarri beharko da egoera hori, abiadura-mugaren, estugunearen eta desbideratzearen seinaleak jarritz.

22.3 Ez da onartuko espaloian edo galtzadan zamarik dilindan edukitzerik, baldin eta zamak eroriz gero hartuko luketen tarte guztia hesiz babesten ez bada.

22.4 Galtzadan egin beharreko maniobrak kontu handiz egin beharko dira, eta, hala behar izanez gero, langile laguntzaile batek zirkulazioa etengo du, arauko eskuko seinaleez lagunduta.

22.5 Hormigoia ponpatzeko edo antzeko eragiketarako egiteko hodiak espaloiko zoladuraren mailan jarri beharko dira; horien gainean ohol bat jarriko da, oinezkoek ponpatze-hodien gainetik inolako arriskurik gabe igarotzeko modua izan dezaten.



22.6 Ibilgailua, osorik edo parte bat, espaloian aparkatu behar bada, eta 30 tonatik gorako pisua badu, Udaleko Hirigintza Sailak eman beharko du lanak egiteko baimena, zoladuran gerta daitezkeen gorabeherak kontrolatzeko eta dagokien bermeak ezartzeko; babes-xaflak ezartzeko ere eskatu ahal izango du, hala behar izanez gero.

### **23. Artikulua**

Oinezkoentzako bideetan zamalanak egiteko, nahikoa izango da Eranskin honetako 7. artikuluko 7.2. atalean aipatzen den oinezkoentzako guneetan zirkulatzeko eguneko baimena, honako bi kasu hauetan izan ezik: ibilgailuaren baimendutako gehieneko pisua 12,5 tonatik izatea edo Udaltzaingoa oinezkoen joan-etorrietan eragin handia edo bide-arriskua sor daitekeela iriztea.

### **24. Artikulua**

Kale batean edo kale bateko noranzko batean zirkulazioa etetea eskatzen duten zamalanak egiteko, zamalanetarako baimenaz gainera, kalea mozteko baimen berezi bat beharko da, Eranskin honetako VII. Kapituluari aipatzen dena.

### **25. Artikulua**

Zamalanetan materialak edo altzariak gailu berezien bidez altxatzea eskatzen duten mudantzak egiteko, eta Zirkulazioko Ordenantza Orokorreko 12.3.5 Artikulua dioenari jarraituz, gailu horiekin jarduteko baimen berezia beharko da, eta artikulua horretan zehazten diren baldintza guztiak bete beharko dira. Baimen generikoa izango da, eskaria egiten duenak egin beharreko eragiketa guztietarako baliagarria; Alkatetzak emango du horien gaineko ebazpena, dagokien zerbitzu teknikoaren txostena aztertuta; urte osorako balioa izango du, eta urtea amaitutakoan berriztatuta ahal izango da. Baimen generikoa Udaltzaingoa erakutsi beharko zaio, ez-ohiko zamalanak egin behar direla-eta, toki eta egun jakin baterako baimena eskatzen bada eta lanak egiteko artikulua honetan aipatutako gailu horietakoren bat erabili behar bada.

## **VI. KAPITULUA**

### **BIDE PUBLIKOAN IBILGAILUEN ETA OINEZKOEN ZIRKULAZIOARI ERAGITEN DIOTEN ETA SEINALEAK ETA BALIZAK EZARTZERA BEHARTZEN DUTEN LANAK EGITEKO BAIMENAK**

### **26. Artikulua**

Bide publikoan ibilgailuen edo/eta oinezkoen zirkulaziorako espazioa murriztea dakarten lanetarako eta behin-behineko bestelako okupazio batzuetarako, edo Udalaren eskumeneko bideetan oinezkoen eta ibilgailuen pasabidea nola edo hala eragozteko edo zailtzeak dakarten lanetarako, Udaleko Zirkulazio eta Garraio Sailaren



baimen espezifikoa beharko da, udal-baimenaz edo, hala dagokionean, Udaleko Hirigintza Sailaren aldez aurreko baimenaz gainera. Baimen berezi horretan honako hauek zehatu beharko dira: okupazioaren iraupena eta, bide publikoen erabilera arruntari begira, lanak egitean ezarri beharreko seinaleztapena eta bete beharreko baldintzak.

## **27. Artikulua**

Zirkulazioari eragiten dioten lanak direla-eta bide publikoa okupatzea.

27.1 Bide publikoan lanak edo bestelako okupazioak (edukiontzia, obrako etxolak, garbiketa-gailuak, zerbitzuen arketak konpontzeko edo ikuskatzeko gailuak, etab.) egin nahi dituen pertsonak edo erakundeak udal-ordenantzek diotenaren arabeko udal-baimena eskuratu beharko du, aldez aurretik.

Baimena eskuratutakoan, Udaleko Hirigintza Sailak obra bakoitzerako baimen bat emango du; lanen nondik norakoa, kokalekua, nolakotasuna, udal-baimenaren erreferentzia eta lanen iraupena zehaztuko dira baimen horretan.

27.2 Udaleko Hirigintza Sailaren baimena Udaleko Zirkulazio eta Garraio Sailari erakutsi behar zaio, okupazio-baimena eta zirkulazioaren eraginaren arabeko seinaleztapen-baimena eman dezan.

27.3 Zirkulazio Sailaren baimena eskuratzeko ezinbesteko baldintza izango da Hirigintza Sailaren baimena edukitzea. Bi baimen horiek, berezita, baliogabeak izango dira eta biak aurkeztu beharko dira, kontrol-zereginetarako.

27.4 Udaleko Zirkulazio eta Garraio Sailaren baimenaren kopia bat Udaltzaingoiari bidali behar zaio, baimena ematen denetik hogeita lau orduko epearen barruan, informazio eta kontrolerako.

27.5 Zerbitzu horren aburuz lanak edo okupazioak direla-eta zirkulazioan edo garraio publikoan eragin larria sortuko bada, ez du baimena zerbitzu horrek zuzenean emango; Zirkulazio eta Garraio Sailari jakinaraziko zaio, Alkatetza-Lehendakaritzak ebazpena eman dezan. Halakoetan, Alkatetza-Lehendakaritzak hainbat bide har ditzake: lanak proposatzen den moduan onartzea, lanak egiteko epea laburtzea edo zirkulazio gutxiagoko beste urte-saso batzuetara atzeratzea. Era berean, zirkulazioaren gaineko eragina arintzeko alternatiboak edo ez-ohiko arautze-neurriak ezarri ahal izango ditu.

## **28. Artikulua**



Obrak egiten dituen pertsonak edo erakundeak okupatutako eremua zedarritu eta hesitu beharko ditu, kapitulu honetako artikuluek, baimen bereziek eta Udaleko Zirkulazio eta Garraio Sailak seinaleztapenari buruz diotena betez.

### **29. Artikulua**

Era berean, lanek irauten duten denboran seinaleak behar duten moduan eta gidari nahiz oinezkoek ikusteko moduan daudela ziurtatu beharko du.

### **30. Artikulua**

Obren kontratistak edo egileak izango du behin-behineko seinaleztapenaren ardura. Udalak, Zirkulazio eta Garraio Sailaren eta Udaltzaingoaren bitartez, seinaleztapenari buruzko jarraibideak zehatz-mehatz betetzen direla zainduko du, eta isunak ezarriko ditu arau-hausterik gertatuz gero. Era berean, pertsoneri edo gauzei kalteak eragiteko arriskua sortuz gero, kalte horiek ekiditeko beharrezko neurriak hartuko ditu, obren kontratistari edo egileari dagozkion erantzukizunak eskatzearen kalterik gabe.

### **31. Artikulua**

Seinaleztapenari buruzko jarraibideak betetzeko eta horiek mantentzeko ardura pertsona, enpresa edo erakunde baimendunarena izango da, eta bere jarduerak hirugarrenei sortzen dizkien kalte guztiak estali beharko ditu.

### **32. Artikulua**

Okupazio-baimenak emateko honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- 32.1 Baimen espezifikorik lortu ezean, ezin izango da inongo kalerik moztu, ezta galtzada edo espaloirik estutu ere, baldin eta ibilgailuen eta oinezkoen joan-etorria eragozten badu. Joan-etorriak bideratzeko, lanen parte baten gainean xafla metalikoak jarri ahal izango dira, behar bezala finkatutako. Xaflak ongi jarrita egon beharko dute, beti, eta behar bezala bermatuta, gauzez zarata deserosorik sor ez dezaten. Lanetarako baimena duen erakunde edo pertsonak erantzungo du horretaz guztiaz.
- 32.2 Zirkulazio-noranzko bakarreko kaleetan, ibilgailuek zirkulatzeko gutxienez 3 metroko zabalera utzi beharko da libre, bidea erabat mozteko baimen berezirik eduki ezean.
- 32.3 Zirkulazio-noranzko bikoitzeko kaleetan, ibilgailuek zirkulatzeko gutxienez 6 metroko zabalera utzi beharko da libre, baldin eta baldintza partikularretan besterik zehazten ez bada. Horri begira, noranzko bakarreko kaletzat hartuko dira honako hauek: bidearen gainerako eremutik erdibitzaile, irlatxo, hesi edo zoladuraren beste edozein etenen bidez bereizitako galtzadak.



- 32.4 Gutxieneko zabalera libre gisa zehaztutako neurriari eutsi ahal izateko, zati independentetan banatu ahal izango dira lanak; era berean, eta hala behar izanez gero, espaloi-ertzean aparkatzeko debekua ezarri ahal izango da, gutxieneko neurriei eustearren.
- 32.5 Arau orokor gisa, eta besterik dioen baimen berezirik eduki ezean, espaloian oinezkoek zirkulatzeko gutxienez metro bateko zabalera utzi beharko libre.
- 32.6 Espaloia zabalera eta lanen aparteko zailtasunak direla-eta metro bateko pasagunea libre uztea ezinezkoa bada, 1,50 metroko oinezkoentzako pasabide babestu bat eratu beharko da galtzadan, eta seinale distiratzailen bidez iragarriko da. Edonola ere, galtzadan beti utzi beharko da 3 metroko tartea libre, eta, hala behar izanez gero, pareko espaloian aparkatzeko debekua adierazteko seinaleak jarriko dira galtzadan.
- 32.7 Hondatze-lanetako hondakinak eta lanetarako behin-behineko instalazio osagarriak (etxola, makinak, osagarriak, etab.) ibilgailuen eta oinezkoen zirkulazioan ahalik eta eragin txikiena sortzeko moduan eta tokian jarri behar dira eta ez dute gorabeherarik edo eragozpenik sortu behar ez zoladuran, ez seinale horizontaletan, ez ikusmenean; ahal den neurrian, lanengatik hesitutako eta jendearen erabilerarako debekatutako eremuaren barruan jarriko dira.
- 32.8 Espaloiei edo oinezkoen ohiko pasabide diren galtzadaguneei eragiten dieten lanak egiten diren bitartean, erabiltzeko moduan eduki beharko dira pasabide horiek. Tarte jakin batzuetan zorrotz egin beharko dira segurtasun-neurriak, adibidez oinezkoentzako gurutzagune gisa seinaleztatutako guneeetan, autobus-geralekuetan, atarietan eta abarretan, baldin eta horiek denbora jakin batez erabat ixteko baimenik ez badago.
- 32.9 Zangetatik eta abarretatik igarotzeko, pasaguneak, oholak, etab., jarri beharko dira. Halakoetan, behar bezala uztartu eta bermatu beharko dira osagai guztiak eta arriskuak saihestu beharko dira, ahal den neurrian.
- 32.10 Lanen, kalteturiko bidearen neurriaren eta abarren ezaugarri bereziak direla-eta oinezkoentzako joan-etorriak aurreko artikuluetan aipatutako moduan moldatzea ezinezkoa denean edo komeni ez denean, eta Udaleko Zirkulazio eta Garraio Sailak dagokion baimena emanez gero, oinezkoak pareko espalora igarotzera behartu ahal izango dira; hori egin ahal izateko, oinezkoek beste espaloitik ibiltzea komeni dela iragartzeko seinale osagarriak jarri beharko dira.
- 32.11 Oinezkoen joan-etorrirako baimendutako tokietatik metro bat baino gutxiagora zangarik edo 80 zentimetro sakonetik gorako zulorik badago,



hesiak, barandak edo eskudelak jarri beharko dira pasabideak zedarritzeko eta mugatzeko, oinezkoak erorikoetatik babestearren.

- 32.12 Ibi baimendunei eragiten dieten lanak egiteko, eta egoera oso berezietan izan ezik, ibietako sartu-irtenak egiteko modua bermatu beharko da, kaltetutako erabiltzaileekin hitzartutako eta Udaleko zirkulazio-zerbitzuek onartutako ordutegian, gutxienez.
- 32.13 Semaforoen kanalizazioari edo argi-paldo eta semaforoen zutabeen oinarriei eragingo bazaie, Udaleko Zirkulazio eta Garraio Sailari alde zuzen jakinarazi beharko zaio horren berri; ezin izango da semaforoen eta zirkulazioa seinaleztatzeko beste edozein instalazioren funtzionamendua edo ikusgarritasuna eten edo eragotzi. Lanak amaitutakoan, kontratistak lanen ondorioz kaltetutako zirkulazio-seinaleak berrezarri beharko ditu, bideko markak barne.
- 32.14 Bide publikoetako "Busak bakarrik" erreiei edo herri barruko autobusen geralekuei eragingo bazaie, Udaleko Zirkulazio eta Garraio Sailari zehatz-mehatz eman beharko zaio horren berri, dagozkion neurriak har ditzan: geralekuak lekualdatu, ibilbideak desbideratu edo seinale osagarriak ezarri, hala dagokionean, baimena eskatzen duen enpresaren kargura betiere.
- 32.15 Seinaleek Zirkulazio Araudian, udal-ordenantzetan eta indarrean dauden gainerako arauetan horri begira finkatuta dauden eredu, kolore, neurri eta ezaugarriak izan beharko dituzte. Seinaleen plakek metalezkoak izan behar dute, eta distiratzailak, inguruko argiztapenaren arabera.
- 32.16 Lanak seinaleztatzeko, Eranskin honen gehigarrian agertzen diren eskemei begiratu behar zaie. Izan ere, kasu edo egoera bakoitzean seinale, hesi, argi, oinezkoentzako pasagune eta abarrak ezartzeko modurik egokiena adierazten dute eskema horiek.
- 32.17 Udaleko Zirkulazio eta Garraio Sailak baimenean adieraziko du zer eskemetako seinaleztapena osatzeko zer seinale osagarri jarri beharko diren, kartel, norabide-panel, testu osagarri eta abar moduan.
- 32.18 Seinaleek gauz argi ikusteko modukoak izan behar dute; beraz, ingurua behar bezala argiztatu gabe badago, seinale distiratzailak ezarri beharko dira.
- Eremu hesitu edo balizatuetan, argi hori keinukariak edo kokalekua adierazteko argi gorriak jarriko dira, gauerako.
- 32.19 Lanak egiteko kaleren bat edo kalearen noranzko bat itxi behar izanez gero, Eranskin honetako VII. Kapituluaren arautzen diren baimen berezietako bat beharko da.

### **33. Artikulua**





Honako baimen mota hauek emango dira:

33.1 Espaloian lanak egiteko baimena.

33.2 Noranzko bakarreko bideetako espaloietan eta galtzadan lanak egiteko baimena.

33.3 Noranzko bikoitzeko bideetako espaloietan eta galtzadan lanak egiteko baimena.

33.4 Luzetarako kanalizazio-lanak egiteko baimena.

Baimen bakoitzari baldintza orokorren laburpena eta dagokion seinaleztapenaren krokisak erantsiko zaizkio.

Lanen neurria eta zabalera direla-eta, lanak hurrenez hurreneko zati independentetan banatu behar izanez gero, zati horietako bakoitzerako baimen bat beharko da, baina Udaleko Hirigintza Sailaren baimen beraren mende egongo dira guztiak.

## **VII. KAPITULUA**

### **BIDE PUBLIKOAN ZIRKULAZIOA ERAGOZTEN DUTEN LANAK EDO OKUPAZIOAK DIRELA-ETA IBILGAILUEN ZIRKULAZIOA ETETEKO KALE MOZKETAK EGITEKO BAIMENAK**

#### **34. Artikulua**

Honako egoera hau hartuko da kale-mozketatzat: galtzada erabat okupatu beharrak zirkulazioa guztiz eragozten duela-eta, bidegune bat edo noranzko bikoitzeko kale bateko zirkulazio-noranzko bat ibilgailuentzat erabat ixtea, baita baliabide fisikoen bidez ere, hasieran hesiak edo seinaleak jarritz. Galtzada erabat okupatzeko arrazoiak izan daitezke lanak, garabi edo gailu bereziak erabiliz egin beharreko zamalanak, hormigoia botatzea, hondakinak kentzea, orubeak hustea, erregai-hornidura, estolden garbiketa, etab.

#### **35. Artikulua**

Kale batean zirkulazioa eteteko, Udaltzaingoaren edo Udaleko Zirkulazio eta Garraio Sailaren baimen bat eskuratu beharko da; hurrengo artikuluek diotenari jarraituz emango dute baimen hori.

#### **36. Artikulua**

Zirkulazioa eteteko arrazoiak zamalanak, hormigoia botatzea, hondakinak ateratzea, etab., direnean, eta, oro har, bide publikoan lanak egitearen ondoriozko etena ez



denean, Udaltzaingoak emango du baimena, Eranskin honetako V. Kapituluari zamalanetarako baimenei buruz agertzen den araudiaren arabera. Baimen bakarrean bildu ahal izango dira zirkulazioa, zamalanak eta kale-mozketa.

### **37. Artikulua**

Baimen bakoitzean zehaztuko dira bide publikoa seinaleztatzeko eta erabiltzeko baldintzak, baita baimena zehazki zer ordutegitan egongo den indarrean ere. Oro har, ahalik eta iraupen txikiena izango du, inoiz ez egun batetik gorakoa.

### **38. Artikulua**

Lehentasunezko arreta-bide gisa sailkatutako herri barruko bideetarako baimenek gauzez edo larunbat eta igandez izango dute balioa, oro har, salbu eta Udaltzaingoak justifikatutzat jotzen dituen egoeretan eta, betiere, polizia-kontrola bermatzen bada.

### **39. Artikulua**

Zirkulazioa eteteko arrazoia bide publikoetako lanak edo konponketak badira, Udaleko Zirkulazio eta Garraio Sailak emango du baimena. Hirigintza Sailak emandako lanetarako baimena aurkeztu beharko du eskatzaileak alde aurretik, lanetarako aurrekusi den denboran kaleetan zirkulazioa etetea beharrezkoa eta ezinbestekoa dela esanez udal-zerbitzu edo udal-zuzendaritza ororen buruzagitzek egindako adierazpen espresa duela.

### **40. Artikulua**

Kasu batean nahiz bestean, seinaleztapenerako baldintzak zehaztuko dira baimenean. Honako hauek, hain zuzen:

- 40.1 Moztutako kaleko edo kale zatiko sarbidean honako seinaleztapen hau jarri beharko da: hesiak, sartzea debekatuta dagoela adierazten duen seinalea eta "Kalea moztuta. Sarbidea...-tik" dioen kartela.
- 40.2 Lanak egin behar direnean, Udaleko Zirkulazio eta Garraio Sailak adierazten duen seinaleztapen gehigarria ere jarri beharko da: norabide-panelak, beste kartel batzuk, testu osagarriak, saihesbideen adierazpenak, etab.
- 40.3 Seinaleak behar bezala argiztatu beharko dira, aurreko kapituluari adierazitakoari jarraituz, mozketak gauzez ere iraungo badu.
- 40.4 Ezinezkoa den kasuetan izan ezik, moztutako bide zatian dauden onibar eta ibietara sartzeko baimena emango da, sarbide alternatiboa adieraziz edo, sartzeko beste modurik ez badago, mozketa eragiten duten jarduerak une batez bertan behera utziz. Sarbidea baimentzeak aparteko



gorabeherarik sortzen ez duenean, "Onibarretarako sarbidea" edo antzeko adierazpenen bat jarriko da seinaleetan.

#### **41. Artikulua**

Udaltzaingoaren iritzian zirkulazioa eteteko justifikaziorik ez badago, edo eten horrek zirkulazioari edo garraio publikoari eragin larria ekarriko diola irizten bazaio, ez da kalea mozteko baimenik emango eta Udaleko Zirkulazio eta Garraio Sailari igorriko zaio eskaria, kasu bakoitzean dagokiona ebatzi dezan.

### **VIII. KAPITULUA**

#### **INDARREAN DAGOEN ARAUDIAN ZEHAZTEN DITUEN NEURRIAK GAINDITZEN DITUZTEN GARRAIO BEREZIETARAKO ZIRKULAZIO BAIMENAK**

#### **42. Artikulua**

Indarrean dagoen araudiak dioena baino altuera, luzera edo zabalera handiagoa dutela-eta dagokion administrazio-erakundearen zirkulazio-baimen berezia behar duten ibilgailuek Udaltzaingoaren baimena eskuratu beharko dute udaleko bideetan barrena zirkulatu behar duten aldi oro.

#### **43. Artikulua**

Udaltzaingoak zehaztuko du baimenari dagokion egutegia, ibilbidea eta ordutegia, oro har gauzez eta inola ere ez zirkulazio intentsiboko ordutegian; Udaltzaingoak erabakiko du, halaber, ibilgailu horrek Udaltzaingoaren zerbitzuaren laguntza beharko duen edo ez.

### **IX. KAPITULUA**

#### **UDALERRIKO BIDE PUBLIKOETAN BARRENA SALGAI ARRISKUTSUAK GARRAIATZEKO ZIRKULAZIO BAIMENAK**

#### **44. Artikulua**

Salgai Arriskutsuak Errepidez Garraiatzeko Araudi Nazionalaren arabera, debekatuta dago indarrean dagoen legediak salgai arriskutsuztat jotzen dituen salgaiak garraiatzen dituzten ibilgailuek herri barruko bide publikoetan zirkulatzea eta aparkatzea; hiri inguruko saihezbideak erabili behar dituzte, ezinbestean.

#### **45. Artikulua**

Ezinbesteko arrazoen ondorioz, edo ibilbidearen abiapuntua edo helmuga herri barruko bide batean dagoela-eta, ezin badaiteke saihestu salgai arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuak herri barruko bide publikoetatik igarotzea, baimen berezi bat eskuratu beharko dute ibilgailu horiek, ezinbesteko nortasun hori alde



aurretik justifikatuta. Baimen berezi horretan egutegia, ordutegia eta ibilbidea zehaztu beharko dira, baita, hala dagokionean eta espresuki, ibilgailuak zamalanak egingo diren tokirainoko joan-etorria egiteko laguntza beharko duen ere.

#### **46. Artikulua**

Baimen horiek Udaleko Zirkulazio eta Garraio Sailak emango ditu; aldez aurretik, Udaltzaingoak eta arlo honetan eskumena duten Udal Zerbitzuek indarrean dauden lege xedapen guztiak betetzen direla egiaztatu eta horri buruzko txostena egin beharko dute.

#### **47. Artikulua**

Baimena eskatzen duenak bere gain hartuko du honako alderdi hauei buruz indarrean dagoen araudia betetzeko ardura: era horretako garraiorako gida-baimenak, abiadura, garraio mota horretarako ibilgailuari eskatzen zaizkion baldintzak, etab. Era berean, garraiatuko den salgai mota eta kantitatea eta garraioa zer ordutegi eta egunetan egin nahi den ere adieraziko du eskarian.

#### **48. Artikulua**

Salgai arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuen baimenean, salgaien zamalanak egingo diren tokian soilik aparkatzeko baimena sartuko da; aparkatzeko baimena, gainera, lan horiek egiteko gutxieneko denborarako izango da.

#### **49. Artikulua**

Salgai arriskutsuak dagokien baimenik gabe garraiatzen ari direla atzemandako ibilgailuak udalerritik kanpora aterako ditu Udaltzaingoak.

### **X. KAPITULUA**

#### **APARKATZEA ORO HAR DEBEKATUTA DAGOEN GUNEETAN APARKATZEKO BAIMEN BEREZIAK**

#### **50. Artikulua**

Hainbat arrazoi direla medio sortutako kasu oso berezietan, gomendagarria da ibilgailu jakin batzuei seinaleen arabera aparkatzeko debekua dagoen tokietan aparkatzeko baimen berezia ematea. Hala, kapitulu honetan baimen berezi horiek emateko arrazoiak arautzeko irizpideak eta erabilera-baldintza homogeen batzuk zehazten dira.

#### **51. Artikulua**

Aparkatzeko bi motako baimen bereziak emango dira:



51.1 Urte osorako baimenak

51.2 Kasu jakin batean behin bakarrik erabiltzeko.

## **52. Artikulua**

Urte osorako balio duten aparkamendu-baimenak Zirkulazio eta Garraio Sailak onetsiko ditu, eta Udaltzaingoak emango ditu; txartel zenbakituak izango dira, eta Udaltzaingoaren esku egongo da txartel horien gaineko kontrola eta zerrenda.

## **53. Artikulua**

Honako hauek eskuratu ahal izango dituzte era honetako baimen-txartelak:

53.1 Agintarien zerbitzuko ibilgailuek.

53.2 Erakundeek beren eginkizunak betetzeko erabiltzen dituzten ibilgailu ofizialek.

53.3 Hiriko zerbitzu publikoak ematen dituzten enpresek beren eginkizunak betetzeko erabiltzen dituzten ibilgailuek.

Edonola ere, Zirkulazioko zinegotzi ordezkariaren esku egongo da txartela eman edo ez eman erabakitzea.

## **54. Artikulua**

Txartela ibilgailuaren aurreko haizetakoan jarri behar da, kanpotik ongi ikusteko moduan. Txartelak Udalaren eskumeneko bideetan hurrengo artikuluetan adierazten diren toki eta baldintzetan aparkatzeko eskubidea emango dio titularrari.

## **55. Artikulua**

Txartela eskuratzen duen titularrak baimendutako ibilgailua ondoren adierazten den moduan eta tokietan aparkatzeko eta gelditzeko eskubidea izango du:

55.1 Ibilgailua bide publikoan zamalanetarako erreserba gisa seinaleztatutako tokietan aparkatzea, ordubetez gehienez ere.

55.2 Ibilgailua berez aparkatzea debekatuta dagoen tokietan aparkatzea, ordubetez gehienez ere, ordutegi ez-intentsiboan, eta honako baldintza hauek betez, betiere: herri barruko autobusen geralekua ez izatea, ibirik edo oinezkoentzako pasabiderik ez ixtea, ibilgailua espaloi-ertzaren alboko erreian aparkatzea eta zirkulazioan gorabehera larririk ez eragitea.



55.3 Edonolako erreserba ofizialetan aparkatzea, segurtasun publikorako erreserbetan izan ezik, eta hogeita hamar minutuz, gehienez ere.

## **56. Artikulua**

Txartela urtero berritu beharko da, Udaltzaingoaren bulegoetan; Udaltzaingoak txartela indargabetzeko eskatu ahal izango du, baldin eta beharrezkoa ez bada edo justifikaziorik ez badu, edo behar bezala erabiltzen ez bada.

## **57. Artikulua**

Behin bakarrik erabiltzeko baimenak Udaltzaingoak ez-ohiko behar publikoak edo pribatuak betetzeko beharrezkoa iritzi gero emango dira, salbuespenezko kasu oso berezietan.

# **XI. KAPITULUA**

## **BIDE PUBLIKOAN EGIN BEHARREKO LANAK SEINALEZTATZEA ETA BALIZATZEA**

### **Aplikazio-eremua eta baldintza orokorrak**

## **58. Artikulua**

Honako xedapen hauek Errenteriako udalerrriaren barruan edozein enpresa, erakunde edo pertsonak bide publikoan edo bide publikoei eraginez egiten dituen lan guztiei dagozkie, eta honako helburu hauek dituzte:

58.1 Erabiltzaileari lanak daudela jakinaraztea.

58.2 Lanek eragiten dioten eremuko zirkulazioa antolatzea.

Bestelako justifikaziorik ezean, lan finkoetan, MOPUren 87.08.31ko Ministro-aginduaren 8.3-IC jarraibideko 1. eranskinean (224/87 BOE) agertzen den katalogoan sartuta dauden seinale, baliza eta babesgarriak soilik erabili ahal izango dira.

## **59. Artikulua**

Araudi horren arabera, ezin erabiliko da era honetako mezu idatzirik duen seinalerik: "Barkatu eragozpenak" edo "Saihesbidea 500 m-ra".

TP, TR eta TS seinaleen diseinuak lanik ez dagoenean zirkulazioa antolatzeko erabiltzen direnen berdina izan behar du, berezitasun bakarrarekin: TP seinaleen hondoan eta TS seinaleena, erabat edo parte batean, horiak izango dira.



## **60. Artikulua**

Gidari zuhurrak egin beharreko maniobrak aurreikusi eta erosotasunez egin ditzan beharrezko jotzen den gutxieneko seinale kopurua jarri beharko da; betiere, kontuan hartu behar da ez dela jarri behar gidariaren arretari gainkarga eragin diezaiokeen alferreko seinalerik edo ageriko mezua duen inolako seinalerik.

## **61. Artikulua**

Kartel, krokis eta seinaleetako letrek 15 cm-ko altuera izan behar dute, gutxienez.

## **62. Artikulua**

Seinaleen eta balizen gainazal lau guztiek distiratzailak behar dute izan, eta bidearen ardatzari buruz elkarzut jarri behar dira; espresuki debekatuta dago horiek ibilgailuen ibilbidearen paralelo edo harekiko zeharka jartzea.

## **63. Artikulua**

Zutoin berean ezin izango da jarri arauzko seinale bat baino gehiago; seinalearen beheko ertza lurretik metro batera jarri behar da. Seinale horri, edonola ere, ohar osagarriak erantsi ahal izango zaizkio; horretarako, plaka laukizuzenak erabiliko dira, eta seinalearen azpian jarriko dira.

Seinaleen eta balizen euskarri edo oinarriek behar adinako egonkortasuna bermatu behar dute.

## **Gutxieneko seinaleztapena eta balizatzea**

## **64. Artikulua**

Lan guztietan, zulo-konponketa eta zoladura-mozketak barne, TP-18 –arriskua, lanak– seinalea jarri behar da.

Zirkulatu ezin den gunea zedarritzeko, B-1 edo TB-2 norabide-panelak jarriko dira, beti, aurrealdean. Panelen artean edo panelen eta galtzadaren ertzaren artean metro bateko tartea utzi ahal izango da, gehienez ere.

Alboetan balizak jarriko dira, ibilgailuen zirkulazioaren alderdian, eta hesiak, oinezkoen zirkulazioaren alderdian; baliza horien bidez zedarrituko da okupatutako eremua, balizen artean gehienez ere 1,50 m-tik gorako tartea utzita.

## **65. Artikulua**

Egoeraren arabera, beste seinale edo osagarri batzuk jarri beharko dira gutxieneko seinaleztapen hori osatzeko eta indartzeko. Honako hauek, besteak beste:

65.1 Oztopoak direla-eta bide baterako baimendutako gehieneko abiaduran zirkulatzeak arrisku larria sor badezake, abiadura mugatu beharra dago;



hain zuzen ere, geldiunea sortzeko, inor harrapatzeko edo talka gertatzeko arriskua gertatuz gero ibilgailuaren kontrolari eusteko moduko abiadura-muga errealista bat finkatu beharko da. Abiadura-muga pixkanaka eta era mailakatuan murriztu beharko da, tarte bakoitzean muga gehienez ere 30 km/h jaitsiz.

65.2 Errei batean zirkulazioa ixteak ertz zuzen okertu bat eratzen du; oro har, 50 m luzea izan behar duen, gutxienez. Halako luzerarik finkatzea ezinezkoa den kale edo bideetan, bidearen baldintzen arabera egokitzapenak egingo dira. Errei bat ixteko, honako seinale eta baliza hauek jarri beharko dira:

65.3 TP-18 seinalea (lanak), TB-6 (konoak), elkarren artean 5 metroko tarte utzita, edo TB-13 (girlandak) trantsizioaren eta okupazioaren perimetroan, ibilgailuek zirkulatzen duten alderdian.

65.3.1 Hesi jarraitua, okupazioaren perimetroan, oinezkoek zirkulatzen duten alderdian.

65.3.2 TB-1 panela (norabide-panela), okupazioaren bi muturretan.

65.3.3 Abiadura-mugari dagokion TR-305 seinalea, baldin eta baimendutako abiadura-muga baino handiagoa bada.

65.3.4 Erreia eteteak txandakako zirkulazioa ezartzera behartzen badu, eskuz antolatu beharko da zirkulazioa, TM-2 eta TM-3 seinaleak erabiliz.

65.3.5 TR-305 seinalea (aurreratzea debekatuta), auto-ilarak hartuko duen tarte gisa aurreikusten den tartearen muturrean.

65.4 Galtzada estutzearen edo moztearen ondorioz zirkulazioa eten behar izanez gero, oztopoa bera seinaleztatuko da, alde batetik, eta baita kaltetutako zirkulazio-bideetarako saihezbideak ere, bestetik. Udalak kasu bakoitzerako finkatuta duen seinaleztapena jarriko da, honako hauek osatua gutxienez:

65.4.1 Hesi jarraitua eta TB-5 (baliza) okupazioaren perimetro guztian.

65.4.2 TR-101 (sartzea debekatuta) eta norabide-panela kalearen sarreran.

65.4.3 TS-860 panela, "Kalea moztuta" adierazten duena, saihezbidea hartu behar den gurutzagunearen aurretik.

65.4.4 TS-860 panelak, "Saihezbidea" adierazten duenak, finkatutako ibilbidean barrena zer bideri jarraitu behar zaion adierazten duten norabide-geziekin.





65.5 Espaloi edo oinezkoentzako guneetan eta aparkatzea erabat edo neurri batean mugatuta dagoen kaleetan lanak seinaleztatzeko materialak gordetzeko edo hondakinak biltzeko edukiontziak jarri behar izanez gero, Udalaren baimena beharko da.

Gainerako kaleetan, behar bezala aparkatutako ibilgailuek eratzen duten lerrotik kanpora ez ateratzeko moduan jarriko dira edukiontziak.


Edonola ere, edukiontziak beren muga geometrikoraino betetzen direnean, horiek aldatu eta edukiontzi hutsak jarri beharko dira.


Era berean, edukiontziak olan batez (edo bestelako bitartekoren batez) estali beharko dira, eta edukiontzia etengabe betetzeari uzten zaionean estalkia behar bezala lotuta gelditzen dela bermatu beharko da.





#### **4. ERANSKINARI DAGOZKION GRAFIKOAK**


#### **LANEN SEINALEZTAPENA**





















## **5. ERANSKINA**

### **ZIKLOMOTORREK, MOTORREK ETA PAREKOEK SORTZEN DITUZTEN ZARATAK**

#### **1. Artikulua Helburua**

Honako Eranskin honen helburua da Errenteriako udalerriko ingurumen-baldintzetan eragina duen zarata —ziklomotorrek, motorrek eta parekoek sortutakoa— arautzea. Hiri-ingurunea zaintzea eta hobetzea da xede nagusia. Eranskinean, beraz, zarata neurtzeko metodoa finkatzen da; hau da, ibilgailu horien zaratak pertsonen jarduerak, atsedena edo lasaitasuna eteten ote dituen erabakitzen du.

#### **2. Artikulua Aplikatu beharreko araudia**

Udalerrian dabilzan ibilgailu motordunek bat etorri beharko dute ateratzen duten zarataren arabera aldeztu aurretik homologatutako ereduarekin; betiere, indarrean dagoen araudiarekin bat eginez. Era berean, zirkulazioari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko arauak aplikatu beharko zaizkio.

#### **3. Artikulua Mantenua**

3.1 Trakzio mekanikozko ibilgailu orok modu onean izan behar ditu motorra, transmisioa eta karrozeria, eta baita zaratak edo/eta bibrazioak sortzaz gainerako elementu guztiak ere. Bereziki, modu onean izan behar du irteera-gasak isilarazteko gailua. Hartara, ibilian dabilela edo motorra martxan duela, ibilgailuak ezin izango du kategoria bakoitzerako xedatu den muga gainditu, eta mugatik 2 dB(A) baino gehiago aldendu; hain zuzen, indarrean dagoen araudiarekin bat eginez eta bertan xedatutako neurri-baldintzen arabera.

3.2 Honako Eranskin honek ondoko biak jasotzen ditu: ibilgailu motordunen edo ziklomotorren kategoria bakoitzerako ezarri diren balio-mugak batetik, eta, bestetik, ibilgailu horiek sortutako zarata-mailak neurtzeko metodoak.

#### **4. Artikulua Ibilgailuen kontrola**

4.1 Ibilgailuak gidatzen dituzten pertsona guztiak derrigortuta daude ibilgailuek ateratzen duten zarata-maila kontrolatzeko udaltzainek jar ditzaketen proba guztiak egitera. Izan ere, udaltzainek prebentzio-kontrol orokorrak egin ditzakete, Udalak xedatutako programekin bat eginez.



- 4.2 Dagokion proba egin ostean, zarata-maila 2 dB(A) baino handiagoa eta 6 dB(A) baino txikiagoa bada, salaketa ezarriko zaio, eta atzemandako gorabehera konpondu beharko du.
- 4.3 Hori gertatuz gero, ibilgailuaren titularrak 15 lanegun izango ditu antzemandako gorabehereri irtenbidea bilatzeko, ibilgailuak konpontzeko baimendutako zeinahi tailerretara joanda.
- 4.4 Konponketa egin duen tailerrak emandako ziurtagiria aurkeztu, eta atzemandako gorabehera konpondu dela egiaztatu ostean, salaketa ezeztatu egingo da; betiere, baldin eta titularrari ez bazaio aurretik beste salaketa bat ezeztatu, arrazoi bera dela tarteko.
- 4.5 Honako kasu hauetan, udaltzainek ibilgailua ibilgetu dezakete: titularrak zarata-kontrolerako probak egiteari uko egiten badio; hodi librea badarama; isilarazteko gailua hondatuta badauka; homologatu gabeko ihes-hodia baldin badauka; edo zeinahi arrazoi dela tarteko, ateratzen duen zarata-maila erreferentzia-maila baino 6 dB(A) handiagoa bada. Halakoetan, dagokion salaketa jarri eta ibilgailua ibilgetuko dute udaltzainek.
- 4.6 Gorabeheraren bat daukalako ibilgailua ibilgetu ostean, udaltzainek gidatzeko lizentzia edo zirkulazio-baimena kendu, eta horren ordeztu beste txartel bat emango dute. Txartel horretan, ibilgailuaren matrikula eta lehen matrikulazio-data agertuko dira, gutxienez.
- 4.7 Hala gertatuz gero, ibilgailuaren titularrak 10 lanegun izango ditu antzemandako gorabeherak konpontzeko. Horretarako, Ibilgailuen Azterketa Teknikoa (IAT) egiteko zeinahi gunetara edo ibilgailuak konpontzeko baimendutako tailerren batera eraman beharko du ibilgailua, eta, han, hondatutako elementuari edo elementu multzoari baino ez diote erreparatuko.
- 4.8 Azterketa teknikoko txosten ofiziala edo tailerrak emandako ziurtagiria aurkeztu, eta gorabehera konpondu dela egiaztatu ostean, kendutako gidatzeko lizentzia edo zirkulazio-baimena itzuliko zaio.
- 4.9 Adierazitako epea igaro ostean, oraindik ez bada aurkeztu ibilgailuari azterketa egin diotela egiaztatzen duen agiririk, udaltzainek aipatutako ibilgailua zigilatu ahal izango dute, edo zuzenean, bide publikotik kendu, eta udal-biltegira eraman ahal izango dute; betiere, dagokion arau-hausteagatik jarri beharreko salaketa aparte utzi gabe.
- 4.10 Gidariak uko egiten badio ibilgailuak ateratzen duen zarata-maila aztertzeke egin beharreko probak egiteari, udaltzainek udal-biltegira eramango dute ibilgailua.



- 4.11 Titularrak ibilgailua udal-biltegitik atera nahi badu, alde zuzenetik zarata-maila aztertzeko proba egin beharko diote ibilgailuari.
- 4.12 Ibilgailua aipatutako biltegitik ateratzeko, atarian eraman ahal izango da, edo karga-sistema baten bitartez, edo beste zehazki modutan; betiere, ibilgailua bide publikoan martxan jarri gabe konponketa-lanak egiteko tailer batera eramateko helburuarekin. Hartara, bertan, ibilgailuaren osagai guztiak indarrean dagoen legedira egokituko dira.
- 4.13 Ibilgailua titularrak aukeratutako tailerretik udal-sailera eramateko, zirkulazio-baimen moduko txartel bat emango zaio titularrari berari. Jatorrizko dokumentazioa, berriz, Udaltzaingoaren zaintzapean geratuko da. Ibilgailuaren osagaiak modu egokian daudela eta zarata-mailak honako ordenantza honetan xedatutako mugak gainditzen ez dituela egiaztatzean, ibilgailuaren jabeari itzuliko zaio berriz ere dokumentazioa.
- 4.14 Interesatuak ordaindu beharko ditu ibilgailua erretiratzearen ondoriozko gastuak. Ibilgailua ibilgetu denetik bi lanegun igaro ostean, egonaldi-tasak ordaindu beharko dira. Ibilgailuak bi hilabete egiten baditu biltegian, eta ez badu inork ere jasotzen, utzitako ibilgailuentzako xedatuta dauden legez-izapideei helduko zaie.

## **5. Artikulua Ziklomotorrentzako eta motorrentzako saioak**

- 5.1 Gisa horretako ibilgailuek ateratzen duten zarata kontrolatzeko, udaltzainek kontrolak egingo dituzte bide publikoan. Bertan, xedatutako mailak gainditzen dituen zarata ateratzen dutela diruditen ziklomotor eta motorrak geratuko dituzte.
- 5.2 Ziklomotorrek eta motorrek ateratzen duten zarata bide publikoan modu errazean aztertzeko, geratuta dagoen ibilgailuarekin saio bat egingo da, honako Eranskin honetan zehazten den bezalaxe.

## **6. Artikulua Arau-haustek**

- 6.1 Arau-hauste larritzat joko dira hauek, bai honako ordenantza honek aipatzen dituen ibilgailuen gidarientzat, bai ibilgailuen jabeentzat, aurrekoen ordezkatzailerik legeak.
- 6.1.1 Baimendutako zarata-mugak 6 dB(A)-tan gainditzea.
- 6.1.2 Urtebetean, honako ordenantza honetan ageri diren tipifikatutako erdi-mailako arau-haustek birritan edo gehiagotan egitea.



6.1.3 Hodi librea duten, isilarazteko gailua hondatua, osatu gabea edo ezegokia duten, eta homologatu gabeko ihes-hodia duten ibilgailu motordunen eta ziklomotorren zirkulazioa; ziklomotorren edo ibilgailu motordunen martxak bortxatu, eta beharrezkoak ez diren azeleratzeak egitearen ondorioz, zarata gogaikarriak ateratzea; eta hirigunean klaxona jotzea edo bestelako seinale akustikoak egitea. Salbuetsirik geratuko dira Zirkulazioari buruzko Araudi Orokorraren 110. artikuluan xedatutakoak.

6.1.4 Ibilgailu motordunak aztertzeraz eraman nahi ez izatea, eta ibilgailuak ateratzen duen zarata kontrolatzeko beharrezko probak egiteari uko egitea.

6.1.5 Administrazioari trabak jartzen bazaizkio ikuskaritza-lana egiten ari denean, hau da, hala dagokien ibilgailuak aztertzen ari denean.

6.2 Maila handieneko arau-hauste arinak izango dira ondokoak:

6.2.1 Zilindroen edukiera bakoitzeko ezarri den muga 4 eta 6 dB(A) tartean gainditzen bada.

6.2.2 Urtebetean, honako ordenantza honetan ageri diren tipifikatutako maila txikieneko arau-haustek birritan edo gehiagotan egitea.

6.3 Maila txikieneko arau-hauste arinak izango dira ondokoak:

6.4 Zilindroen edukiera bakoitzeko ezarri den muga 2 eta 4 dB(A) tartean gainditzen bada.

6.5 Aurreko arau-haustek gauez (22:00etatik 07:00etara) eta bizitegi-eremuetan egiten badira, berriz, arau-haustek xedatuta daudena baino maila bat gorago zigortuko dira.

## **7. Artikulua Zirkulatzen ari diren ibilgailuek egiten duten zarataren gehienezko mugak**

7.1 Oro har, zirkulazioan dauden ibilgailu guztiek zaratari buruz ondorengoek xedatutakoa bete beharko dute: 1958ko martxoaren 20ko Ginebrako Akordioaren eranskinak diren 9, 41 eta 51ko Araudiak eta 92/97/CEE Zuzentaraua, ibilgailu berriak homologatzei buruzkoa, eta hori eguneratzeko xedatutako ondorengo dokumentuak.

7.2 Ziklomotoreen kasuan ondorengoei jarriki jardungo da: bi eta hiru gurpileko motordun ibilgailuen elementu eta ezaugarriei buruzko 97/24/CEE Zuzentaruaren 9. kapitulua, 2003-06-17a baino beranduago matrikulatutakoen kasuan, eta 1972ko maiatzaren 25eko 1439/72 Dekretua, ibilgailuak homologatzei buruzkoa, zarata gaiei dagokienez, data horretatik aurrera matrikulatutakoen kasuan



## **8. Artikulua Neurketarako tresnak**

8.1 Doitasun handiko 1. motako sonometroa erabiliko da. Hartara, UNE-EN-60 651 "sonometroak" arauan zehaztutakoak, behintzat, beteko dira. Elektrikari buruzko Nazioarteko Batzordearen 651:1979 Arauak, zaratak neurtzeko tresnen ezaugarri buruzkoak, gai horri buruz dioen guztia jasotzen du, hain zuzen, UNE-EN-60 651 "sonometroak" arauak. Bide publikoan egindako neurketetan, berriz, 2. motako sonometroak erabiliko dira. Horrelakoetan, ibilgailua kentzeko erabakia hartzen bada, biltegian berriro egin beharko da neurketa; orainoan, 1. motako sonometroarekin. Neurtzean, A bihurgunearekin eta erantzun azkar batekin bat datozen haztatze-sare bat eta konstante bat erabiliko dira.

8.2 Sonometroan neurtu beharko da, neurtze-sorta bakoitzaren aurretik eta ondoren dagoen zarata estandarra erreferentzia-iturri hartuta. Neurtzeko saio horietako batean sonometroak adierazten duen balioa eremu akustiko librean neurtutako azken neurketako baliotik, hau da urteko neurketako baliotik, 1 dB(A) baino gehiago urruntzen bada, neurketa hori ez da baliozkotzat joko.

## **9. Artikulua Neurketarako baldintza orokorrak**

### **9.1 Meteorologia-baldintzak:**

Neurketak ezin izango dira egin eguraldi kaskarra egiten duenean. Haizearen aurkako babesa erabiliz gero, kontuan hartu beharko da mikrofonoaren sentiberatasunean eta norabide-ezaugarrietan daukan eragina.

### **9.2 Ibilgailuaren egoera**

Ibilgailuak bere propultsiorako beharrezkoak ez diren, baina errepidean zirkulatzen ari denean erabiltzen dituen gailuak baditu —esate baterako, aginte automatikoko haizagailuak—, gailu horiek ekoizlearen zehaztapenen arabera funtzionatu beharko dute.

### **9.3 Neurtzeko erabiliko den lursailaren egoera eta bertako baldintzak:**

Neurtze-lanak egiteko leku apropostzat joko dira hormigoiz, asfaltoz edo beste material gogor eta islatzailez zolatutako aire zabaleko eremu guztiak. Alboratuta geratuko dira, beraz, lur-gainazalak, zapalduak edo ez. Era berean, eremu horretan laukizuzen bat marraztu ahal izango da, eta haren aldeek ibilgailuaren ertzetatik hiru metrora egon beharko dute gutxienez (eskulekua kontuan izan gabe). Azkenik, eremu horren barnean ez da inolako oztopo edo traba nabarmenik egongo: bereziki, ihes-hodiaren zarata neurtzean, ibilgailua ezin izango da espaloia zintarritik metro bat baino hurbilagora jarri. Neurtzean,



inortxo ere ezin izango da eremu horretan egon: behatzailea eta gidaria baino ez. Eta horiek ezin izango dute neurketaren emaitza nahasi edo aldarazi.

## **10. Artikulua Neurketa egiteko metodoak.**

### 10.1 Neurri kopurua.

Puntu bakoitzean gutxienez hiru neurriren lagina hartuko da. Neurtze-lanak ez dira baliozkotzat joko baldin eta egindako hiru neurketen emaitzen artean, bata bestearen atzetik egindakoen artean, 2 dB(A)koa baino alde handiagoa badago. Horrelakoetan, berriz egin behar da neurketa. Nolanahi ere, lagin moduan hartutako hiru neurrien artean baliorik txikiena hartu beharko da aintzat.

### 10.2 Ibilgailuaren posizioa eta prestakuntza

Neurtzeko eremuaren erdi-erdian jarriko da ibilgailua; aldagailua loka-puntuan eta motorra lozagia jarrita dituela. Ibilgailuaren diseinua dela-eta ezin bada agindu hori bete, euskarri batean jarri, eta hantxe neurtu beharko da. Hori egitean, ibilgailuaren gurpil eragileari mugimendurako askatasuna utzi beharko zaio.

### 10.3 Mikrofonoaren posizioa.

10.3.1 . Mikrofonoak lurrarekiko izango duen garaiera ihes-gasen irteerarako zuloaren parekoa izango da; dena den, muga bat jartzen da: 0,2 metroko garaiera, gutxienez.

10.3.2 Mikrofonoaren mintza gasen irteerarako zulora begira jarri beharko da: 0,5 metroko distantziara, hain zuzen.

10.3.3 Mikrofonoaren gehieneko sentiberatasuneko ardatzak, berriz, lurrarekin paraleloan egon beharko du, eta gasen irteera finkatuko duen plano bertikalarekiko  $45^{\circ} \pm 10^{\circ}$ -eko angelua izango du. Sonometroaren ekoizleak ardatz horri buruz emandako argibide guztiak errespetatu beharko dira. Plano bertikalarekiko, ibilgailuaren batez besteko luzera-planotik hasita gehieneko distantzia lortzeko moduan jarri beharko da mikrofonoa. Zalantza izanez gero, mikrofonoaren eta ibilgailu-inguruaren arteko distantziarik handiena emango duen gunea hartuko da kokalekutzat.

10.3.4 Bi edo irteera gehiagoko hodiak egonez gero, eta haien artean 0,3 metro baino gutxiagoko tartea egonez gero, lagin bakarra hartuko da. Horretarako, lurzorutik garaiera handiena duen irteeraren parean jarriko da mikrofonoa.



10.3.5 Ibilgailuak irteera bat baino gehiagoko hodiak baditu, eta haien artean 0,3 metro baino gehiagoko tarte badago, hiru neurrien lagina hartuko da irteera bakoitzean. Bakoitza bakarra balitz bezala jokatuko da, eta lagin guztien artean mailarik handiena ematen duena hartuko da aintzat.

10.3.6 Motorraren funtzionamendurako baldintzak. Zarata-eragozpenak oso nabarmenak diren abiaduran egonkortuko da motorra. Egonkortutako erregimena erdiestean, azelerazio-agintea erralention jarriko da. Zarata-maila denbora-tarte jakin batean neurtu beharko da: egonkortutako erregimenean 5 segundo gehi dezelerazio-iraupen osoa, gutxienez. Sonometroak adierazten duen gehieneko kopurua joko da neurketaren baliozko emaitzat. Bira-kontagailuak eta zarata-maila adierazten duten homologazio-plakak dituzten ibilgailuetan, ordea, motorra aipatutako plakak adierazten duen bira kopuruen arabera egonkortuta dagoela egingo da neurketa.

## **11. Artikulua Emaitzen interpretazioa.**

11.1 Sonometroak neurtutako balioak biribildu egin behar dira, hurbilen daukaten dezibeliora egokituz. Bata bestearen atzetik egindako hiru neurketetan eskuratutako balioak hartuko dira aintzat; betiere, batak besteekiko duen aldea 2 dB(A) baino handiagoa ez bada, 3.3.1. atalean zehaztu den bezalaxe.

11.2 Eskuratutako balioa neurtzen ari diren motozikletari dagokion kategoriarako baimendutako gehieneko mailatik 1 dB(A) urruntzen bada, bigarren aldiz ekingo zaio laginak hartzeari. Hala eskuratutako emaitzek, beraz, aurreikusitako mugen barnean egon beharko dute.

11.3 Neurtze-gailuek zehaztasun gabezia izan dezaketela-eta gailuak irakurtzen dituen balioei dezibel bat kenduko zaie.





## **6. ERANSKINA**

### **ERRENTERIAKO UDALERRI BARRUKO ESKOLA GARRAIOARI ETA ADINGABEEN GARRAIOARI BURUZKO ARAUDIA**

#### **I. KAPITULUA**

#### **ATARIKO XEDAPENAK**

##### **Helburua**

##### **1. Artikulua**

Eskola-garraiorako eta adingabeen garraiorako segurtasun-baldintzei buruzko apirilaren 27ko 443/2001 Errege Dekretuan xedatutakoari jarraituz, honako Eranskin hau osatu da. Eranskinaren helburu nagusia da Errenteria Udalerriko eskola-garraioa eta adingabeen garraioa arautzea.

#### **II. KAPITULUA**

#### **ZERBITZUA ESKAINTZEKO ARAUAK**

##### **I. Atala : Baimenei buruzkoa**

##### **2. Artikulua**

Eskola-garraioa edo adingabeen garraioa herriko zerbitzu publiko moduan eskaintzeko, ezinbestekoa izango da alde zuzenetik horretarako udal-baimena izatea. Alkatetzak edo Lehendakariak emango du baimena, eta bertan adieraziko dira zein diren baimendutako ibilgailuak, ibilbideak eta geralekuak.

##### **3. Artikulua**

###### **3.1 Baimenen baliozkotasuna**

3.1.1 Garraiolariaren eta ikastetxearen artean ikasturte baterako zerbitzuak kontratatzen direnean, ikasturte horren epean izango dute baliozkotasuna baimenek. Horretarako, ulertuko da ikasturtea urte bateko irailaren 1etik hurrengo urteko ekainaren 30era bitartekoa izango dela.

Lankidetzan ari diren enpresei emandako baimenen indarraldia ere, Zirkulazioko Ordenantza Orokorren 17.2. artikulua aipatzen duena, haien eta garraiolarien arteko zerbitzu-kontratuak izango duen iraunaldiaren parekoa izango da. Nolanahi ere, sekula ezin izango du gainditu horiei emandako baimenaren baliozkotasun-epea.



Hurrengo epigrafean jasotzen den adibidea salbuespena da, baina gainerakoan, sekula ez da ulertuko aipatutako epealdia igaro ostean oraindik baimena indarrean dagoela.

3.1.2 Kontratua bi ikasturte edo gehiagorako denean, baimena ere baliozkoa izango da denbora-tarte horretarako. Hala izateko, ikasturte bakoitzaren hasieran ikus-onetsi behar da, eta horretarako, eskatzaileak Eranskin honetako 11.2. artikuluko epigrafeetan aipatzen diren dokumentuak —erabat eguneraturik— aurkeztu beharko ditu irailean bertan.

3.2 Nolanahi ere, baimen ororen indarraldia ibilgailu bakoitzaren ikuskaritza teknikorako txartelaren, mugarik gabeko aseguru-poliza osagarriaren eta eskatu ahalako garraio-zerbitzurako baimenaren indarraldiaren araberakoa izango da. Hala izan ezean, automatikoki indargabeturik geratuko da.

#### **4. Artikulua**

Noizbehinkako eta aurretik ikusi ezin diren premia-egoerei aurre egiteko —ibilgailuen matxurak eta parekoak— zerbitzua eskaintzean ikastetxearekin zerbitzua kontratatu duen enpresaren jabetzakoak ez diren autobusak edo hark kontratatutako laguntzaileenak ez diren autobusak erabili behar direnean, udal-baimena duten ibilgailuak baino ezin izango dira erabili, nahiz eta beste ikastetxe baten garraiorako emandako baimena izan.

Ibilgailu horiei ez zaie aplikatuko honako Eranskin honetako 6.1. artikuluan xedatzen den betebeharra.

#### **5. Artikulua**

Garraiolariak kontratuan hitzartutako ibilbide guztien ordutegiak errespetatu beharko ditu. Ordutegi horiek udal-baimenean egongo dira adierazita. Hala, garraiolariak ezin izango dituzte bidaiak ez aurreratu ez atzeratu; hau da, ibilgailu berarekin ahalik eta bidaiarik gehienak egiteagatik, ezin izango dituzte ordutegiak bete gabe utzi.

### **II. Atala : Garraiolariaren betebeharrak**

#### **6. Artikulua**

6.1 Baimendutako ibilgailuek, zerbitzua eskaintzen ari diren oro, kartel bat eraman beharko dute aurreko kristalean. Ikusteko moduan jarri beharko dute, eta kartelak 50 ´ 30 zentimetrokoa izan beharko du, gutxienez. Bertan, zerbitzua kontratatu duen ikastetxearen izena eta ibilbide-zenbakia adierazi beharko dira. Hogei eserlekutik gora ez dituzten ibilgailuetako kartelak DIN A-4 folio baten tamaina izan beharko du, gutxienez: 30 ´ 21 zentimetro, alegia.



6.2 Era berean, “eskola-garraioa” dioen bereizgarria eraman beharko dute ibilgailuek. Abenduaren 23ko 2.822/98 Errege Dekretuak onartutako Ibilgailuei buruzko Araudi Orokorrean xedatutako forma, mota, tamaina eta koloretakoak izan beharko dute, hain zuzen, bereizgarri horiek.

## **7. Artikulua**

Beharrezko kontrola izateko, ibilgailuen gidariak beraiekin eraman beharko dituzte ondokoak: Eranskin honetako 3.1. artikuluan aipatutako baimena, eskatu ahalako garraio-zerbitzurako txartela, mugarik gabeko aseguru-poliza osagarria —epealdi horretako saria ordaindu dela egiaztatzen duen ordainagiriarekin—, gida-baimena eta eskola-garraiorako edo adingabeen garraiorako ibilgailuak gidatzeko beharrezkoa den baimen berezia; hain zuzen, maiatzaren 30eko 772/97 Errege Dekretuak onartutako Gidariei buruzko Araudi Orokorreko 32. artikulua aipatzen duena. Gainera, udaltzainek horietakoren bat eskatuz gero, gidariak erakutsi egini beharko diete.

## **8. Artikulua**

Zirkulazio eta Garraiorako Udal Zerbitzu Teknikoek hala eskatuta, eskola-garraioa eta adingabeen garraioa kontratatzen dituzten zentroek Udalari hainbat datu aurkeztu beharko dizkiote halaberrez: besteak beste, ibilbideak, bideak, geralekuak, zerbitzuen ordutegia eta zerbitzuen iraupena; eta baita zerbitzuak hobetzeko behar diren gainerako datu guztiak ere.

## **9. Artikulua**

9.1 Abiapuntuko edo helmugako geralekuren bat ikastetxe-barrutian kokatzen ez bada, eskola-garraioa kontratatzen duten zentroek dagokien espazioa gordetzeko eskaria egin diezaiokete Udalari, Ordenantzarekin bat eginez. Hartara, ikasleak ahalik eta segurtasun-baldintza handienekin sartu ahal izango dira ikastetxera, baita bertatik atera ere.

9.2 Udalak, halaber, interesatuen iritzia jaso ostean, toki finko eta argi adierazitako batzuetan jar ditzake eskola-garraiorako geralekuak: eskola-autobusa geratu ohi den lekuetan; edo herriko bide eta eremuetan, zirkulazioari kaltea eragitea, ibilgailuak pilatzea edo bide-segurtasunik gabeko egoerak sortzea saihesteko helburuarekin. Era berean, geraleku horietako batzuk edo guztiak nahitaez erabiltzeko agindua ere eman dezake.

## **III. KAPITULUA**

### **PROZEDURA**

## **10. Artikulua**



Honako Eranskin honetako 2. artikuluan aipatzen den baimena eskatu ahal izango dute herri barruko eskola-garraioa edo adingabeen garraioa egiteko ibilgailuen jabe diren pertsona fisiko zein juridikoek.

## **11. Artikulua**

11.1 Ibilgailuen titularrek eskatu beharko dituzte baimenak. Horretarako, eskaria aurkeztu beharko dute Udaleko Erregistro Orokorrean. Zerbitzuan erabilitako autobus guztientzat baimen bakarra egongo da.

11.2 Eskariarekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

11.2.1 Ezinbestekoa da Jarduera Ekonomikoen Zergan alta emanda izatea. Hala bada, zerga hori ordaindu dela egiaztatuko duen ziurtagiria aurkeztu beharko da.

11.2.2 Erabilera bereziko garraio publiko erregularrentzat, berriz, zerbitzua eskaintzeko dagokion ikastetxearekin egindako kontratuaren edo aurrekontratuaren kopia. Enpresek ez badute zerbitzua eskaini behar ikastetxeekin kontratu zuzena eginda, baizik eta beste enpresa batzuekin lankidetzan jardunez egiten badute, bien arteko kontratuaren kopia aurkeztu beharko da.

11.2.3 Ibilgailuen zirkulazio-baimena, ibilgailuen ibilbide osoa betetzen duen lurralde-eremua daukan eskatu ahalako garraioaren baimena, indarrean dauden IAT ziurtagiriak eta apirilaren 27ko 443/2001 Errege Dekretuak xedatutako azterketa tekniko eta baldintza guztiak bete direla egiaztatzen duten ziurtagiriak. Errege Dekretu horrek, hain zuzen, Eskola-garraioaren eta adingabeen garraioaren segurtasun-baldintzak arautzen ditu, eta bertan biltzen dira, halaber, eskola-garraioa eta adingabeen garraioa aurrera eramateari aplikatu dakizkiokeen gainerako arau guztiak ere.

11.2.4 Trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko udal-zerga ordaindu dela egiaztatuko duen ordainagiria.

11.2.5 Aseguru-etxeak emandako ziurtagiria, aseguru-poliza osagarria kontratatua eta indarrean duela egiaztatzen duena, alegia. Aseguru-poliza horrek kopuruari begira inolako mugarik gabe estaliko du garraiatutako pertsonen garraioan erabilitako ibilgailuen erabileratik eta zirkulaziotik eratorrita pairatutako kalte-galeren erantzukizun zibila.

11.2.6 Ikastetxeak emandako ziurtagiria: ikastetxearen beraren izena eta garraiatu behar diren ikasleen kopurua adierazi beharko ditu.



11.2.7 Eskatzen dituzten ibilbide eta geldilekuak zehatz-mehatz adierazten dituen agiria.

11.2.8 Garraio pribatu osagarriari dagokionez, ibilgailuaren gidariaren eta ikastetxearen arteko lan-harremana egiaztatzen duen dokumentazioa, eta baita gidariak lan-harreman hori dela-eta Gizarte Segurantzaren kotizatzen duena adierazten duen dokumentazioa ere.

11.2.9 Garraiatu behar diren ikasleekin batera joango den laguntzailearen izena egiaztatzen duen ziurtagiria; entitate kontratugileak emandakoa, alegia. Betiere, ziurtagiri hori nahitaezkoa denean.

11.3 Urte guztietako ekainaren 1a baino lehen aurkeztu behar da nahitaez eskaera. Egun horretatik aurrera, ez da inolako eskaerarik onartuko.

Alabaina, finkatutako epetik kanpora ere aurkeztu ahal izango da eskaria, baldin eta honako egoeraren bat gertatzen bada:

11.3.1 Dagoeneko eskuratutako baimenean edo epearen barnean modu egokian eskatutakoan, garraiolariak epea amaituz gero eskuratutako ibilgailu berriak gehitzeko eskaria egiten badu.

11.3.2 Dagoeneko eskuratutako baimenean edo epearen barnean modu egokian eskatutakoan, beste ikastetxe batzuetara ere zerbitzuak egingo direla edo lankidetzak berriak sortu direla gehitzeko eskaria egiten bada. Betiere, aipatutako garraio-kontratu edo lankidetzak kontratu horiek epea amaitu ostean egin badira.

11.4 Dagokion Udaleko Zerbitzuak eskaria eta erantsitako dokumentazioa aztertu ostean, akatsen bat bilatzen badu, halaxe jakinaraziko zaio eskatzaileari, eta hamar eguneko epea emango zaio, auzia konpontzeko. Era berean, adieraziko zaio hamar eguneko epe horretan ez badu arazoa konpontzen, bere eskaria atzera botako dutela, eta izapide gehiago egin gabe, artxibatu egingo dutela; halaxe xedatzen baitu azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 71.1. artikulua. Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko legea da hori, hain zuzen.

Atal honetan xedatutakoaren arabera, dokumentuen indarraldia eskaera aurkeztu den egunaren arabera izango da; betiere, garraiolariak une oro dokumentu horiek indarrean edukitzeko daukan betebeharra inolaz ere aparte utzi gabe. Beraz, dokumentu horien indarraldia mantentzearen arabera izango da baimena.

11.5 2. atalean xedatutako baldintzak betetzen direla ziurtatu ostean, eta Zirkulazio eta Garraiorako Udal Zerbitzuaren, eta hala behar izanez gero,



Udaltzaingoaren txostenak jaso ostean, Alkatetza-Lehendakaritzak baimena ematea ebatziko du.

Baimenean, enpresaren izenaz gainera, beste hainbat datu adierazi beharko dira: ibilgailuen matrikulak, zerbitzua eskaini beharreko ikastetxearen edo ikastetxeen izenak, baliozkotasun-epea eta baimendutako ibilbide eta geralekuak.

## **12. Artikulua**

12.1 Dagokien ikastetxeekin garraio-kontratuak artean zehaztu gabe edukitzeagatik, garraiolariak ezin baditu aurkeztu eskaria aurkezteko epearen barruan, edo, hala badagokio, arazoa konpontzeko epearen barruan, aurreko artikuluko 11.2. paragrafoko 11.2.2), 11.2.5), 11.2.6) ataletan, eta hala badagokio, 11.2.9) atalean zehazten diren dokumentuak, behin-behineko baimena emateko eskaria egin ahal izango du.

12.2 Hori gertatuz gero, eskaria aztertu, eta aurreko artikuluko 11.2. paragrafoko 11.2.1), 11.2.2) 11.2.3), 11.2.4), 11.2.5) ataletan, eta hala badagokio, 11.2.8) atalean zehazten diren dokumentuak modu egokian aurkeztu direla egiaztatu ostean, Alkatetza-Lehendakaritzak behin-behineko baimena ematea ebatziko du.

12.3 Behin-behineko baimena duen titularrak, nolana ere, urriaren 31 aurretik aurkeztu beharko ditu aurreko artikuluko 11.2. paragrafoko 1.2.2), 11.2.6), 11.2.7) ataletan, eta hala badagokio 11.2.9) atalean zehazten diren dokumentuak.

12.4 Dokumentu horiek guztiak aztertu ondoren, behin-behineko baimen hori behin betiko bilakatuko da.

Urriaren 31 baino lehen ez badira aurkezten behar diren dokumentuak, behin-behineko baimena indarrik gabe geratuko da automatikoki.

## **13. Artikulua**

Dagokion zerga-ordenantzan xedatutako kopurua ordaindu ostean, emandako baimena baztertu egin beharko dute eskatzaileek.

## **IV. KAPITULUA**

### **ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK**

## **14. Artikulua**



Honako Eranskin honetako zeinahi artikulutan xedatutako arauak edo baita Alkatetza-Lehendakaritzak emandako ebazpenak ere urratuz gero, zirkulazio-antolamenduko arauak hautsi direla ulertuko da, eta, beraz, legez xedatutako prozeduren bitartez zigorrak jarriko dira.

Honako hauek joko dira arau-haustetzat:

- 14.1 Alkatetzak edo Lehendakaritzak emandako udal-baimena ez edukitzea. Bertan, adierazita egongo dira ibilgailuak, ibilbideak eta baimendutako geralekuak.
- 14.2 Ibilbideetako ordutegia ez errespetatzea.
- 14.3 Ibilgailuaren aurreko kristalean kartela ez eramatea. Bertan, kontratatu duen ikastetxearen izena eta ibilbide-zenbakia egongo dira adierazita.

## **15. Artikulua**

14. artikuluan tipifikatutako arau-hausteak zigortzeko isunak jarriko dira, Zirkulazioko Ordenantza Orokorreko Arau-hausteak eta Zigorrak Koadroan xedatutakoaren arabera (8. Eranskina).

## **16. Artikulua**

Honako Eranskin honetan eta hortik eratorritako arauetan xedatutakoa pareko araudietan xedatutako murrizpen, debeku eta zigorrak aparte utzi gabe ulertu beharko da.



## **7.ERANSKINA**

### **ZIRKULAZIOAREN ETA DENBORA MUGATUKO APARKALDIEN ANTOLAMENDURAKO ARAUAK (TAO)**

#### **I. KAPITULUA**

##### **APLIKAZIO XEDEA ETA EREMUA**

###### **1. Artikulua**

Honako Eranskin honen xedea zirkulazioa antolatzea eta hobetzea da. Horretarako, bideetan nahiz herriko aparkaleku publikoetan egiten diren aparkaldiei buruzko araudi funtzionala, espaziala eta denborazkoa finkatu nahi da. Halaber, beharrezkoak diren neurriak ezarriko dira, araudi hori bete dadin.

Errenteriako Udalak ondasun urritzat hartzen ditu herri barruan dauden aparkatze-guneak. Haien ustiapena interes orokorrekoa da eta ibilgailuen erabiltzaile guztiek eskubide berak dituzte haiekiko.

Horren ondorioz, Udalak ahalik eta ekitate handiena lortu nahi du denbora-banaketari dagokionez, aparkatzeko dauden guneetan. Zirkulazio-gaien artean lehentasunez lortu beharreko helburua da Udalarentzat. Azken batean, aparkatze-guneak jabetza eta ondasun publikoko ustiapen trinkotzat hartzen dira. Horrela, alde batetik, herritar guztiek aparkatze-guneak erabiltzeko aukera izango dute, sortzen zaizkien arazoak konpondu ahal izateko; eta bestetik, inork ez du gune horien erabilera pribaturik eta pribilegiaturik egiteko aukera izango, edozein arrazoi emanda ere. Eta bereziki, espazio erabilgarria denbora mugarik gabe erabiltzen denean, beste erabiltzaileen kalterako. Horrelakorik gerta ez dadin, erabilera, iraunkortasuna eta aparkalekuetatik ibilgailuak kentzeko zerbitzua arautuko dira, Errenteriako Udalak eskaintzen duen Zerbitzu Publiko gisa.

Honako Zerbitzu Publiko hau TAOren araudia aplikatuz eratu, antolatu eta eskainiko da. Halaber, araudia ez betetzeagatik Zerbitzu Publikoaren funtzionamendua oztopatzen bada, ibilgailuak kentzeko aukera ezarriko da.

###### **2. Artikulua**

Honako araudi honen bidez, aparkaldien denbora-mugak ezarriko dira eta aplikazio lurralde-eremuak zonaldeka zehaztuko dira. Halaber, alkatetzak publikoki jakinaraziko ditu, gutxienez hamabost egun lehenago, araudi honen eraginpeko eremuetan egiten diren aldaketak, mugen ingurukoak izan nahiz bestelakoak izan. Aldaketak Udaletxeko Ediktu eta Iragarki Ohol Ofizialean, herrian ale kopuru gehien





saltzen dituen egunkarian eta Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

## **II. KAPITULUA**

### **APARKALDIAREN DENBORA MUGATIK SALBUETSITA DAUDEN KASUAK ARAUTZEARI BURUZKO ARAU OROKORRAK**

#### **3. Artikulua**

Hona hemen, aparkaldiaren denbora-muga betetzeko salbuetsita daudenak:

- 3.1 Zerbitzu publikoari lotutako ibilgailuetako txartel berezia duten ibilgailuak.
- 3.2 Gordetako gunetan aparkaturiko ibilgailuak, beren kategoriarik edo jarduerarik dagokion udal-baimenarekin.
- 3.3 Taxiak, gidaria bertan dagoenean.
- 3.4 Anbulantziak eta osasun-laguntzarako erabilitako ibilgailuak zerbitzuan daudenean. Ibilgailuek Gizarte Segurantzakoak, Gurutze Gorrikoak edo ongile izendaturiko Erakunde batekoak izan beharko dute eta horrela adieraziko da haien Zirkulazio Baimenean. Halaber, Erakunde ongile batekoak izanez gero, zerbitzuak ordain-saririk gabe eskainiko dira.
- 3.5 Edozein Erakunde Publikotako zerbitzu ofizialeko ibilgailuak, behar bezala identifikatuta baldin badaude eta beren eskumenari dagokion zerbitzu publikoa betetzen duten ibilgailuak, zerbitzuan ari direnean.
- 3.6 «Egoiliarrentzako txartel berezia» duten ibilgailuak.
- 3.7 «Merkatarientzako txartel berezia» duten ibilgailuak.
- 3.8 Salgaien garraiorako erabiltzen diren furgonetak eta kamionetak (automobilak izan ezik). Dena den, ibilgailu horietarako bereziki eginiko txartelak parkimetroan eskuratu beharko dira.

#### **4. Artikulua**

3. artikuluan ezarritakoaren arabera, Errenterriko Udalak «aparkatu ahal izateko hainbat txartel» jarriko ditu. Honako txartel hauek izango dira:

- 4.1 Egoiliarrentzako txartel berezia.



4.2 Merkatarietzako txartel berezia.

4.3 Zerbitzu publikoari lotutako ibilgailuetarako txartel berezia duten ibilgailuak.

4.4 Ibilgailu ofizialetarako txartel berezia.

4.1. eta 4.2. txartelak horretarako egokitutako lekuetan eskuratu beharko dira, dagokion Ordenantza Fiskalean zehazten diren baldintzak betez eta ordainketak eginez.

## **5. Artikulua**

Aurreko atalean aurreikusitako txartel bereziren bateko titularrak helbidez edo ibilgailuz aldatzen badu, Udalari jakinaraziko dio.

Edozein txartel berezi bidegabeki erabiliz gero, aurreikusitako zigorrak jartzeaz gainera, txartela ezeztatu egingo da, eta beste edozein txartel ateratzeko baimena ukatuko zaio txartelaren jabeari.

## **Zerbitzu publikoetarako txartel berezia**

### **6. Artikulua**

Honako ordenantza honi begira, zerbitzu publikoei lotutako ibilgailutzat hartuko da, udalerrian eginkizunak betetzeko beharrezkoa dena. Baimen-eskaera dagokion erakunde ofizialak tramitatu beharko du eta horrek aurkeztuko du zerbitzuarekiko lotura justifikatzeko dokumentazioa.

## **Ibilgailu ofizialen txartel berezia**

### **7. Artikulua**

Ibilgailu ofizialen txartel bereziei dagokienez, interesdunak idatziz egin beharko du eskaera. Eskaerarekin batera, ibilgailuaren Zirkulazio Baimenaren fotokopia eta Erakunde Ofizial baten zerbitzura dagoela egiaztatzen duen dokumentua aurkeztu beharko dira.

## **Egoiliarrentzako txartel berezia**

### **8. Artikulua**

Berariazko seinaleztatzeek edo arau orokor batek kontrakoa adierazten ez duten bitartean, «Egoiliarrentzako txartel berezia» haizetakoaren barrualdean agerian duten ibilgailuek ez dute aparkatzeko denbora-mugarik izango, dagokien gunearen barruan. Txartela arazorik gabe ikusi beharko da kanpoaldetik.



Ibilgailuko «egoiliarrentzako txartel berezi» bat banatuko da.

«Egoiliarrentzako txartel berezia» duten pertsonak txartel horren erantzuleak izango dira. Beraz, helbide- edo ibilgailu-aldaketak Errenterriako Udalean jakinarazi beharko dituzte, sortzen diren ondorioei begira.

## **9. Artikulua**

Errenterriako Udalak egoiliarrentzako txartel berezia emango die, gune jakin baterako eta denbora balioarekin, honako baldintza hauek betetzen dituzten ibilgailuei:

9.1 Ibilgailuaren jabea Errenterrian egoiliarra den pertsona fisiko bat izatea eta Udal Erroldan alta emana egotea. Halaber, jabeak txartelean zehazten den gunean bizi beharko du. Egoiliarren familia-unitateko eta etxebizitzako behar adina txartel banatuko da. Horrelakoetan, Probintziako Zirkulazio Buruzagitzak igorritako Zirkulazio Baimenean ageri den pertsona ibilgailuaren jabetzat hartuko da, betiere ibilgailu kopuruak etxebizitza horretan erroldatutakoen gidabaimen kopurua gainditzen ez badu.

Familia-unitate bakoitzean lehen ibilgailuak egoiliarrentzako txartel berezia eskuratzeko ordaindu beharreko kopurua Ordenantza Fiskalean xedatutakoa izango da. Gainerako ibilgailuek egoiliar txartel bereziagatik ordaindu beharrekoa kalkulatzeko, Ordenantzan xedatutakoari %50 gehituko zaio, hurrenez hurren, etxebizitza-unitatearen ibilgailu kopuruaren arabera.

Horrelakoetan, Probintziako Zirkulazio Buruzagitzak igorritako Zirkulazio Baimenean ageri den pertsona ibilgailuaren jabetzat hartuko da.

9.2 Erroldan ageri den etxebizitzaren titulartasuna eta ibilgailuaren Zirkulazio Baimenarena berbera izango da.

9.3 Ibilgailua alta emana egongo da Errenterriako Ibilgailuen Zirkulazio Zergaren Erroldan. Bertan ageri den titulartasuna eta helbidea bat etorriko dira aurreko ataletan zehaztutakoekin. Halaber, zergaren ordainketa egunean egongo da.

9.4 Zirkulazioko Araudiaren eta Errenterriako Udalaren Zirkulazioko Ordenantza Orokorren arau-hauste baten ondorioz ordaindu gabeko isunik ez izatea.

## **10. Artikulua**

«Egoiliarrentzako txartel berezi» baten titularrak etxebizitza edo ibilgailua aldatzen baditu, etxebizitza edo ibilgailu berriari dagokion txartela emango zaio. Ez ditu tasak ordaindu beharko, baina etxebizitza berria gunearen barruan egongo da nahitaez. Halaber, aurreko txartela itzuli beharko du, eta aurkeztu beharreko dokumentazioaren kopia bana ere aurkeztu beharko du. Honako arau hau bete



ezean, aurreikusitako zigorrez gain, «egoiliarrentzako txartel berezia» ezeztatu egingo zaio, eta ezin izango du berririk atera, horretarako eskubidea izan arren.

## **11. Artikulua**

«Egoiliarrentzako txartel berezia» lortu ahal izateko, interesdunek honako hau egin beharko dute:

11.1 Eskaera behar bezala betetako inprimaki ofizialean aurkeztu.

11.2 Errenteriako Udalerriko Erroldan egotea, «egoiliarrentzako txartel berezia» eskatzen den helbide berean. Era berean, helbide bera ageriko da Ibilgailuen Zirkulazioko Udal Erroldan eta ibilgailuaren Zirkulazio Baimenean. Baldintza hori nahitaez eta aitzakiarik gabe bete beharko da.

11.3 Ibilgailuaren jabeak bere nortasuna egiaztatu beharko du, NANA erakutsiz. Atzeritarrek, berriz, egoiliar-txartela edo pasaportearen erakutsi beharko dute.

Dokumentu horietan eskatutako bereizgarrian zehaztuko den helbide bera agertuko da. Horrez gain, dokumentuen kopia bana erakutsi beharko da.

11.4 Ibilgailuaren jabearen —edo erabiltzailearen— gidabaimena erakutsi beharko da, kopia batekin batera. Gidabaimenean ere helbide bera agertuko da.

11.5 Ibilgailuaren jabetza egiaztatu beharko da, Zirkulazio Baimena erakutsiz. Bertan, aurreko ataletan aurkeztu beharreko dokumentuetan ageri den helbide bera agertuko da nahitaez. Horren kopia bat ere aurkeztu beharko da.

11.6 Errenteriako Udalerriaren Ibilgailuen Zirkulazio Zergaren Erroldan alta emana egongo da ibilgailua, aurreko ataletan zehaztutako helbide edo titulartasun berarekin. Halaber, hala badagokio, zerga ordainduta egongo da.

11.7 Jabeak dagokion kuota ordaindu beharko du. Txartela jasotzeko unean egingo da ordainketa.

11.8 Egoera bereziak: eskatzaileak aurreko ataletan eskaturiko baldintzaren bat betetzen ez duenean gertatzen dira. Horrelakoetan, eskumena duen Organoak egoiliarrentzako txartel berezia eman ahal izango du, bere iritziz, eginiko alegazioak ongi justifikatuta badaude. Baimen horri ez zaio aplikatuko Zerga Ordenantzan egoiliarrentzako txartel berezien prezioan aurreikusitako edozein hobari.



## **12. Artikulua**

Egoiliarrentzako txartel berezia galtzen bada, kopia bat egiteko aukera egongo da, baina interesdunak txartela galdu izanaren adierazpena sinatu beharko du. Bertan, txartel bereziarekin egiten ahal diren iruzurren erantzule gisa agertuko da interesduna bera. Horrekin batera, Eskubideak eta Tasak Arautzeko Zerga Ordenantzan dokumentuak emateagatik ezarritako udal-tasak ordaindu beharko dira, kopia eskuratzeko.

## **13. Artikulua**

Egoiliarrentzako txartel bereziak urtebeteko iraupena izango du. Berritu aurretik, TAOren honako Ordenantza honetan ezartzen diren baldintzak betetzen direla ziurtatu nahian, Udalak egokitzat irizten dituen egiaztapenak egin ahal izango ditu. Halaber, urtebeteko epearen barruan, txartela ateratzeko nahitaezkoa eta beharreakoa den baldintzaren bat desagertzen bada, Udalak «egoiliarrentzako txartel berezia» ezeztatzeko eskumena izango du, inolako diru kopururik itzuli gabe.

## **14. Artikulua**

1. Aparkatze mugatuko guneeetan kokatutako jardueren titularrek merkatarienezako txartel berezia eskatu ahal izango dute, beren jardueretan zamañak egiteko ibilgailua ezinbestekoa dutela behar bezala frogatuz gero.

Kasu berezietan izan ezik, ibilgailu bat baimenduko da dagokion udal-baimena duen saltoki bakoitzeko.

2. Zirkulazioko baimena enpresa baten izenean duten ibilgailuen jabe diren egoiliarrek ere eskatu ahal izango dute txartel berezi hori. Kasu horretan, enpresak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko dute egiaztatzeko ibilgailu hori eskatzailearen erabilera pertsonalerako dela.

Honako Eranskin honen 9. Artikulua 9.1., 9.2., eta 9.3. ataletan titularrei eta ibilgailuei dagokien zerga-helbideei buruz esandakoa izan ezik, Merkatarienezako txartel bereziaren baldintza orokorrak egoiliarrentzako txartel berezirako ezarritako berak izango dira.

## **III. KAPITULUA**

### **APARKATZE DENBORA MUGATZEKO ARAUAK**

#### **Sektore urdina**

## **15. Artikulua**

Aparkatzeko denbora-muga, leku berean eta jarraian, 90 minutukoa izango da,



gehienez ere. Hasieran, lanegunetan bakarrik ezarriko da. Astelehenetik ostiralera, 9:30etik 13:30era eta 16:00etatik 20:00etara, eta larunbatetan, 9:30etik 13:30era.

Horri begira, Udalak aparkatze-txartelak jarriko ditu (*ticketak*). Txartelak horretarako egokitutako guneetan eskuratu ahal izango dira, dagokion zerga-ordenantzak ezartzen dituen baldintzak betez eta ordainketak eginez.

## **Sektore berdea**

### **16. Artikulua**

Aparkatzeko denbora-muga, leku berean eta jarraian, 4 ordukoa izango da, gehienez ere. Hasieran, lanegunetan bakarrik ezarriko da. Astelehenetik ostiralera 9:30etik 13:30era eta 16:00etatik 20:00etara, eta larunbatetan, 9:30etik 13:30era.

Horri begira, Udalak aparkatze-txartelak izango ditu (*ticketak*). Txartelak horretarako egokitutako guneetan eskuratu ahal izango dira, dagokion zerga-ordenantzak ezartzen dituen baldintzak betez eta ordainketak eginez.

Nolanahi ere, alkatetzak hori guztia aldatzeko ahalmena izango du, hau da, gehienezko denbora murriztu edo areagotu, egunak eta orduak aldatu edo TAO Ordenantza honen guneak zabaldu ahal izango ditu. Aldaketak Udalbatzari jakinaraziko dizkio.

### **17. Artikulua**

TAO Eranskin honen eraginpeko guneetan aparkatzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

17.1 *Ticketa* edo parkimetroetan ateratako txartela ibilgailuaren haizetakoaren barrualdean jarriko da, kanpotik ongi ikusteko moduan. Xedapen hau salgaiak garraiatzeko ibilgailuei aplikatu ahal izango zaie, hau da, honako Eranskin honen 3. Artikuluan aipatzen diren horiei.

17.2 Leku berean aparkatzeko gehienezko denbora agortzen denean, ibilgailua mugitu egin beharko da. Horrez gain, ezin izango da leku berean aparkatu hurrengo 90 minutuan.

Dena den, aurreko paragrafoaren xedapena ez zaie aplikatuko 3. Artikuluan aipaturiko salgaiak garraiatzeko ibilgailuei.

17.3 Bi gurgpileko motorrak, txirrindak eta ziklomotorrak, horientzko bereziki antolatutako aparalakekuetan baino ez dira aparkatuko.



### **18. Artikulua**

Honako Eranskin hau betearazteko xedearekin, kontrol-zerbitzua ezarri da, beharrezkoak diren bitarteko materialekin eta pertsonalekin. Zerbitzua eskaintzeko, Tokiko Erakundearen araudian aurreikusitako edozein kudeatze-sistema erabili ahal izango da.

### **19. Artikulua**

Zirkulazioan eta aparkalekuetan eragina duten gertaerak jazoz gero, Alkatetzak, Udal Zirkulazio eta Garraio Sailak hala eskatuta, honako Eranskin honen aplikazioa eteteko ahalmena izango du, denbora-tarte batez. Etenaldi horiek arauriko gune osoan edo zati batean egin ahal izango dira.

### **20. Artikulua**

Honako Eranskin honetan aipatutako dokumentazioaz gainera, Errenteriako Udalak beharrezkotzat jotzen dituen dokumentu osagarriak eskatu ahal izango dizkio interesdunari. Horien bidez, behar bezala justifikatzen ez den alderdiren bat egiaztatuko da.

## **IV. KAPITULUA**

### **ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK**

#### **21. Artikulua**

Honako kapitulu honetako artikulua edo Alkatetzak horri lotuta hartutako erabakiren bat modu batera edo bestera urratuz gero, zirkulazio-antolaketaren arau-hauste gisa hartuko da. Beraz, legez finkatutako prozedurari jarraituz, zigorrak ezarriko dira.

Honako hauek arau-hauste gisa hartuko dira:

- 21.1 «Aparkatzeko ordutegi-txartela» izan gabe edo behar bezala erakutsi gabe aparkatzea.
- 21.2 Aparkatzeko ordutegi-txartelean zehazten den denbora gainditzea.
- 21.3 Gune berean aparkatzea, aparkatzeko gehienezko denbora amaitu ondoren eta 17.2. artikuluan agintzen diren 90 minutuak pasatu ez direnean.
- 21.4 «Aparkatu ahal izateko txartelik» gabe aparkatzea edo txartela ikusten ez den lekuren batean jartzea.



- 21.5 «Aparkatu ahal izateko txartel» manipulatu edo faltsua erabiltzea.
- 21.6 «Aparkatu ahal izateko txartel» ezeztatua, iraungia edo desegokia erabiltzea.
- 21.7 «Egoiliarrentzako edo merkatariarentzako txartel berezia» erabiltzea, bertan zehaztutako ibilgailuaren jabea aldatu denean.
- 21.8 «Egoiliarrentzako txartel berezia» erabiltzea bertan zehaztutako egoitzagunetik kanpo.
- 21.9 Txartel berezien titularrek helbide-aldaketaren gaineko edo ibilgailuaren eskualdatzearen gaineko jakinarazpenik ez egitea.
- 21.10 Txartel berezien erabilera okerra egitea.
- 21.11 Honako Eranskin honetan ezarritako arauak behin eta berriro ez betetzea.

## **22. Artikulua**

21. artikuluan tipifikaturiko arauak isunarekin zigortuko dira, Zirkulazioko Ordenantza Orokorrean ezarritakoaren arabera. Era berean, 21. Artikuluko 21.7., 21.8. eta 21.10. ataletan txartel berezia kentzeko aurreikusitako arau-haustek zigortzeko, horretarako ezarrita dauden legezko baliabideak erabiliko dira.

## **23. Artikulua**

Aurreko artikuluan ezarritako zigorrez gainera, 21. artikulua 21.1. eta 21.2. ataletan —21.2. atalari dagokionez, ordaindutako denbora bikoizten bada—, tipifikatzen diren arau-haustek gertatuz gero, ibilgailuak bide publikotik kenduko dira; izan ere, zerbitzu publikoa asaldatzen dutela ulertuko da.

## **24. Artikulua**

- 24.1 Ibilgailu bat bide publikotik kentzen bada, ibilgailuaren gidariak, edo haren ordezkaria den titularrak, honako kontzeptu hauen eraginez sortutako gastuak ordaindu beharko ditu:
- 24.1.1 Bide publikotik kentzea eta ibilgailuen udal-biltegira eramatea.
- 24.1.2 Ibilgailua udal-biltegira eraman eta 24 ordura, bertan egoteagatik eguneko ordaindu beharreko kopurua.
- 24.2 Gastu hauen guztien zenbatekoak dagokion Zerga Ordenantzan zehaztuko dira. Zenbatekoak eginiko arau-hausteari dagokion isunarekiko independenteak izango dira.





## 25. Artikulua

Bai honako Eranskin honetan xedatutakoa eta baita haren ondorioz zehazturiko arauak ere, bat datorren araudiaren murrizketei, debekuei eta zigorrei kalte egin gabe ulertuko dira.



## 8. ERANSKINA

ERRETERIAKO UDALA

# ARAU-HAUSTEEN ETA ZIGORREN KOADROA

UDALZAINGOA



## UDAL ORDENANTZAK

UDAL ORDENANTZAN HAUTSITAKO XEDAPENA	HAUTSITAKO ARAUA	ZIGORTZEKO EREDUBIDEA	
	ARTIKULUA	LARRITASUNA	ISUNA
Seinaleak jartzea aldez aurreko udal-baimenik gabe <b>Gelditzea.</b>	UO 7.3	L	200
Espaloirik ez duen kale batean gelditzea, ibilgailuaren eta hurbilen dagoen fatxadaren artean tarterik utzi gabe (bestela adierazten duen seinalerik egon ezean).	8.3 UO	A-1	50
Babesgune batean gelditzea.	8.6.9 UO	A-1	50
Irlatxo batean gelditzea.	8.6.9 UO	A-1	50
Erdibitzaile batean gelditzea.	8.6.9 UO	A-1	50
Ibi bat oztopatuz gelditzea.	8.6.10 UO	L	200
Higiezin bateko pertsonen irteeragune edo sarreragunearen erabilera normala oztopatuz gelditzea.	8.6.11 UO	L	200
Espaloi baten gainean gelditzea.	8.6.12 UO	A-1	50
Pasealeku batean gelditzea.	8.6.12 UO		50
Oinezkoen gune batean gelditzea.	8.6.12 UO	A-1	50
Lorategi batean gelditzea.	8.6.12 UO	A-1	50
Zubi batean edo haren azpian gelditzea.	8.6.20 UO	A-1	50
Pasagune altxatu batean edo haren azpian gelditzea.	8.6.20 UO	A-1	50
Martxaren kontrako noranzkoan gelditzea.	8.6.23 UO	A-1	50
<b>Aparkatzea.</b>			
Baimenduta ez dagoen ibilgailu batek zamalanetarako den gune batean aparkatzea.	9.11.7 UO	A-3	100
Baimendutako ibilgailu batek zamalanetarako den gune batean aparkatzea halako lanik egin gabe.	9.11.6 UO	A-3	10
Toki berean 7 egun segidan baino gehiago aparkatzea.	9.11.4 UO	A-1	50
Martxaren kontrako noranzkoan aparkatzea.	9.11.5 UO	A-2	80
Herri barruan ibilgailu motordunetik banandutako atoeiek, autobusek, traktoreek, karabanek edo 3.500 kg-tik gorako BGPa duten ibilgailuek aparkatzea.	9.6 UO	A-3	100
Bizikleta bat horiek aparkatzeko egokitutako lekuan behar bezala aseguratuta gabe aparkatzea.	9.9 UO	A-1	50
Bizikleta bat oinezkoen joan-etorriari traba eginez aparkatzea.	9.9 UO	A-2	80
Bizikleta bat ibilgailuen joan-etorriari traba eginez aparkatzea.	9.9 UO	A-3	100
Bizikleta bat zuhaitz bati edo altzari urbano bati lotuta edo lorategi, parterre edo antzekoen gainean aparkatzea	9.9 UO	A-1	50
Bizikleta bat 3 m. baino zabalera txikiagoko espaloian aparkatzea.	9.9 UO	A-1	50
Oinezkoen gunean edo pasealekuetan motorrak aparkatzea horientzat gorde eta egokitu gabeko lekuetan.	9.10 UO	A-1	50



Martxan dagoen ziklomotor batekin eta eserlekuan jarrita oinezkoen guneetan, edo pasealekuetan sartzea.	9.10.1	A-2	80
Zoruan markatutako perimetroan motorra baterian ez den beste era batean aparkatzea.	9.10.2	A-1	50
Ibilgailu bat herri jabarian aparkatzea zirkulatzeko beharrezko duen derrigorrezko baimen administratiboa izan gabe.	9.11.22 UO	A-3	100
<b>Zirkulatzea.</b>			
Baimenduta ez dagoen ibilgailu batekin oinezkoen gunetik zirkulatzea.	11.2 UO	L	200
Baimendutako ibilgailu batekin oinezkoen gunetik zirkulatzea, baimendutako ordutegitik kanpo.	11.6.2 UO	L	200
Baimendutako ibilgailu bat aparkatzea, baimendutako ordutegitik kanpo.	11.6.2 UO	A-3	100
Oinezkoen gunetik zirkulatzea, oinezkoek pasatzeko duten lehentasuna errespetatu gabe.	11.9 UO	L	200
<b>Zamalanak.</b>			
Salgaiak galtzadan edo espaloian uztea.	13.6 UO	A-1	50
Zamalanak egitea, zarata edo eragozpenak sortuz.	13.7 UO	A-1	50
Salgaien zamalanak egitea, espaloitik urrutien dagoen aldetik.	13.8 UO	A-1	50
Zamalanak egitea, eragiketa arintzeko beharrezkoak diren bitartekoak erabili gabe.	13.8 UO	A-1	50
<b>Zirkulazio orokorra eta bizikleten erriak</b>			
Ibilgailu mota jakin baterako den errei edo bide batetik zirkulatzea.	14.1 UO	A-1	50
Ibilgailu mota horretarako erreitik kanpo zirkulatzea.	14.2 UO	A-1	50
Zirkulatzea baimenduta dagoen oinezkoen guneetan, espaloirik gabeko galtzadetan edo oinezko ugari dauden tokietan abiadura ez murriztea.	15.2 UO	L	200
Baimendutako oinezkoen guneetatik, galtzadatik edo oinezko ugari dauden tokietatik zirkulatzea, istripuak saihesteko beharrezko neurriak hartu gabe.	15.2 UO	L	200
Motorrak eta ziklomotorrak bidegorrietatik zirkulatzea	15.5.1 OM	A-2	80
Bizikletak ez diren ibilgailuak bidegorrietatik zirkulatzea	15.5.1 OM	A-3	100
Oinezkoak bidegorriak zeharkatzea haientzat egokitu gabeko lekuetatik	15.5.2 OM	A-1	50
Txirindulariek oinezkoen bidea ez ematea haiek oinezkoentzako bideetatik pasatzen ari direnean	15.5.2 OM	L	200
Oinezkoek bizikletei bidea ez ematea haiek oinezkoentzat egokitu gabeko lekuetatik pasatzen ari direnean	15.5.2 OM	L	200
Bizikletaz seinalizatu gabeko ibilbideetatik zirkulatzea seinalizatuta daudenetatik egin daitekeenean	15.5.3 OM	A-1	50
Oinezkoak gainerako trafikotik bereizitako bidegorrietatik zirkulatzea	15.5.5. OM	A-1	50
Jende asko dabilen momentuetan oinezkoentzako eremu, pasealeku edo espaloietatik bizikletaz zirkulatzea	15.5.7	A-1	50



Oinezkoentzako eremu, pasealeku edo espaloietatik bizikletaz zirkulatzea oinezkoen lehentasuna errespetatu gabe	15.5.7	A-1	50
Oinezkoentzako eremu, pasealeku edo espaloietatik bizikletaz zirkulatzea orduko 10km baino handiagoko abiaduran	15.5.7	A-1	50
Bizikletak oinezkoentzako eremu, pasealeku edo espaloietatik maniobrak axolagabeak eginez zirkulatzea	15.5.7	A-2	80
Bizikletak oinezkoentzako eremu, pasealeku edo espaloietatik maniobrak arriskutsuak eginez zirkulatzea	15.5.7	A-3	100
Bizikletak taldean zirkulatzea oinezkoentzako eremu, pasealeku edo espaloietatik	15.5.7	A-2	80
Bizikletaz galtzadako ezkerreko erreitik zirkulatzea ezkerrean jiratzeko asmorik izan gabe edo eskuineko erreitik egin daitekeenean	15.5.8 OM	A-2	80
Bizikletarekin behar bezala egiaztatu edo homologatu gabeko atoi edo antzekoren bat arrastaka eramatea	15.5.10 OM	A-2	80
Atoian edo antzekoan paketeak edo haurrak eramatea ezarritako pisuaren mugak gaindituta	15.5.11 OM	A-3	100
7 urtetik beherako haur bat behar bezala egiaztatu edo homologatutako aulkian eramatea ezarritako pisuaren mugak gaindituta	15.5.11 OM	A-3	100
Bizikleta edo ziklomotorrarekin beste ibilgailuei eskuinetik aurrea hartzea bien artean gutxienez 1,5 metroko distantzia utzi gabe	15.5.12 OM	A-3	100
Eskatu ahalako garraio-zerbitzua egitea alde aurreko udal-baimena izan gabe.	18.1 UO	A-3	100
Eskatu ahalako garraio-zerbitzua balio-epea amaitu zaion udal-baimenarekin egitea.	18.3 UO	A-3	100
Eskatu ahalako garraio-zerbitzua egitea eman zen udal-baimenean agertzen diren bestelako baldintzatan.	18.3 UO	A-3	100
Eskatu ahalako garraioaren geralekuan bidaiariak hartu edo uzteko beharrezkoa den baino denbora gehiago egotea.	18.4 UO	A-3	100
Motorerik gabeko patinekin edo antzeko gailuekin bizikleten bide, espaloi edo oinezkoen gunek ez diren beste zirkulazio bideak erabiltzea.	18.8 UO	A-1	50
Motorerik gabeko patinekin edo antzekoekin ibiltzean oinezkoen joan-etorriari ez egokitzea.	18.8 UO	A-1	50
Monopatinak erabiltzea espaloietan, oinezkoen gunetan edo bizikleten gunetan.	18.8 UO	A-1	50
Bizikletan ibiltzea zoruan gupil bakarra duela	18.9 UO	A-1	50
Ziklomotorrez ibiltzea zoruan gupil bakarra duela	18.9 UO	A-1	50
Motorrez ibiltzea zoruan gupil bakarra duela	18.9 UO	A-3	100
Bizikletaz, motozikletaz, motorez, patinez, monopatinez edo antzeko gailuz ibiltzea martxan dauden ibilgailuei helduta.	18.9 UO	A-3	100
Jolasak eta denbora-pasak egitea bide publikoetan oinezkoei eragozpenak sortuz.	19.1 UO	A-1	50



Jolasak eta denbora-pasak egitea bide publikoetan egiten dituztenentzat arriskutsuak direnean.	19.1 UO	A-3	100
Jolasak eta denbora-pasak egitea bide publikoetan oinezkoentzat arriskutsuak direnean.	19.1 UO	L	200
Aldez aurreko udal-baimenik izan gabe oinezkoen edo ibilgailuen igarotzea oztopatzen dituzten eta taldeak edo jende-pilatzeak sortzen dituzten jarduerak edo deialdiak egitea.	19.2 UO	A-1	50
Edozein esparru edo zerbitzutara sartzeko ilarak eratzea, etxebizitza edo saltokietarako sarbideak oztopatuz eta galtzadan sartuz.	19.3 UO	A-1	50
Jardueraren erantzuleak ordena-zerbitzu egokirik ez izatea, etxebizitza edo saltokietako sarbideak oztopatzen dituzten antolatu gabeko ilarak sor ez daitezen.	19.3 UO	A-1	50
<b>TAO</b>			
“Aparkatzeko ordutegi-txartela” izan gabe edo behar bezala erautsi gabe aparkatzea	21.1 - 7. Eranskina	A-1	50
“Aparkatzeko ordutegi-txartel”-ean adierazitako aparkatze-denbora gainditzea	21.2 - 7. Eranskina	A-1	50
Toki berean berriz aparkatzea, behin aparkatzeko gehieneko aldia bukatu eta 6.b) artikuluan agintzen den 90 minutuko epea igaro gabe.	21.3 - 7. Eranskina	A-1	50
“Aparkatzeko erabilera-txartel”-ik gabe aparkatzea edo toki ikusgarrian ez jartzea.	21.4 - 7. Eranskina	A-1	50
Maneiatu edo faltsututako “aparkatzeko erabilera-txartel” bat erabiltzea.	21.5 - 7. Eranskina	L	200
Ezeztatu, iraungi edo egokia ez den “aparkatzeko erabilera-txartel” erabiltzea.	21.6 - 7. Eranskina	L	200
“Bertakoaren txartel berezia” erabiltzea hura jaso zuen ibilgailuaren jabetza behin eskualdatu ondoren.	21.7 - 7. Eranskina	L	200
“Bertakoaren txartel berezia” erabiltzea dagokion bizilekugunetik kanpo.	21.8 - 7. Eranskina	L	200
Edozein txartel berezi behar bezala ez erabiltzea.	21.10 - 7. Eranskina		
<b>IBILGAILUEN ZARATA</b>			
Sei dB(A) baino gehiagotan gainditzea ziklomotor eta motorretarako gehieneko hots-mailaren mugak.	6.1.1 - 5. Eranskina	L	200
Hodi libreko ibilgailu motordun eta ziklomotorrekin zirkulatzea.	6.1.3 - 5. Eranskina	L	200
Isilgailua hondatutako duten ibilgailu motordun eta ziklomotorrekin zirkulatzea.	6.1.3 - 5. Eranskina	L	200
Isilgailu osatu gabea edo desegokia duten ibilgailu motordun eta ziklomotorrekin zirkulatzea.	6.1.3 - 5. Eranskina	L	200
lhes-hodia homologatu gabe duten ibilgailu motordun eta ziklomotorrekin zirkulatzea.	6.1.3 - 5. Eranskina	L	200
Ibilgailu motordunetan edo ziklomotorretan martxak behartzeagatik alferrik diren azelerazioek eragindako zarata nekagarriak sortzea.	6.1.3 - 5. Eranskina	L	200
Herri barruan turuten edo beste edozein hots-seinale erabiliz zarata sortzea.	6.1.3 - 5. Eranskina	L	200



Ibilgailu motordunak hots-kontrolen errebisiora aurkezteari uko egitea.	6.1.4 - 5. Eranskina	L	200
Administrazioaren zeregin ikuskatzailea oztopatzea, ibilgailuei egoki diren egiaztapenak eta azterketak egitean.	6.1.5 - 5. Eranskina	L	200
Zilindro-edukiera bakoitzerako baimenduta dauden dB(A)-ak hiru aldiz gehiago eta sei aldiz gutxiago izatea.	6.2.1 - 5. Eranskina	A-3	100
Ibilgailuen zilindro-edukiera bakoitzerako baimendutako mugak 3 dB(A) baino gutxiago gainditzea.	6.3.1 - 5. Eranskina	A-1	50
<b>IBILGAILUEN ZARATA GAUEKO ORDUTEGIAN</b>			
Ziklomotor eta motorretarako gehieneko hots-mailen mugak sei dB(a) baino gehiago gainditzea.	6.1.2 - 5. Eranskina	L	200
Dagozkion bibrazio mailak gainditzea, baimendutakoaren berehalako goiko oinarri-bihurguneraino.	6.1.3 - 5. Eranskina	L	200
Hodi libreko ibilgailu motordunekin eta ziklomotorrekin zirkulatzea.	6.1.3 - 5. Eranskina	L	200
Isilgailua hondatuta duten ibilgailu motordunekin eta ziklomotorrekin zirkulatzea.	6.1.3 - 5. Eranskina	L	200
Isilgailu osatu gabea edo desegokia duten ibilgailu motordun eta ziklomotorrekin zirkulatzea.	6.1.3 - 5. Eranskina	L	200
Ihes-hodia homologatu gabe duten ibilgailu motordun eta ziklomotorrekin zirkulatzea.	6.1.3 - 5. Eranskina	L	200
Ibilgailu motordunetan edo ziklomotorretan martxak behartzeagatik alferrik diren azelerazioek eragindako zarata nekagarriak sortzea.	6.1.3 - 5. Eranskina	L	200
Herri barruan turuten edo beste edozein hots-seinale erabiliz zarata sortzea.	6.1.3 - 5. Eranskina	L	200
Administrazioaren zeregin ikuskatzailea oztopatzea, ibilgailuei egoki diren egiaztapenak eta azterketak egitean.	6.1.5 - 5. Eranskina	L	200
Zilindro-edukiera bakoitzerako baimenduta dauden dB(A)-ak hiru aldiz gehiago eta sei aldiz gutxiago izatea.	6.2.2 - 5. Eranskina	A-3	100
Ibilgailuen zilindro-edukiera bakoitzerako baimendutako mugak 3 dB(A) baino gutxiago gainditzea.	6.3.1 - 5. Eranskina	A-2	80
1) 98-06-18 Agindua. ERREPIDEKO GARRAIOAK. Gai arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuetako gidarien prestakuntzarako ikastaroen eta haiek eman ahal izango dituzten prestakuntza-zentroen araudia. (BOE 98-06-30 / 159. zk.).			
<b>HERRI JABARIKO OBREN SEINALIZAZIOA</b>			
Trafikoari eragin dioten leku hartzeak eta seinaleztatzeak ez eskatzea.	27-2 Eranskina 4	L	200
Seinaleak behar den bezala eta gidari eta oinezkoek ikusteko moduan ez mantentzea.	29 Eranskina 4	L	200
Dagokion baimena eskatu gabe kaleak moztea edo errepedea edo espaloia trafikoa edo oinezkoak ez pasatzeko moduan estutzea.	32-1 Eranskina 4	L	200
Dagokion baimena eskatu gabe norabide bakarreko	32-2 Eranskina	L	200



kalea trafikoarentzat 3 metroko zabalera baino gutxiagorekin uztea.	4		
Bi norabideko kalea trafikoarentzat 6 metroko zabalera baino gutxiagorekin uztea	32-3 Eranskina 4	L	200
Oinezkoentzako 1,50 metroko pasabide bat seinale distiratsuekin aurrez ez seinalezatzea.	32-7 Eranskina 4	A-2	80
Hondeaketa gaiak autoen eta oinezkoen trafikoari eragiten dien gunean edo zorua edo seinale horizontalak oztopatzeko eran jartzea.	32-7 Eranskina 4	L	200
Hondeaketa gaiak ikuspena jaitzarazten duten lekuan jartzean.	32-7 Eranskina 4	L	200
Obrarako behin-behineko edozein instalazio lagungarri (etxola, makineria, lagungarriak e.a.) ikuspena jaitzarazten duten lekuan jartzea.	32-7 Eranskina 4	L	200
Obrarako behin-behineko edozein instalazio lagungarri (etxola, makineria, lagungarriak e.a.) autoen eta oinezkoen trafikoari edo zoruari eta seinale horizontalei eragingo dien lekuan jartzea.	32-7 Eranskina 4	L	200
Dagokion baimena izan gabe, oinezkoen ohiko pasabideak edo espaloiak erabilgarri ez mantentzea.	32-8 Eranskina 4	L	200
Dagokion baimenik gabe seinaleztatutako oinezkoen pasabideetan, bus geltokietan, etxe atarietan, e.a. seguritate neurriak ez hartzea..	32-8 Eranskina 4	L	200
Zuloen gainetik e.a. antzeko lekuetatik pasatzeko jarritako pasabidea edo oholak, arriskua minimora jaisteko, ondo itsatsita eta elkarri ondo erantsita ez jartzea	32-9 Eranskina 4	A-3	100
Oinezkoen beste espaloitik joateak komeni zaiela adieraziko dien kartelik jartzea.	32-10 Eranskina 4	A-1	50
Pasabidea mugatzeko, eta oinezkoak erorikoetatik babesteko hesi, baranda, edo babesteko heldulekurik ez jartzea.	32-11 Eranskina 4	A-2	80
Baimendutako ibietako sartu-atera ez bermatzea, behintzat eragindako pertsonekin hitzartutako eta Udal trafikoaren zerbitzuek onartutako ordutegian	32-12 Eranskina 4	A-3	100
Dagokion baimenik gabe semaforo kanalizazioen funtzionamendua, argi-paldoen zimenduak, semaforo zutabeak edo trafikorako antzeko seinaleak moztea,	32-13 Eranskina 4	L	200
Dagokion baimenik gabe semaforo funtzionamendua edo ikuspena etetea.	32-13 Eranskina 4	L	200
Obra amaitzean, berak eragindako trafiko seinaleak ez berriro jartzea, errepide markak barne.	32-13 Eranskina 4	L	200
Seinaleak jartzerakoan, Zirkulazio Erregelamenduak, ordenantzek eta indarrean dagoen gainerako Araudiak koloreei, tamainari eta bestelako baldintzei buruz dioena ez betetzea.	32-15 Eranskina 4	L	200
Obretan 4 eranskinaren gehigarrian adierazten diren eskemen arabera ez seinalezatzea. Hor adierazten da, kasu edo egoera bakoitzerako orokorrean gomendagarri den instalazioa seinaleentzat, hesientzat, argientzat, oinezkoen pasabideentzat e.a.	32-16 Eranskina 4	L	200





Gauean ikusgarri ez daudenean, seinale distiragarriak ez jartzea.	32-18 Eranskina 4	L	200
Gune hesituetan edo balizatuetan, gaueko ordutegirako argi keinukariak edo kokalekua adierazteko argi gorria ez instalatzea.	32-18 Eranskina 4	L	200
Kale bat edo kalearen norabideetako bat trafikoari ixtea , ordenantzak araututako baimen berezia izan gabe.	32-19 Eranskina 4	L	200